

EN
EA



250

1937

4-

KISTO'REN ANTZ-BIDEA

REPRODUCTION



M.
R-45943
ATV
2103

KEMPIS'TAR TOMA

KISTO'REN
ANTZ-BIDEA

Olabide'taf Efaimun'ek S. I.
euskeralduta



DONOSTIA

Loyola'tar Eneko Deunaren Iřarkolan.

1920

Imprimi potest
Henricus Carbajal S. I.
Praep. Prov. Castellanae.

Nihil obstat :

Assumptio Gurutxaga.
Emmanuel Lekuona.
Censores deputati.

Vitoriaë die 16.^a martii 1917

Imprimatur

† *Leopoldus Eijo,*
Ep. Victoriensis.

LENBIZIKO IDAZTIA

Gogo-bizitzarako

oañ adiñonak.

I ATALA

Kisto'ren antz-bidea, ta luñeko
zirtzilkeri oroen narga.

1. *Dañaikidana ez dabil ilundan,*
dio Yaunak.

Kisto'renak dira itzok, bere bizkera
ta yardunbidea aitzeko garagitela, zi-
ñez argituak eta biotz-itsukeriekiko ya-
rei izan nai ba-degu. Gure ekiterik bi-
ziena, beraz, Kisto'ren bizitza gogal-
tzen aritzea bedi.

2. Deunen irakaskizun guziak baño
garayago da Kisto'rena, ta bertan os-
tendutako mana lidoroke Kisto'ren
gotamua leukakenak. Baña Kisto'ren
gotamurik askok ez dutelako, Goizpe-
ña maiz entzunda ere, goñ-motelik gel-
ditu oi dira. Osoro ta mamiki, ordea,
Kisto'ren itzak uleñtu nai dituanak bere

bizkera osoa Kisto'ren eduz eraldu bea du.

3. ¿Zertarako ote dezu Irukoitz deuntzaz sakonki yardutea, apalbera ezpa-zera, Irukoitza argatikantxe nardatzen dezularik? Ez dute noski itz gurenak inorikan deuntzen, ez zindotzen; bizkera zintzoa bai-da, ordea, Yainkoaren maitea inor dagiana. Garbaya zer dan yakin baño, garbai izan nayago de. Idazteuna ta yakitun oroen esakunak buruz ba-zenekizki ere, ¿zertarako litzaizuke ori Yainkoaren maitasun eta eskafik gabe? Yainkoa maite, ta bera-ganako mofoiketari ari izan ezik, utso utsoala ta uskeri utsoa dana bai-da. Yakiterik garayena, beñiz, lufekoen nardaz goiko yaureñirontu ekitea da.

4. Beraz, irraizeko ogasun bila ibiltzea, ta ayetan uste ona ipintzea uskeria da. Deduak irikatzea, ta goiko itunera yeikitzea, uskeria ere da. Aragi-iritsen ondoan, ta atzetikan ordain latza ekañi bea duanaren gura ibiltzea, uskeria da. Biztaldi luzea nai, ta bizkera zindotzeko lebarik ez izatea, uskeria da. Etoñkizuna aurretik sorozteke, oraingo bizitzaren ayola izatea, uske-

ria da. Lasterixe igarobeafak maite ta betiko pozaldera ez leyatzea, uskeria da.

5. Arako esakuna maiz oroi ezazu; ez da begia ikustez ase, ezta belafia entzutez ere. Zure biotza, beraz, begitan daudenekiko lefatik aldentzen, eta ikusi ezin diranetara eramaten ekin ezazu; bafnea kutsatu ta Yainkoaren eskafa galtzen du-ta, aragiari dafaikiok-nak.

II ATALA

Norberaren apalespena.

1. Yakintzaleak dira berenez giza-kume oro; baña Yainkoaren belduñik gabe, zertarako ote da yakitea? Bere burutzaz azturik, ortzi bireketa azter-tzen ari dan yakitun aña baño, Yainkoaren mofoiketari ari dan baseñitaña obea da. Burua ongi dazaunak, burua gutxi datsa, ta giza-goralbenak ez diote atserik egiten. Luñeko guziak bane-kizki ere, maitasunik gabe nengolarik, iartan zelako urgazi izango nuke, egikunei dagokienez natsaken Yainkoaren aitziñean?

2. Yakinmiña urtikan egizu; gogo-

bañeyakeri ta iruzur' aundia artan kokatzen diralako. Yakitungat ageri ta ospatu izan yakitunak oldez nai dute. Yakingairik asko dira gogoari mozkin ufi ala deusik ere ez dakañkiotenak. Ta zorotzaña bai-da, burua gaizkatzeko adiñonetan ezik, ezertan ari dana. Ez du gogoia itz-kopuruk asetzen; bizkera zindoak, ordea, gogoia gordintzen baidu, ta Yainkoa ganako entzinmena biotz garbitik soñtzen da.

3. Geyago ta obeki dakizun giñoan, zoñotzago ere izango zaizu ebazpidea, zintzokiago ezpa-zera bizi. Ez zaite, ez antzeagatik ez yakintzagatik puztu; beañ bada, osterá, zuri emandako yakiteagatik belduñ zaite. Dakizuna ta ongixe uleñtzen dezuna asko ba-deritzazu, ez dakizkizunen kopura aundiagoa data ekizu. Ez zaite, ba, añotu; zure yakiterik-eza, ordea, aitoñtu ezazu. ¿Zergatik, ba, zure buru ori iñor baño obetsi nai al dezu, zu baño yakitunago ta aginbidearen erantzale bikañagorik asko diran ezkeró? Adiñonez ezer ikasi ta yakin nai ba-dezu, ostenik eta ezerez aintzakotzat guziei izan nai ezazu.

4. Nork bere burua benetan ezagun ta ezestea, oña irakaskizunik goren eta onenerakoa. Ezerez aintzakotzat bere burua, ta geidea on ta gurentzat iriztea, orixe bai-da yakite ta zindotasun aundia. Inork agerian oben ala okef aundiren bat egiten ba-zenekus, ez zenuke ura baño zure burua obetsi beaf; ez dakizu-ta ein onean noizafte diraukezunik. Zingilak gera oro; ala ere, ez ezazu zu baño zingilagotzat inorikan etsi.

III ATALA

Egiaren irakaskizuna.

1. Egiak berak berez, ez irudien ezta itzen bidez ere, bera dan bezelaxe baño, irakasten duana juraxe zori ontsua! Gere iritzi ta senak askotan oge-naltzen gaituzte, ta gutxitxo dakuste.

¿Zertarako al da gai ezkutu ta ilunak gogoan zofozki erabiltzea, alakorik yakin ez-añen. Yainko-añean akañik ez degula yasango-ta? Adinona ta beafa danarekiko lebarik ez, ta alpef ta kaltetsuekiko ayola geradenok, tenteltzañak bai-gera; begiak ditugula, ez dakusku.

2. ¿Zer al dakañkigute ariak edo, motak edo? Betiko Itza mintzatzen zayona iritzi askotatik yarei egiten da. Itz bakañ bat aunengandik guzia datoñ. ta bakañ bat auxe orok dasate; ta be-
rauxe da darauskigun soñburua. Berau gabe ez du iñork ezer ere aditzen ez añtez irizten. Guziak bat iñori ba-zazkio, batengana guziak ba-dakañzki, ta bategan guziak ba-dakuzki, orixe biotz-egoñik ta Yainkoagan narerik baidagoke. Egia zeran Yainko oñek, betiko maitasañez zurekin bat nagizu. Askotan aspeñtu naiz, berein irakuñi ta entzutez, Zugan dago nai ta gura dedan guzia. Ixil bitez irakasle oro; ixilik beude zure aitziañean irazaki guziak. Zeoñek bakañik itz egidazu.

3. Bañnetik iñor lañakituago ta batuagorik legoken giñoan, geyago ta gurenagoak ere dazauzke; adin-argia goitik dañkelako. Gogo garbi, xalo ta egoña ez da arazo naspiletan ere urmariatzen; Yainkoaren aintzarako guzia dagialako, ta berekoikeri guzitik yarei egoten ekiten dualako. ¿Zerk geyago eragotzi ta mutiritzen zaitu, zure biotz-iritz iñauskak baño? On eta zin-

tzoa danak atetiko eginbeñak bere baitan lendanik atontzen ditu. Ez dute bera eginbeñok eramaten; berak, baña, senaren oldez zuzenbidera bigurtzen ditu. ¿Buzuka latzagorik norik ote du, bere burua ezten ekiten duanak baño? Gure arloa atxe izan beñ litza-ke; burua eztea, egunoro areago sendotzea, ta onbidean zerbait aufferatzea.

4. Biztaldi aurretako bikaindasunak nosku bat edo bat beti bai du eratsita; ta giza asmakuntza laño-peiturik ez dago. Yakintzarako azteñpen sakona baño, buruaren ezaguntza apala Yainkoaganako bide zuzenagoa bai-da. Ez da yakintza ala ezaguntza soil edozein gaiztetsi beñ, berez ona dalako ta Yainkoak zuzendua; baña gogo arteza ta bizkera zindoa beti obetsi beñ dira. Ala ere ondo bizi baño askok yakinnayago dutela-ta, askotan uts egiten dute, ia mozkin uñi ala bat ere ez ateratzen dute.

5. Eztabaidak eraikitzen aña, ekan-du txañak idokitzen eta onak eradoten ekingo ba-lute, ez legoke lagunabañean ainbeste okeñ ta galbiderik, ezta lekaidetxetan ainbeste nasaikeririk ere. Ez

digute, ziñez, auzi-egunean itanduko zer irakufi, bai ordea zer egin ote degunik; ezta ere zeñen ipin-apan mintzatu, zintzoki bizi izan edo geranetz baño. Esadazu, afen. ¿non ote daude arako yaun eta irakasleak, beñola, bizirik eta ofiloan zeudeñean, ezautu zenituanak? Beren opideak bestetzuek dauzkate, ta ez dakit ayentzaz oroi ere ote diranetz. Bizi izan ziranean, zerbait ziruditen; orain, beñiz, ayen aipurik ez.

6 ¡Oñen agudo itzali oi da emengo aintza! ¡Beren yakintza laingo bizkera ai-lute! Oñela egokiak izango lirake ayen ikas-irakasketak. Alpeñikako yakintza dala bide, ¡soñaldi aunetan amai-ka galtzen dira, Yainkoaganako moñoitzaaren ayola gutxiagatik! Ta apalak baño aundiak izan obetsi dutelako, beren asmakerietan suntsitzen dira. Maitasafe aundia duana, auxe ziñez aundia da. Bere begitan txikia dana, ta ospe-erpiña ere ezerez aintzat datsana, auxe ziñez aundia da. Kisto irabazteko-tan, luñeko guziak satzat esten ditua-na, auxe ziñez zuña bai-da. Ta bere oldea utzita, Yainkoarena betetzen duana, auxe ziñez bai-da yakitun arñeza.

IV ATALA

Eginbeařetarako gurbildasuna.

1. Ez da itz ala susmo edozein ziñetsi beař; baña Yainko-arauz gurbilki ta mara mara azlatu beař da. ¡Au miña! geidetzaz sařitan ona baño eřazago gaitza ziñetsi ta esan oi da: ¡ain gera markets! Baña zindoa dan iñork ere ez ditu edonoren esamesak eřaz ziñesten; gizakeria gaizpera dala ta erausketan labangařixea dakialako.

2. Eginbeařetan ariñegi ez yardutea, ta norberaren iritziak isituki ez eustea, sen aundia da. Senari ere dagokio ofko norbaiten esamesak ez ziñestea, ezta ere edonoren belañietara entzundakoak berealaxe ez ixurtzea. Gizon oentsu ta zindoagana itun-eske zoaz, ta zure asmakizunei yařaitu baño, obea danaren irakaskizunak ařtu nayago itzazu. Bizkera onak Yainkoaren erarako sen eta askotarako atiña norberari dakařzkio. Apalago ta Yainkoaren menekoago iñor dan giñoan, orotarako senago ta naretsuago ere izango da.

V ATALA

Idazteunaren irakufpena.

1. Egia, ez itz-antzea, idazteunetan bilakatu beař da. Egiña dan asmoaz idazteun edozein irakufi beař da. Izkuntza zořotza bařno, onura zoliago bilatu beař degu artan. Idazti guren eta sako-nak bezain oldez irakufi beař ditugu azkutsu ta iřongoak. Ikastun okitu ala uřia idazlea dala-ta, ez bezaitza aren sapak erason; bařna egi utsaren ega-řiak irakuřtzea bezerama. Zer esaten ote dan, begirazu, ez nork dasan.

2. Gizakiak igarotzen dira; bařna Yainkoaren egiak beti-betiko dirau. Bide askotaz itz egiten digu Yainkoak iřoren bereizkeririk gabe. Idazkunak irakuřtzean eragozpidetzat maiz zaigu yakingale okeřa, xaloki igaro-bea-řean, uleřtu ta eztabaidan irabiatu nai-rik. Etekin atera nai ba-deřu, gogo apal, xalo ta zindoz irakufi egizu; ta beřere ez ezazu yakitun aipurik izan nai. Deunen itzak oldez galde ta ixilik entzun itzazu; ta aguraen esakunak ez

bekizkizu gogait; alpefik esanak ez diralako.

VI ATALA

Girin okefak.

1. Zerbait iñork okefez nai duan bakoitzetan, berealaxe bere baitan artegatzen da. Añoak, ez zekenak atsedetik iñoiz ere ez dute; txiroak eta gogoapalak, ostera, ezli-etzitan diardute. Berekiko il-ilik ez dagona ziltzaz lastef dabil, ta zizki-mizkietan azpiratzen da. Gogo makal, aragikoixe ta somagañietara ayefa oraïndik dana, luřeko tfitsetatik osoro aldendu nekez diteke. Ta aldentzen danean ere, atsekabe oi da, ta iñor yañkitzen ba-zayo, berealaxe asefe.

2. Gura duana, beřiz, eskuratu-etzkeron, berealaxe barne-zimikoz lařitzen da; nai zuan gentzarako deusik ez dan giriñari yañaitu zitzayolako. Giriñei gogoř egiten, biotz-gentza yardesten da; ayen mendean ibilki, iñoiz ere ez. Aragikoyen biotzean gentzarik ez dago ezta atetikoetara yotzen duan iñorgan ere; bai dago, ordea, gañtsu ta gogo zaleagan.

VII ATALA

Alpefikako uste ta afokeritik
igesi beaf da.

1. Gizakiagan ala irazakietan bere itxarobidea yaítzen duana tentela baida, Yosuren edefagatik inoren mofoitzan diarduzulako ez zaite lotsa, ezta gizaítean landeña dirudizulako ere. Zeořegan ez entzindu; Yainkoagan, osterá, zure uste ona ipiñi ezazu. Al dezakezuna egizu, ta zure nai ona Yainkoak sorotziko du. Zure yakintzatik naiz inoren antzetik ez entzindu; bai baño, apalak urgazten ta afoak apaltzen dituan Yainkoaren eskařetik.

2. Aberatsa ba-zera, ogasunez ez puztu; aizkidetaz ezta ere; Yainkoagatik bai poztu; guzia, ba, Ark dama, ta guzien gañez Bera dan orixe eman naidu. Lazo on edefagatik ez anpatu; txaketen bat edo batez markestu ta itxusten da-ta. Zure igurdizi ta antzea dirala-ta, zerořen burua ez ezazu atsegin, Yainkoari gogait ez eragiteko; berea dalako etofkiz dezun on guzia.

3. Zure burua ez ezazu inor baño

obetsi, ez zaitzan Yainkoak gaiztoago-
tzat etsi, gizakumegan zer dagon da-
kialarik. Ondo egindakoengatik ez aro-
tu; ez dira, ba, Yainkoaren espenak
gizakien idekoak, ta gizakiak atse-
gin duana, saritan Yainkoari gogait
zayo. Onik zerbait ba-dezu, besteak
are oberik zerbait dutelakoan zaude,
apalik irauteko. Oroen azpira-ezkero,
ez dezu kalterik izango; kalte aundia,
ostera, letozkizuke, inor baka bat baño
garayago yartzetik. Apala beti gentzaz;
aroren biotzean, ordea, maizetan inar-
tsi ta aserea.

VIII ATALA

Nabastafe geyegitik igesi beaf da.

1. Ez ezayozu zure biotza edonori
zabaldu, baña zure garatzak yakitune-
kin ta Jainkoaren belduftiarekin atondu
itzazu. Gazteekin eta arotzekin gutxi
yardun. Ez zaite aberatsen zurikatzañe;
ezta ere aundikiengana oldez ez sartu.
Apal-xaloekin, yainkozale ta zindoe-
kin zabilzake, ta onbiderakoetaz yar-
dun ezazu. Emakume inorbaiti ere ez
zatzakio nabasi, baña emakunde on

danaren aldez Yainkoari otoi egiozu. Jainkoari bakarik eta bere gotzonei nabasi izan gura ezazu, ta giza-nabastareari iges egiozu.

2. Oroenganako maitasuna beara bai-da; oroenganako nabastarea ez da adiñona. Noizpait, ausaz, aipu onez inork argi egiten du, baina argana orduko, bera dakustenen begiak lausotzen ditu. Inoiz gure yardunbidez lagunek atsegin gaituztela uste degu, ta nardagariagoak ayentzat izaten asten gera, gugan begiratzen dituzten ekandu txarengatik.

IX ATALA

Men eta aginpetza.

1. Aundia ta alaena da nausiaren mendean bizitzea, ta nor bere buru ez izatea. Nausigoan baño, besteren mendean egotea guziz da ezkieřago. Oldez baño geyago, besterik ezinda, inoren mendean asko daude; baru ta maxioz oi dabilta ofelakoek. Goikoaren ederřagatik burua ezpa-dute biotz biotzez azpiratzen, beñere ez dute biotz-yareitas nik yardetsiko. Of ara yo-are...

atsedenik ez dezuzu yafugiko, nausiaren mendean apalik egon-ezik, Irudimenak ta foki-aldak asko atzipetu zituzten.

2. Nork bere iritziz pozikan diardu, ta bere irizkidengana ayeñagoa da. Baña guretarfean Jainkoa ba-dago, gure iritzia noizpait utzi beař degu, gentzaren edeñagatik. ¿Oro osoki yakiteko laingo yakintza nork ote du? Zure iritzia, ona izanda ere, Yainkoaren edeñagatik uzten ba-dezu, besterenari yafaitzeko, etekin ugariago andik aterako dezuz.

3. Askotan entzun det, ba, eskieñago dala entzutea ta iñoren onua ańtzea, ematea baño. Norberaren ustea ona izan bai-diteke; baña geideari amorik ez egitea, senak ala arazoak amora daskanean, afokeri ta isiaren agerbitzea da.

X ATALA

Itz alpeñak urñikan beař dira.

1. Giza-izkanbila albait alde eragikezu, eragozpide aundia izan oi da-ta gizarfeko azi-orñaziak erabiltzea, asmo zindoz yardun-añen; uskeriak, ba, bereaxe kutsu ta atzikitze gaitu. Asko

tan ixilik egon eta gizaftan ibili ez izan nai nituke. Baña ¿zer dala-ta, ofenbeste pozik darasagu ta elkar diardugu, bakan-bakanetan ixilaldira barne-kalterik gabe itzultzekotan? Elkar atsegin izateko, ta oldozkua nabañez biotz akitua nasaitzeko asmoz, ain pozik erausketan ari gera. Gañez maite ta gura ditugunak, baita gogait zaizkigunak ere, oldez erausketan ta gogoan darabiltzkigu.

2. Alpefik, baña, ta utsalki, zori txañez. Atetiko atsegiñaldi orek Jainkoagandiko barne-atsekuntzari kalte aundia dagio-ta. Ernai, beraz, ta otoketan egon beañ gera, astia alpefik ez datzaigun igaro. Itz egitea zilegi ta adiñona dezunean, onerakoak bitez zure itzak. Ekandu okeña ta auferatzeko lebarik-eza ao-zaitzarako eragozpidetzañak zaizkigu. Gogo auferabiderako, oster, urgazi azkaña zaigu, gogo-ara-zoak erausketan erabiltzea, bereziki, biotz ta gogo idekoak Yainkoagan elkar biltzen diranean.

XI ATALA

Gentzarako bidea ta auferatzeko leya.

1. Gentza ugari bai-geneukake, gurre kisan ez dagon inoren esamesetan eta azi-orazietan yardun ezpa-genu nai. Beste inoren garatzetan nasten danak, lekorekoen bila dabilanak eta bere baitan beñere ez, ala bakanetan, biltzen danak ¿gentza luzerik zela euki al izango dezake? Zori ontsuak, noski, xaloak, gentza ugari daukakete-ta.

2. ¿Zergatik ain guren ta gogaltzale deun batzuek izan ote ziran? Luñeko irits guzientzako burua osorik sogof-tzen ekin zutelako, ta añezkero, Yainkoari biotz-mami mamitik itsatsi, ta berenekoetan yardun izan zezaketelako. Gu gure girin-arazotan lañegi nasiak gabilta, ta iragan beañ diranen ayola geyegi gerade. Gutxitan ere okermin bat osoki itotzen degu ta egunoro auferatzeko ez gera azkoitzen; argatik befi otz epelik gelditzen gera.

3. Guretzako il-ilik eta gure baitan ez nasirik ba-geunde, orduntxe Yain-

koarenak milikatu ta ortziko sokun apuñtxo bat somatu alko genituke. Artarako zoztoñ bakañ ta nausia zaigu, girin eta ifitsetatik yarei ez egotea, ta deunen bide bikañean sañtzen ez ekitea. Berebat naigabe pitin batera-ordukoxe, okiltzen gera ta giza-atsegiñetara biguñtzen.

4. Biotz kementsuei dagokienez buñukan irauten ekingo ba-genu, gugana goitik yeisten Yainkoaren urgazia ziñez genekuske. Gerturik dago-ta Bera buñukariak eta bere eskañatik entzinduak sorozteko; guda-zorian ipintzen gaituala, garaikuna yardetsi dezakeguntzat. Atetiko iñarkunetan bakañik gogo-auñerapena ba-dazañgu, gure azkua lasteñ itzaliko da. Eñoa aizkoraz yo dezagun, giriñak lañakituta, gogogentza eukitzeko.

5. Urte oro girin bana iñausiko ba-genu, bikañak lasteñ izango giñake. Orain aitzitik, maiz doañgu obeak eta garbiagoak giñala askaldian, urte askoren buruan baño. Gogo-azkua ta auñerapena egunoro geitu beañ lirake; orain, ordea, lengo gañaren pindafa ere iñork ba-dauka, ezer aunditzat de-

ritza. Asteko kemen apur batez, gero-
nean guziak eraz ta pozik egin alko
genituke.

6. Ekandua uztea zala da; zailagoa,
baña, da nor bere naimenari yarkiz yar-
dutea. Baña zizki-mizkiak ezpa-dituzu
azpiratzen, ¿zailagoak noiz menderatu
al izango ditzakezu? Zure yasari as-
kalditik gogor egiozu, ta ekandu txara
erauzi ezazu, ez zaitzan inka lañagora
mara-mara erakafi. Zindoki yarduten,
zeinbeste gentza zeorentzat, eta zein-
beste atsegin besteentzat yardetsiko
zenituken ba-zeneki, gogo-auferabi-
dean leyazago zenbikelakoan nago.

XII ATALA

Lofa zein dan adiñon

1. Adiñona zaigu naigabez ta ne-
kez noizik-bein egotea; askotan, ba,
nor bere baitara biltzen dute, atzerian
dagola oartu dezan, eta lufeko deuse-
tik ez dedin entzindu. Ona ere zaigu
naigabeak noizik-bein yasatea, ta gu-
tzaz besteak gaizki ta okef iriztea, gu-
re inarkunak eta asmoak artezak izan
afen. Lofoak apalik egoteko adiñonak

dira, ta andustetik maldatzen gaituzte. Alabañan, gizañtean matxañak agertzen geranean, eta gure gerenez iritziak oñtik dabilzanean, orduntxe barneziñaldaritzat Yainkoaren bila gabiltza.

2. Argatik gizakia Yainkoagan sendotu beañ litzake, giza-atsegin askoren ondoan ibili beañez ez egoteko. Asmo zindoz diardula, atsekabez, ala ziltzaz, ala oldozkun txañez lañi dabilenak, Yainkoa iñoiz baño beaño zayola zori artan uleñtzen du, Bera gabe ezertxo ere ezin dezakela oañtzen dualako. Orduntxe, nekaltzen duten loñak dirala ta, goibeltzen da, ta auri ta otoi dagizki. Orduntxe, bizibeañ-eta, nargaz dabil ta eriotzaren erpai, amaratu ta Kisto'rekin egoteko. Orduntxe ere oañtzen du ez dagokela luñean eskieñtasun osorik, ez gentza beterikan.

XIII ATALA

Ziltzaei yañki beañ

1. Luñean bizi geradeño, loñ ta ziltzarik gabe ezin gaudeke. Argatik Yob'en idaztiak dio; luñgañeko bizitza ziltza da. Beraz, nor bere ziltzaekiko

atzañi ta otoiketari ernai egon bea da, ez dezan txerenek iruzurako garairik; ez du-ta lorik egiten; beti, ordea, mol-soan dabil nor irentsiko. Ziltzarik be-ñere ez izateko oñenbesteko zindo ta deun danik inor ere ez dago; ta osoki ziltza-peiturik ezin gaudeke.

2. Baña ziltzok askotan gizaku-meari txit adiñonak zaizkio, nekagañi ta aztunak izan-añen; apal, txau ta ikas-tuna dagitelako. Ziltza askotar-tean deun oro iragan ta auferatu ziran. Eta ziltzak yasan ezin zitzaketanak okildu ta galdu ziran. Ziltza ta loñik gabeko gopatzik ez dago, al bait deunena ere; bazterik ere ez, al bait ostenena ere.

3. Bat ere ez dago, bizi daño, zil-tzaekiko añas eskierik; gugan dagola-ko ziltza-eñoa, irispean yayo geran-ekeroxe. Ziltza ala loñen bat yuanda, berealaxe beste bat dalkigu, beti yasan-beañez gaudelarik, gure zori ona gal-du degulako. Ziltzari igeska asko da-biltza, ta gogor kiago artara yotzen dute. Igesi utsez ezin garai izan gaitez-ke; yasan-oldez ta benetako apaldasu-nez etsai oro baño indar tsuagoak egi-ten gera.

4. Eñoa ateratzeke, lekorean bakarik gaizpidetik alde egiten duanak gutxi yardetsiko du; ostera ere, lasterago arengana ziltzak itzuliko dira, ta gaizkiago dagoke. Astiro, yasan-oldez ta gibel aundiz, Yainkoa lagun, eziko dituzu, mutiriki ta gogoréz yarduten baño egokiago. Ziltzaldian onu-eske maiz zabilke; ta ziltzan dagonari latzik ez zatzakio; ^hpoztu ezazu, ostera, zeorentzat nai zenukenez.

5. Gogo zuzika ta Yainkoaganako entzinmen uña ziltza txar guzien iturburua dira. Lemarik gabeko ontzia uñak aratauna darabilten bezelaxe, asmoa uzten duan nagia ziltzak ere or'andik daragite. Burnia sutan soiltzen da; gizaki zindoa ziltzan. Zer al dezakegun ez dakigu askotan; ta zer geran ziltzak darakus. Ernai, baña, egon bea' gera, ziltzaldian batez ere; gero baño, eikia-go etsaya orduntxe azpiratzen dalako, gogo-atean ezpa-zayo saitzen uzten, eta atea yo duanekoxe, yardukitzen ba-zayo. Argatik norbaitek esan du; askaldian yarduki; beluxe sendakiña datorke, aspaldi luzetik gaitza sendotu ba-da, Lenen, ba, oldozkun sola

bururatzen da; geroxeago irudipen azkaña; ondoren, atsea, ta zañada okeña, ta bayetza. Aunela mara-mara etsai maltzuña sañtzen da, askaldian ez zayolako gogor egin. Eta gogor egiteko, iñor tokiloago izan danez, makalago ere gelditzen da egun oro, ta aren kaltez etsaya gotoñago ere.

6. Batzuek, onbidera sañtu ta berealaxe, ziltza goñiagoak daramazkite; bestetzuek azkenean. Iñortzuek, beñiz, biztaldi osoan-edo, aunelako neketan dabilta. Batzuek, ori dala-ta Yainkoaren asmo yakintsu ta zuzena, ziltza ariñak yasaten dituzte; Yainkoak, ba, bakoitzaren inka ta sarimak aztantzen ditu, ta bere autetsien onera dana artezten du.

7. Argatik ustea ez degu galdu bear, ziltzak garagiñean, Yainkoari, bai, areago eskatu urgazi, añen, gaitzala nekaldi orotan. Ta Berak, Paul'ek dienez, ziltzarekin, berari yardukitzeko urgazi egokia ere ziñez emango digu. Yainkoaren eskupean, beraz, gure buruok apal ditzagun neke-ziltza orotan; gogo-apalak gaizkatu ta yasoko ditualako.

8. Ziltza-lořetan agertzen da zeinbat iñor azkořtu danik; antxe irabazi ugariago dago, ta agiriago nabari da iñoren zindotasuna, Ez da ere aritzekoa, lořik ez dagonean, azkuz ta gafez iñor ba-dabil; baña nekaldian iñork yasan-oldez ba-dirau, auřerapen aundia itxaro diteke.

Batzuek ziltza lařietatik burua maldatzen dute; baña egun oroko txikařetan maiz azpiratzen dira. Iñoiz ere ez ditezen aundietan berengandik entzindu, ořelako ez deusetan ok egiten dutelako lotsez.

XIV ATALA

Iritzi okeřak oildu beař dira.

1. Zeořengana begiok itzuli, ta besteen azi-ořaziak ez ebazteko ayola zaitte. Besteak ebazten dituanak alpeřik diardu; maizetan uts, ta eřaz oben dagi: bere burua, beřiz, azteřtzen eta iratio-tzen ari danak, beti onaurkiz diardu. Biotzak garamanez, gure iritziak oi dira; buruaren maitasařez irizte arřeza galtzen degulako. Gure iskiaren txede soľa Yainkoa ba-litz, ez giñake ain

eñaz asalduko, gure iritziari iñork yarduki-ezkero.

2. Baña bañean maiz zerbait kukatzen zaigu, ala lekoretik datořkigu bere ondoren garamana. Beren buruak askok edozer egitekotan bilatzen dituzte. Eztitan ere daudela deritzate, ayen gogara ezer gertatzen danean; baña gura duten bestela ezer yazotzen bada, bereala lařitzen eta goibeltzen dira. Gogo ta iritziak beste ta bestelakoak dirala-ta, saritxotan irun-añunak sortzen dira aizkide ta erkide-tarťean, baita yainkozale ta azkutsu-tarťean ere.

3. Aspaldiko ekandua nekez erauzten da: ta bere iritziaren alderantzira iñor ere ez da oldez blguřtzen. Yosu Kisto'ren indar garaikořari baño geyago, zure sen eta antzeari ezařtzen bazaitzaye, bakanetan eta beluxe argitua izango zera, Yainkoak gu bere mendean osoki egon, eta adimen oro gañera igo nai ditualako.

XV ATALA

Maitasunetik ernetako egikunak.

1. Ez luřeko edozergatik. ezta iñoren maitasunagatik ere, gaitza danik

ez da egin beař, bařa, norbaiten opa-riřa sorozteko, eginbide ona atzeratu ala beste obeagatik utzi ere beař da. Aunela egiřik, ez dalako pořokatzen, obero, baizik, aldatzen dalako.

Maitasunik gabe, ezertarako ez da atetik egikuna; maitasunagatik egiten dana, ostera, al bait txe ta kařkařena izanařen, guziz onerakoa da. Zenbat iřork dagian bařo geyago, zein maitasařez ote dagian Yainkoak aztantzen du-ta.

2. Asko dagi, asko maitatzen duanak. Asko dagi, ezer ondo dagianak. Ondo dagi, bere nayari bařo geyago, bazkunari dagokiona dagianak. Maitasuna dirudiana, askotan iřiskeria da; yatořki-ayeařak, guberaen nayak, sari-usteak eta erosokeriak nekez uzten gaituztelako.

3. Maitasun zindo ta betea duana, ezertan ere ez dabil buruaren biřa, Yainkuaren aintza bakařik yardetsi nairik. Ez du iřoren iřartsirik, buruaren atsegiřik ez dualako maite, bere burutzaz ez du ere poztu nai, oroen gařetik Yainkoagandiko zori ona gura dualako. Ezer onik ez dio iřori egoz-ten; Yainkoari, ordea, dana ezatzen

dio; Yainkoagandik, ba, itufitik bezela-
xe, oro yeixten dira, ta Beragan deun
oro azkenean pozez atsedeten dira.
Benetako maitasun-txinpart bat ere eu-
kiko lukena, luferko guziak uts utsak
bai-leritzazke.

XVI ATALA

Besteen utsak yasan bea.

1. Inork beregan ala besteengan
ezin ondu ditzakenak, egonaiz yasan
bea ditu, Yainkoak bestela erabaki-af-
te. Zure ikerpide ta yasaterako obe
edo dala ori uste ezazu; yasan-oldertk
gabe, ez dira-ta aintzat afu bea gure
sarimak. Ala ere, ofelako zoztoak
dirala ta, Yainkoari eskatu bea diogu
urgazi, azen, zaitzala, emeki zoztoak
yasateko.

2. Bein edo beiz gaztigatuta ere,
ezpa-du amolik norbaitek egiten, ez
yardun berarekin auzitan; Yainkoari,
ordea, dana egotzi ezayozu, bere naya
ta aintza bete ditezen. Aren mofoi
oroengan, Berak bai-dakialako onbi-
detzat gaitza bigurtzen. Ekin ezazu bes-
teen utsak eta edozelako opoak egona-

riz yasaten, zeofek ere besteentzako yasanbearik asko dituzu-ta. Nai dezun bezela, zeorixe ezin egin-ezkero, ¿nola besteak izango al ditzakezu zure gogarakoak? Besteak bikañak izan ditezela gogotik nai degu; guk, baño, gure utsak ez ditugu betetzen.

3. Besteentzat akañ goñiak nai ditugu; guretzat akañik ez. Besteen eskubide zabala gogait zaigu, guretzat daskagunari, ordea, ukorik ez diogu nai. Besteak arau-mugapean ertsiak nai ditugu; guk, baña, ez degu bilurik yasaten. Ala nabari da zein gutxitan geideak, gu bezela, aztantzen ditugun. Bikañak ba-lira oro, ¿besteengandik egartzeko zer izango ote genuke?

4. Yainkoak, ordea, ala erabaki zuan, elkañen zamak eramaten ikasi dezagun, akatsik gabe iñorik ez dago-ta, zama gabekorik ezta; beretzat aski danik ere ez; ezta beretzat naiko yakitunik ere; elkañ eraman bear degularik, elkañ poztu, urgazi, irakasi ta gaztigatu. iñoren zindotasuna zeinbestekoa ote danetz, loñaldian agiriago nabari da. Ez dute-ta garayak iñorik ergaltzen; zein danik bai darakuste.

XVII ATALA

Lekaideen bizitza.

1. Zure burua askotarakoan austen ikastea dagokizu, besteekin gentzaz ta gogo idez bizi nai ba-dezu. Ez da gutxi lekaretzetan naiz launbatzetan bizi izatea, ta oñonik gabe an yardutea ta il-arteraño zindoki irautea. Antxe ondo bizi ta eztitan iltzen dana juraxe zori ontsua! Bear danez iraun eta auferatu nai ba-dezu, atzerian bide egiten ari zerala luñ aunetan uste egizu. Kistorengatik tenteldu bear zera, lekaro-bidean yardun nai ba-dezu.

2. Soñekoak, naiz ile motzak, gutxitarako dira; ekanduen obekuntzak eta giriñen itokuntza osoak, ordea, benetako lekaidea dagite. Yainkoa bakañik eta bere gogoaren osasuka baizik, zerbait bilakatzen duanak, loñ ta oñazea baño ez didoroke. Luzaro ere gentzaz ezin iraun dezake txikiena izan ta oroen mendean egoten ekiten ez duanak.

3. Moñoitзара etoñi zera, nausigora ez; neke ta lanera deitu izan zerala, ez opoñ-beñiketara ekizu. Ufea labean be-

zela, gizakiak emen soiltzen dira. Inor emen ezin dagoke, Yainkoagatik apalik egon biotz-biotzez ezpa-du nai.

XVIII, ATALA

Asaba deunen ereduak.

1. Benetako zindotasun ta uzkuřtzaz argi zuten asaba deunen eredu bi-ziak begira; ta guk dagiguna zein dan uři la uřan ezer ez dakuskezu. Ayenaren aldeau ¿gure bizia zer ote da? Gosez ta egařiz, otzik ta bilutsik, lanez ta nekez, baruz ta lo uřiz, otoiz ta gogalben deunez, yazařkun eta irain ugariz, deunak eta Kisto'ren aizkideak Yainkoaganako mořoiketari zarduten.

2. Bidaliak, ziņopak, aitořtzaleak, neskutsak eta Kisto'ren aztařnetatik ibili nai zuten enparau guziak ¿zenbat eta zenbat loř yasan zituzten! Beren buruak biztaldi aunetan gořoto zituztelako, befiko bizitzan eukitzeko. ¡Asaba deunak lekaroan egin zuten bizkera estu ta gořia! ¡Ayenak ziran ziltza luze ta aztunak! Etsaya amaiketari yazaři zitzayen! Yainkoari eskeņi zizkioten otoyak zein sařitsu ta beroak ziran!

¡Ayen eliku latza! ¡Gogo-auñerantzeko leba ta gaña zeñen azkar zuten. ¡Zeñen gogor, giriñak ezteko, ayen buñuka!.. Zeñen uts ta artez Yainkoaganontz euki zuten asmoa! Egunez lanean, eta gabez otoi luzetan ziarduten, lan-arztean bertan gogo-otoirik iñoiz ere uzteke.

3. Aldi osoa onaurkiz zerabilten; Goikoagana yotzeko, asti oro labuñak zeritzazkieten. Soña azteko beña ere. sokun-ezti yoritsuagatik atzendu oi zuten. Ogasun, aundikigo, dedu, aizkide ta aide oro asagotzen zituzten: luñeko-tarik ezer ez zuten euki nai; bizitzarako beñ dana ere ozta aritzen zuten; soin-sorozkuna, beñ zanean ere, gogait zitzayen. Luñeko ogasunez landeñak ziran; baña bañetik eskañez eta zindotasunez aberatsak. Azáletik nogañoñak ziran; baña bañetik Yainko-eskar ta siratzsez aseak.

4. Gizabañentzat arotzak, Yainkoarentzat, ordea, uñengo ta nabasiak ziran. Beren begitan ezer ere ez ziran, ta gizar-tean nardagañiak; Yainkoaren aitziñean, osterá, bikañak eta kutunak. Benetako apaldasunez ziarduten, zintzoki men egiñik bizi ziran, maitasañez

ta yasan-oldez zebiltzan; ofelaxe egun oro gogo-bidean auferatu ziran eta Yainkoaran adei edera yardesten zuten. Lekaide oroentzako eredutzat yañita daude, ta ondo yañaitzera azkañkia-go aizkatu beañ gaituzte, epel-otzak nasaikeritara baño.

5. Lekaide-bazkun oroetan, irasi-beñiak ziranean, ¡zein gori zan lekaide oroen ataza!. Otoyau zein azku! Onbiderako leya zein azkañ! ¡Zeinbesteko begirune ta menez irakaslearen araupean guziak lilitu ziran! Utzi dituzten aztarnak orain ere darakuste bikain ta deunak ziñez zirala gizon ayek, ain azkañki gudatuz. gizakeri oro azpiratu zituztenak. Orain, beñiz, iñor andietsi oi da, arau-ausle ezpa-da, ta beregain añtu zuana yasan-oldez eramau ba'dezake.

6. Gure bizibidean zeñen geran epel ta zabañ, askaldiko azkutik ain laster sayestu geranok, eta epeldasun ta zabañkeriokatik bizitza ere iguin degunok! Ez begokizu, añen, lozoñoan onbiderako auferapena, azkutsuen ereduak askotan ikusi dituzun ezkeru.

XIX ATALA

Lekaide zintzoaren inarkunak

1. Ekandu on oroz apaindu bea da lekaide zintzoaren bizkera, azalean agertzen dan bezelakoa, barnetik ere izan dedin. Ta azalean nabari dan barno areago, barnean bidez bea da, begirunerik lotsena edonon zor diogun Yaungoikoa ikusletzat degulaco, ta bere aitziñean gotzonak bezain garbiak ibili bea geralako. Gure asmoa egun oro beiztu, ta, gauñtxe onbidera eldu beñiak ba-giña bezela, gure azkua pizkoñtu bea degu, aunela-edo esanik: urgazi, añen, nazazu, Yainko Yauna, nere asmo zindoan eta Zuganako moñoitzan, ta gauñdanik asiera on-ona indazu; ezer ere ez da-ta gauñdañokoan egin dedana.

2. Gure asmoa danez, gure auñerakuntza ere da; ta auñera ondo egin naidutena, buru belañi ibili bea da. Asmoa sendoa izan añen, askotan iñor erortzen ba-da, ¿asmoa bakanetan ala baldankixe añtzen duanak zer egingo al du? Baña bide askotaz gure asmo-

tik sayestu oi gera; ta iñarkunak eñaz utzi, kalterik gabe, ezin ditzakegu. Norberaren yakintzari baño, Yainko-urgaziari geyago ditxeka zindoen asmoa; ta edozein egitekotan, uste ona Bera-gan beti dute. Alabañan, gizakumeak asmo egiten, baña Yainkoak tayutzen du; ta ez dago giza-eskutan bere bidea.

3. Eñukiagatik ala senide-onaurkiagatik oiko iñarkuna noizpait uzten ba-da, gero eñaz ordaindu diteke. Baña iguñez ala zabañkeriz eiki uzten ba-da, naiko obenez gertatzen da, ta kaltea datoñke. Albait ekin beañ; oratiño ere askotan txoña egingo degu. Baña beti zerbait bereziki erabaki beañ da; batez ere, geyen eragozten gaituztenei yarkiz. Gnre azala ta bañnea orobat azteñtu beañ dira, auñerakuntzari bitzuok dagozkio-ta.

4. Zure baitara beti ezin ezpa-zaitteke bildu, noizik bein bederen bildu zaitte, ta beintzat bitan egun oro, goizean eta añatsean. Goizean asmo egizu; añatsean zure yardunbidea azteñtu ezazu, itzak, egikunak eta oldozkunak nolakoak ikan diranik; Yainkoa ta geidea agian maiz iraindu dituzulako.

Txérenen mafuei yarkitzeko, gizonki zaildu zaite; litxañkeria ezi ezazu, ta aragi-girin oro eziko dituzu. Opoñ utsik iñoiz ere ez zaude; beti, osterira irakurtzen, naiz idazten, naiz gogaltzen ala bazkunari onaurki litzayoken zedo-zertan ari zaite. Baña gurbilki soiniñarkunak erabili bear dira, ta ez dituzte orok beñdin arñtu bear.

5. Oroenak ez diranak ez dira nabarian erakutsi bear; eskierkiago norberekoak ixilikan erabiltzen diralako. Ez zaite, añen, oroenetarako nagi ta zuretarako pixkof; osterira ere, agindukak eta aginbearak oso ta zindoki bete-zkero, zeoñengana itzuli zaite, zure azkuak nai duanez. Iñarkun berbera orok ezin burutu dezakete, urliari bat, beste bat berendiari dagokio ta. Aroa danez ere bestelako iñarkunak dira gogarakoak; batzuek yayegunetan, bestetzuek astegunetan atsegiñagoak diralako. Batzuek ziltzaldian, bestetzuek gentzaztitaldian beařak ditugu. O/dozkun batzuek atsekabeen oldez darabilzki-gu, ta bestetzuek Yainkoagan poztk gaudenean.

6. Yai nausiet arakoan iñarkun onak

beriztu beaŕ dŕa, ta deunen bitaŕteko-
tasuna beroago eskatu. Yairik-yai as-
moak-aŕtu beaŕ ditugu, atzeŕi-aldi au-
netatik irtenda, betiko yayerakoak ba-
geunde bezelaxe. Argatik aro gurene-
tan gerturikago egon, azkuzago yardun
ta arau guziak zoŕozkiago bete beaŕ
ditugu, gure neke-saria Yainkoagandik
berealaxe aŕtzeakoak bezela,

7. Ta geroratzen ba-zaigu sari ori,
uste dezagun ondo gerturik oraindik
ez gaudela, ta erabakitako garayan gu-
gan ageriko dan aintza bikañerako gai
ez gerala, ta irtenaldirako gerturik ego-
ten ekin dezagun. Datokenean, Yau-
nak ernai lidoroken moŕoya,-dio Luka
goizpeŕlariak- jauxe zori ontsua! Ben
benaz dasaizuet, bere ogasun guzien
yabea egingo du.

XX ATALA

Bakaŕ ta ixilik bizigura.

1. Zeori sorozteko asti egokiaren
biŕa zabilta, ta Jainkoagandiko opa-
riak gogoan maiz erabili itzazu. Beŕi-
ketak utzi. Arazo baño, gaŕbaya geya-
go dakaŕten irakuŕkizunetan ari zaj-

te. Alpeñikako erausi ta ibilkerietatik, beñikeri ta surmuñetatik igesiko ba-zinā, gogalben onetan yarduteko beta naiko ta egokia yañugiko zenuke. Deunik bikañenak giza - autuak al bait astandu zituzten, eta bazteñean Yainkoaganako moñoitza obetsi zuten.

2. Norbaitek esan du; gizañtean egon naizan bakoitzetan, gixakotuago irten naiz. Gugan auxe maiz oañtzen degu, luzaro darauskunean. Uts egiteke erausten baño, eñezago da murtik ere ez esatea. Eikiago da etxean itzali-rik egotea, landan burua aski zaitzea baño. Gizabañetik, beraz, Yosu'rekin aldegitea adiñona izango du, bañekoetara ta gogokoetara eldu nai luke-nak.

Oldez ostentzen dana baizik, iñor ere ez da eskieñki agertzen. Oldez ixiltzen dana baizik, iñor ere ez da eskieñki mintzatzen. Ondo men egiten ikasi duanak baizik, iñork ere ez du eskieñki agintzen.

3. Eskieñki iñor ere ezin poztu ditteke, bañe zindoaren zinālbena beregan eukitzeke. Baña deunen eskieñtasuna, beti Yainkoaren belduñez beterik

dago. Zindotasun bikañez eta eskañez ditziz egin zuten-añen, ez ziran ayen apaldasuna ta ataza oregatik gutxitu. Gaiztoen ezkieñtasuna osterá anduste ta arokeritik datozkie, ta azkenean txulut egiten die. Beñere ez uzte eskieñik zaudekela biztaldi aunetan, lekaide ona, naiz padañ azkutia ba-dirudizu ere.

4. Askotan, giza-ustez onenak ziruditenak, areago galbderatu ziran beren entzingeri lañegiagatik. Argatik askok obe dute ziltzarik gabe ez izatea, ta maizeko yazarkunak egartzea, ez ditzen eskieñegi bizi, ez arotu, ezta ere orko atsaldietara nasaikiro makuñtu. Sirats mengelen bila beñere ez lebilkena, gizañtekoetan beñere ez liardukena, ta bere entzite osoa Yainkoari litxekana ¡zein bañe zindoz legoken! Alpeñikako leba oro iñausi, ta osogañiak eta betikoak bakañik gogalduko litukenak, ¡zein gentza ta naretasun ezti leuzkaken!

5. Goi sirat-gairik bat ere ez dago, gañbai deunean ezpa-da izan ayolazari, Gañbaya biotzeratu nai ba-dezu, zure tegian sañtu zaite, idatzi danez;

zuen tegietan garbai zaitezte. Tegian yañugiko dezu, lekorean sañi galduko zenukena. Tegia, koka kokatuz, gozagañi; maiz utzita, nardagañi. Onbidera-ordukoxetik tegian kokatuta bizi izan ba ziña, kufuna ta atse atsegintsua gerokoan izango litzaizuke.

6. Ixil-naretaldian gogo zindoak auñera egin oi du, ta Idazteunetan estalitakoak ikasten ditu. Gau oro gogoa garbi ta txautzeko negañ-ibayak antxe epatzen ditu; giza-iskanbilatik ufutiratzen dan giñoan, bere Irazalearekin nabasiagotu dedin. Beraz, ezagun eta aizkideengandik aldegin duanagana Yainkoa gotzon deunekin uñbilduko da. Buruaren ayolarik gabe alatzak egitea baño obe da, ostetik egonda, norberaren ayola izatea. Gutxitan irtetea, nabarian agertzetik iges-tea, ta gizakirik ikusi nairik-eza, lekaidari dagozkio.

7. Eukitzea zilegi ez zaizuna ¿zertako ikusi nai dezu? Ludia ta ango iñiskeriak igarotzen dira. Iñitsak nasaitara darakañ; baño aroa igaro-ezkero, gogo keska ta biotz-bañeikeria izan ezik ¿zer ateratzen ote dezu? Yoate

potzoñak itzultze iluna askotan darakaf; ta aratsaldeko pozari biaramoneko laña dañaikio. Orelaxe aragi-atsegin oro leunki sartu oi dira, baña azkenez ortzikatu ta erailtzen dute. Emen ez dakutzunik ¿beste inon zer dakuskezu? Oña ortzia, luña ta izagai oro; ofetaz egin dira guziak.

8. ¿Ortzipean luzaro diraukenik non dakuskezu? Ase izango zeralakoan-edo zaude; baña artara ezin eldu zaiteke. Begitan oro ba-zeneuzka ere, ¿zer ote litzake ori, alpeñikako ikusizuna baño? Goiko Yaunagana begiok yaso, ta zure oben ta baldankeriakatik otoi egiozu. Purtzilenzat purtzilkeriak laga, zu ordea, Yainkoak agindu dizun artan ari zaite. Atea itxi, ta zure Yosulaztana atotsi ezazu; Berarekin tegian zaude; ez dezu-ta beste inon ofelakogentzarik yafugiko. Ezpa-ziña irten, ezta surmuñik ere ezpa-zenu entzun, gentza nareagoz zenirauke. Elabeñiak noizpait pozik entzun nai dituzulako, biotz-kezka ere yasan beaño dezu.

XXI ATALA

Biotz - garbaya

1. Zerbait auferatu nai ba-dezu, Yainkoaren beldur zaite, ta nasayegi bizi ez ezazu nai; zure asmen guziak araupean eutsi itzazu, ta poz eroan ez zaite murgildu. Biotz-garbayan ekin, eta azkua didorokezu. Nasaikeriak laster galdu oi dituan onaurkirik asko, garbayak epatzen ditu. Arttzeko da biztaldi aunetan oso pozik inor egon alizatea ere, atzerian eta ainbeste gogo galtzoretan dabilena gogaldu ta iratio-tzen ba-du.

2. Biotz ariña ta gure utsekiko ayolagabea dirala bide, gugan ez degu gogo-miñik somatzen; askotan, oster, txoroak bezela, bañe dagigu, negar egin bidez beñ genukenean. Yainko-beldur ez ta bañen zindoz izan ezik, ez dago benetako yareitasunik, ezta poz onik ere ez. Eragozki bañeyakoñ oro oiltzeko, ta bere baitan garbai deunez bildurik egoteko lain dana, ¡auxe da zori ontsua! ¡Zori ontsua ere bai-da bañea zikindu ala toildu lioken edo-

zer, beregandik urtikan dagiana! Gizonkiekin; ekandu ekanduak azpiratzen du. Gizakiak uzten ba-dakizkizu, beraek ere utziko zaitute zurekoetan yarduten.

3. Beste en arazorik zure bizkañ ez egizu, ta nausien azi-orazietan ez zaite nasi. Zeorengana beti zure begiok batez ere beude, ta zure maite edonori baño berezikiago zeofi gaztigatu eza-yozu. Ez, añen, ilundu, gizamaldarik ezpa-dezu; baña Yainko-otseñak eta lekaide azkutsuak beañuken yardunbide on ta gurbilik ezpa-dezu, orduntxe bai atsekabe zaite. Biztaldi aunetan atsaldi ugaririk, iritsaldekorik batez ere, ez eukitzea obe ta eskieñago maiz zaigu. Ala ere, goi-atserik beñere, ala bakan bakanetan ezik, ezpa degu, gu gera obendun; biotz-gañbayaren bila ez gabiltzalako, ezta atetiko atseginke-riak ere ez ditugulako asagotzen.

4. Goi-atserik añtzeko gai ez zerala uleñtu ezazu; bai, baña loñ eñuz añtzekoa. Osoki iñor gañbai danean, luñeko guziak aztun ta gañatzak zazkio. Neke negañgañi naikoa gizon zindoak beti didoro. Naiz nork bera, naiz geidea

begiratuta, bai-daki-ta loñik gabe iñor ez dala emen bizi. Ta burua gei-geyago begiratzen ba-du, loñezago ere dabilke. Bidezko sapitea ta bañneko gañbaya eragitekoak dira gure oben eta girin gaiztoak; goikoei, bakanetan baidzik, so egiteke ere, ayetan naspilduta gatzalako.

5. Biztaldi luzea baño, eriotza gogoan sañiago ba-zenerabil, azkuzago noski obetuko bai-ziñake. Baita ere gaiztokiko ta gardostegiko oñazeak biotzez ausmañtu ba-zenitu, loñ ta miñak pozik yasango zenitukelakoan nago, ta latzik ezereñ belduñ ez ziñakelakoan. Baña biotzeraño ez zaizkigulako oñek sartzen, eta bigunkeri-zaletxoak oraindik geralako, otzik eta tokiñlorik geratzen gera.

6. Askotan ere gogo kaxkaña dala bide, soin gaxoa ain eñaz oñon dabil, Gogo-gañbaya zuri emateko Yaunari eskatu ezayozu, ta igañlearekin esayozu; negañ-ogiz iñutu nazazu, ere Yau-na, ta malko-edari neuñita indazu.

XXII ATALA

Gizakia zeñen dan gaxo.

1. Edonon zaudela, ta edonora zozala, Yainkoagana itzuli ezik, gaxoa zera. Nai ta gura dezunez zerbait ez gertuta ¿zerik asaldatzen zera? Nor dago, bere gogora guziak dituanik? Ez ni, ez zu, ezta lurgañeko iñorik ere. Atsekabe ta kezka gabekorik luñean iñor ere ez dago, bakaldun naiz doipurua izan-añen ¿Entsegurik onenean nor bizi da? Bai noski, Yainkoagatik zerbait yasan dezakena.

2. Tentel eta purtzil askok dasate; jurliak eztitan bizitza bai-darama! jura-xe altsu ta goitia! Begira ezazu, baña, ortziko zori ona, ta biztaldiko guzi ofek ezer ez dirala dakuskezu; nekagarri ta kolokak, ordea, bai-dirala, kezka ta belduñik gabe ez diralako eukitzen. Giza-zori ona aldiko ogasun yoritsuan ez datza; ituin ertaña naikoa zaigu-ta. Neke goña bai-da luñeko bizitza. Gogokoetan ari izan iñork nayago duanez, bizitza au are gañatzago deritza, giza-adebaren ermañuak obeki

somatzen eta argiago ikusten ditualako. Yan-edan beař, ernai ta lo beař, atsedean ta lan beař, ta gizatasuna beren mendean daukaten beař enparau oro, loř ta neke gořiak dira-ta, oben oroetatik azke ta yarei oldez legoken gizon azkutsuarentzat.

3. Bařnekoya dana soin-beařkizunak biztaldi aunetan asko toiltzen dute. Ořelakoetatik yarei al izateko, lgařleak samuřki otoi dagi, esanik; nere beařetatik atera nazazu, Yauna. ¡Gizagaxoak beren aandega ez dazautenak! Baita are gaxagoak bizitza matxař ta ustelgaři au maite dutenak! Inõortzuek, ba, lanean eta otzuřean beařekorik ozta euki ezařen, emen beti bizi al ba-lira, Yainko yaureřiaren ayolarik ez lukete.

4. Aragikeriak baizik gozagafirik ez izateko lain luřekoetan lokaztuta datzatenok jero ta biotz-zingeak! Azkenean gaxo oyek lařiki somatuko dute, maite izan dutena zeñen zan matxař ta ezerez. Ez zieten, ordea, Yainkoaren deunak eta Kisto'ren aizkide azkutiak aragikeriei yaramonik egin, ezta biztaldi aunetan garatzen diranei ere, betikoetara, baizik, ayen itxaropen eta

txede osoa leyatzen ziran, Gorontz, dirauketenetara ta ezin ikuzi diranetara ayen iski osoa yeikitzen zan, bekoe-tara ez zitzan ikuskarienganako lerak erautzi. Ez ezazu, a'ren, senide o'rek, gogoetara au'feratzeko entzinmena galdu; garai ta aukera oraindik bai-dituzu.

5. ¿Zer dala-ta, zure asmoa biaramoneratu nai dezu? Yeiki, ta ointxe asi zaite, ta esazu; oraingoa da egiteko garaya; oraingoa bai-da ontzeko garaya. Gaizki ta lo'rez zaudenean, orduntxe da irabazteko garaya. Su ta urez igaro bea', atsedenera eldu ba'ño lenago. Buruari gogof ezpa-zenegio, gaizpiderik ez dezu azpirafuko. Soin ustelgafi au daramagun artean, obenik gabe ezin egon gaitezke, ezta ere iguinta lo'rik gabe bizi. Noku orotik yareⁱ pozikan atsedengo giñake; ba'ña obena zala-ta, zindotasun yato'ra galdu degulako, benetako zori onak ere iges egin digu. Yasan-oldez, beraz, ta Yainko e'rukiaren iguri egon bea' gera, oke'ntaroa igaro ta ilbeafkizuna bizitzak irentsi-artera'ño.

6. Etenbera bai-da gizakia, beti

obenetara esegita! Zure obenak gauñ aitoñtzen, eta aitoñtutakoak bigañ beñiz egiten dituzu. Gurbilki ibiltzeko asmoa orain añtzen dezu, ta ordubete-etzkerok, asmorik izan ezpa-litz bezelaxe diarduzu. Beraz, burua bidez apaldu dezakegu ta beñere ez aintzat etsi, ain etenberak eta kolokak geralako. Neke goñiaren ondoan eskañaren bidez ozta irabazi dana, lasteñ zabañkeriz galdu diteke.

7. ¡Ain goizetik epeltzen ba-gera hazkenean zertara yotzekoak ote gera? Eñukañiak bai-gera, gentza-eskieñtaroan bezela, atsedenera yo nai degunok, gure yardunbidean benetako zindotañnarik iñon ere ageri ez-añen. Asibeñi onei dagokienez, ekandu zindotan oraindik azi beañ gintzake, gero-rako obekuntza ta gogo auñerapena itxedon ba-ditezke.

XXIII ATALA

Eriotzazkuna.

1. Lasteñ-lasteñtxe zureak emen egingo du: begirazu nola diarduzunk; gizakia gauñ dago, ta bigañ ez da age

ri. Begitatik-orduko, gogotik ere be-realaxe diyoa. ¡Giza-biotz sorayo ta gogoña! Aufkia bañarik gogaltzen du, gerokoa lagata. Gauñ ilgo ziñalakoan yardun beañ zenuke, edozer asmatu ta egitekotan. Bañne zindoa ba-zeneuka, ez ziñake eriotzaren belduñ. Eriotzatik igesten baño, obenik ez egiteko ayola obe litzake. Gauñ gerturik ezpa-zaude, bigañ nola ote zaudeke? Bigaña ezpañetan dago, ta bigañik ote dezukenez zer dakizu?

2. ¡Zertarako ote da biztaldi luzea, ain gutxi zindotzen ba-gera? Ez du biztaldi luzeak beti zindotzen, obena osterá, askotan geitzen du. ¡Egun ba-kañ bat ere gure biztaldian zindoro ai genu igaro! Onbidera-ezkeroko urteak zenbatzen dute askok; baña obe-kuntzaren zitua uritxoa da sañitan. Belduñgaña ba-da ilbeaña, luzaro bizitzea galtzoritsuago ausaz da. ¡Bere erioztaldia begitan beti duana, ta burua egun oro erioztarako antolatzen duana, ¡uraxe zori ontsua! Iñor iñoiz iltzen kusi ba-dezu, zu ere bide bertatik igai-iro beañ zerala gogaldu ezazu.

3. Goizean, aratsera ez zerala el-

duko, uste ezazu. Aratsaldera-ezkero, beñiz, biaramona ikusikó dezulakoan ez zaude. Gerturik, beraz, zaude beti, ta eriotzarako gertugerik iñoiz ere ez egoteko adiñonez bizi zaite. Bat batean ta oartzeke asko iltzen dira; usterik ez danean, Giza-Semea datoñke-ta. Azken une ura datoñkenean, artarañoiko bizi-tza osoa guziz bestelakotzat esten asiko zera, ain txaldan ta zabañ izanda garbai miñez.

4. Eriotzaldian nai izango lukenez, orain izaten ari dana juraxe zori ontsu ta zufa! Eztitan iltzeko entzinmen aundia darakarte gizakeriekiko narda osoak, onbidean auferatzeko gura garatsuak, araukoitasunak, garbai-nekeak, men egiteko azkartasunak, norberagana ukoak, eta Kisto'ren maitasunagatik edozein loñen yasapenak. Onik asko burutu ditzakezu, sasoalik zaude-nean; gaxotu-ezkero, ordea, zer dagikezunik ez dakit. Gutxi dira eriak ontzen dituanak, or-andik sañi dabiltenak ere bakan bakanetan donetzen dira.

5. Aizkide ta elaideengandik ez entzindu; ezta zure gaizkabidea geroratu;

uste dezun baño lenago gizakiak aztu-ko zaituzte-ta. Obe izango dezu engoitik mugonez orni egin ta onik zerbait aurretik igofri, beste inorgandik urga-ziaren zai egotea baño. Ezpa-zera orain zure buruaren ayola ¿nor gero zure ayola izango al da? Orain dezu aldi gurena. Oraingoak dira gaizkabi-derako egunak; oraingoa, aro abetal-gaia. Baña ¡au miña! bizitza betikora-ko ornia orain irabazi dezakezula, ga-rai au ez dezu adiñonago erabiltzen! Burua zindotzeko egun, naiz ordu bat bederen, euki nairik noizpait bai-zau-keke, ta yardetsiko ote dezunik ez da-kit.

6. ¡Eup! maite ori ¡zelako galtzori ta beldurretik lekoratu zínake, beti bel-duñti ta eriotzaren tukutsu ba-zenbil. Eriotzaldian beldur izan beaŕean, poz-tu zaitekentzat, bizkera adiñona orain egiteko ayola zaite. Ikasi ezazu gizake-rientzat orain iltzen, Kisto'rekin zori artan bizitzen asi zaitekentzat. Ikasi ezazu dana nardatzen, zori artan Kisto-gana yarei yoan al zaiteken. Garbaineketan soña orain ebaindu ezazu, en-tzinmen eskieŕez ordun al egoteko.

7. ¿Zer dala-ta, uste dezu luzaro biziko zerala, egun bat ere eskieftzat ez dezun tentel ořek? ¡Amaika atzipetu dira, luzaro biziko ziralakoan, ilotzik geraturik! ¿Zenbatetan entzun al dezu ezpataz yota urlia il zala, berendia ito zala, sandiari, goitik amildurik, burua ausi zayola, alakoa yaten zurundu, angoa yostaketan amaitu zala! Inorbait sutan, beste bat izuritean, orkoa lapufen eskuz il da; ta guenez oroen azaga eriotza da, ta itzala bezelaxe, giza-biztaldia iges egin oi du.

8. Ilda gero, ¿zutaz nor oroituko al da? Nork zure aldez otoi egingo al du? Al dezakezun dana egizu, ene maitte ori, ta engoitik egizu, noiz ilgo ote zeranik ez dakizu-ta; il-ondoan ere zer elduko zaizunik ezta. Beta dezun artean, betiko ogasunak bildu itzazu. Zure gaizkabidea baizik, gogoan ezer ere ez erabiltzu, ta Yainkoarenei bakarrik yaramon egiezu. Aizkideak kopurutu itzazu, deunak goretsirik eta ayen eduz yardunik, zure bizitza ori amaiorduko betiko biztokian beraek atotsi zaitzaketan.

9. Luřeko garatzak inolaz ere uki-

tzen duten bidezti edo afortzaren eduz bizi zaite. Biotza yarei ta Yainkoagantontz yasoa eukizu, iri iraunkoñik emen ez dezu-ta. Argana otoi ta asperenak egun oro igofi itzazu, il-ondoan zure gogoa pozik Yaunagana igarotzeko gai dedintzat. Alayain.

XXIV ATALA

Obendien auzi ta oñazeak.

1. Eginbide orotan azaga begirazu, ta ezertxo ere estaltzen ez zayon, emaiz ibitzen ez dan, zuriketarik afitzen ez duan eta bidezkoa ebatziko duan ebazle zofotzari nola aurkeztuko zatzayonik gogaldu ezazu. ¡Ene obendi ero efukaña! Zure oker guziak dakizkian Yainkoari ¿zer erantzungo ote diozu, noizpait gizon asare-aurpegiaren belduf zeran oker? ¿Epai egunerako zergatik ez al zera gertutzen, inork inorikan ez babesi ez zuritu ezingo duan egunerako; nork bere zama aski izango du-ta? Zure nekea oraintxe da emakofa; zure negaña oneskaña, zure asperenak entzungañaiak eta zure garbaya erin ta garbikofa.

2. Gañdospide latz ta osakoña baidu irañak aítzean irain-alkez baño iraintzalearen gaitzez geyago atsekabetzen danak; arerioaren aldez gogotikan otoi dagianak; biotz-biotzez obenak azkesten dituanak; besteei azkespena eskatzeko uzkuñ ez danak; asañeti baño eñukiberago danak; bere burua sañtan ertxatzen duanak, eta gogoaren mendean aragia osorik azpiratzen ekiten duanak. Obe da obenak orañ ordaintzea, ta giriñak iñaustea, gerorako gañdosbeañak uztea baño. Atzipetuta ziñez gabiltza, gure aragikoitasun okefagatik.

3. ¿Zer besterik arako suak irentsi-ko al du, zure obenak baizik? Burua orain nasayago ta aragi-irñtsak erarago uzten dituzunez, areago ta gogofkiago ere ordainbeañ gero izango dezu, ta eñeskin geyago ornitzen dezu. Iñork lañienik oben egin duan zerbaiteñ, ayenetan ere lañienik zigofkatuko da. An nagiak ziri goriz aizkatuko dira; ta saroak, gose-egañiak amikaturik daudeke. Antxe zantañ eta atseginkeri-zaleak ui irakitan eta kiratsañi-tañtean lokaztuko dira; ta iñartsitiak, zakuf

amufatuak bezela, oñaze-indaíez gafasika daudeke.

4. Girin bat ere ez dagoke, legokion oñaze berezirik gabe. An alke goriz beteta egongo dira afoak; eta zikoitzak nogafoinkeriz ertsita. Aztunago izango da ango ordu bat, emengo eun urteko garbai-nekerik latzena baño. Atsedetik an ez dago, pozunerik ezta ere galduentzat; emen, oster, noizik bein neke-etenaldia degu, ta aizkideengandiko atsaldia. Kezkaz ta naigabez orain zaude zure obenakatik. epai-egunean deunekin eskierik egon zaitezentzat, Egun artan, ba, zindoak azafi yeikiko dira lafi ta ertsi zituztenen yafkiz. Egun artan epaikari zulfian yeikiko-da, giza-epaipean apalik orain datzana. Egun artan entzinmen aundia izango du apal-gaxoak; ta afoa ikar-ikaratuko da.

5. Orduntxe ageriko da biztaldi aunetan sentsua izan zala, Kisto'rengatik tentel ta matxafa izaten ikasi zuanak. Emeki yasandako lofa, orduntxe atsegin izango degu; ta ifongo txarke-riak aboa itxiko dn. Ereguz azitako soña baño pozikago orduntxe soin

ebaindua dagoke. Orduntxe zarpaġak argitu, ta yanzki erdotsak maġkestuko dira. Yauregi uġetsua baġno geyago goralduko da orduntxe txabola txatxaġa. Orduntxe urgazi aundiagorako izango da yasapen gotoġa, giza-almen dana baġno. Gizaġteko malmuzkeri oro baġno geyago goretsiko da orduntxe men xaloa.

6. Atsegiġaġo izango da orduan baġne garbi ta zindoa, yakintza ugaria baġno. Luġeko altxoġ oro baġno azta aundiago orduan izango du ogasun- ezespenak. Oturuntza gozoagatik baġno pozikago zeudeke orduan otoi azku- tsuagatik. Ixilġik egon izana atsegiġaġ- goa izango dezu orduan, erausi luzea baġno. Gozoago orduan izango zazki- zun yardunbide zoġotza ta gaġbai-neke latza, luġeko atsegin oro baġno. Orain apuġtxo bat nekatzen ikasi ezazu, neke latzagoetatik orduan yarei izan zaitekentzat. Emen lentxeago aztandu ezazu zer gero yasan ote lezakezunik. Ain gutxi orain yasan ba-dezakezu, ġbetiko oġazeak zela burutu al izango ditzakezu? Oraingo neke ġimiġoren batek oġen sakeġe uzten ba-zaitu ġzer

egingo al du orduan betiko oñazeak? Ben benaz, pozaro bikoitzik ezin bildu dezakezu; emengo biztaldian erara egon, ta gero Kisto'rekin nausigoan bizi, ezin.

7. Gaurdaño deduz ta atsegiñez bizi izan ba-zina zelako etekin andik aterako zenuke, orain bertan eriotza elduko ba-litzaizu? Beraz, uskeri utsa guziak dira, Yainkoa maite ta Beraganako moñoiketan bakarik ari izan ezik. Yainkoa biotz-biotzez maite duana, ez da eriotzaren, ez auziaren, ez gaiztoto-kiaren belduf; Goikoaganako bide eskieña maitasun bilkañak zabaltzen diolako. Obena, beñiz, oraindik atsegin duana, eriotza ta epayaren belduf bada, ez da aritzekorik. Baña gaitzetik ezpa-zaitu maitasunak ufutiratzen, betiko oñazearen beldufa beintzat, arakoan geldi-erazteko, ona zaizu. Beñiz, Yainkoaren beldufa bazteitzen duana, onbidean luzaro ezin dagoke, ta tsefen-xederan lastef eroriko da.

XXV ATALA

Gure bizkera osoaren obekuntza.

1. Tiñel ta ernai zaude Yainkoagana-
nako moñoitzan; ta maizetan gogaldu
zertara etoñi al zeran, gizañtea zergatik
utzi ote dezunik. ¿Yainkoarentzat bizi
izateko, ta gogo arazoetan yarduteko
ez ote? Beraz, auñeratzeko irakin zaite,
neke-saria lasteñtxe añtuko dezulakoan.
ta zure mugapean belduñ ala loñik be-
ñere beñiz ez dagokelakoan. Pixkat
orain nekatuko zera, ta atsedean aun-
dia, baita betiko atsegiña ere auñkitu-
ko dituzu. Garai-saria yardetsiko de-
zula uste beañ dezu; baña eskieñtzat
etsi ez; txaldan ala añorik ez zaitezen
geldi.

2. Kezkaz norbait belduñ eta itxa-
ropen-añtean koloka maiz zebilañrik,
eta lañiaren lañiz yauretxeko opamai
baten auñean auzpez zetzalarik, oñela
asmaketan ziarduan; «jiraungo nuke-
nik ba-zeneki!» Ta berealaxe bere bai-
tan Yainko-erantzupen au entzun zuan;
«ori ba-zeneki, ¿zer egin nai ote zenu-
ke? Orduan egin nai zenukenaxe, en-



goitik egizu, ta eskierik zaudeke ». Ta berbertan zuzpeř ta poztuta, Yainko-oldeari bere burua egotzi zion, ta bere urdurikeri lařia naretu zan. Ařezkero ere ez zuan bere etořkiznna ikeřtu nai; igeri nayago zualarik Yainkoaren olde on, eraratsu ta betea zein litzakenetz, edozelako eginbeařak asi ta bukatzekotan.

đ. Yainkoagandik entzindu, ta onbidean ari zaite-dasa Igarleak-ta luřean bizi zaite, ta bertoko zitu ugariz iřnutuko zera: Lagunik asko auřeratzetik eta obekunde gařtsutik uzkuřtzen dituana auxe bakařik da, zařarekiko izua, ta buřukaren nekea, Osteraz ere, nekagařiena ta naigabetsuena zayena gizonkiago menderatzen ekiten dutenak, onbidean beste enparau oro bařno auřeragotzen dira. Alabařan, bere burua iřnork geyago ezten eta gogoaren alde-rako itotzen duan neuři artantxe, auřerago ere diyoa, ta eskař ugariago irabazten du.

4. Ez dute, bařa, orok aren baten ezi ta ilbeařik yori. Bařa auřeratzale azkařa, girin eřuz euki-ařen, auřeratzeko adiřonagoa izan diteke, ayuři one-

koa, bai, baña onbiderako epelagoa ere bai-dan beste iñor baño. Biok batez ere bizkera ontzekoak dira; iñor bere yas okeñak daragian artatik kataskan alde egitea, ta danik beañena zayon on artara su ta gañ ekitea. Berebat ekin ezazu bereziki asagotu ta ezten, beste iñorgan gogaikañiak maiz zazkizunak.

5. Edozertatik etekin atera ezazu; alegia, eredu onak ikusi ala entzun badiuzu, antza aítzeko azkañtu zaite. Ta akañkizunik ba-dakutzu, idekorik ez egiteko ayolaz zabilta; edota iñoiz egin ba-dezu, lenbait-len ontzera leya zaite. Besteak begiratzen dituzun bezela, besteok ere begiratzen zaituzte. ¡Zein dan atsegin eta gozo senideak gañtsu, azkuti, zindo ta araupekoak ibiltzen ikustea! ¡Zein negañgañi ta samin dan okeñ ibiltzen ikustea, deitu ziran artarakoetan ez yarduten! ¡Zein kaltegin dan, norberaren dei-asmotan zabañtzea, ta norberari egotzi ez zazkionetara leyatzea!

6 Erabakitako asmotaz oroi zaite, ta gurutzeko Yaunaren irudia begitan eramazu. Lotsa bai-zaiteke Yosú Kisto-ren bizkera gogaldurik, Yainko bidetan

oren aspal dion ibili-aren, oindiño Aren edukoa izateko ez dezulakoan bizkoñago ekin. Yaunaren bizkera ta nekald; deun deuna isituki ta azkuz ausmañzen ari dan lekaideak, beañak eta adiñonak zaskion guziak antxe eruz idoroko dituzte, ta Yosulekorean ezer oberikan bilabeañik ez du. ¡Gurutzeko Yosugure biotzetara ai-letorkigu! ¡Zein agudo ta egokiz ikastunak giñaken!

7 Lekaide gañtsuak agintzen zayon dana ondo yasan eta atosten du. Lekaide txaldan eta epela nekez-neke ta iñondako atsekabez dabil, bañnekiko atserik ez dualako. ta atetikoen bila ibiltzen gebendu zayolako. Araulekorean bizi dan lekaidea galbide lañian dago. Nasaikeri ta zabañkeri-bila dabilana, beti kezka dagoke, ze-edo-zer gogai-kañi izango zayolako.

8. ¿Nola burutzen al dira, lekaretxeko araupean ain ertsirik dauden ainbeste lekaide? Gutxi-gutxitan irteten dira, bazteñtuta daude, landeñki yaten dute, soñeko lodiak daramazkite, lan asko dagite, luzaro ernai daude, goizetik yeikitzen dira, otoyaldia luzatzen dute, ta araupean zeatz diraute. Kartus-

tañak, Zistertañak eta beste gogo-bazkunen giza-emeak begira itzazu, gau oro Yaunari oneskunak abestera yeikitzen. Lotsa, beraz, izan bearñ zĩñake, eginbide deun oretarako nagia izan ezkerro, amaika lekaide Yauna goraltzen asten danean.

9. ¡Beste eginbearñik ez ai-geneuka gure Yainko Yauna biotz-biotzez ta aoz goraltzen ari baño! ¡Beñere ez aizenu ez yan, ez edan, ez lo bearñikan; eta beti Yauna goralduta gogo-arazotan yardun alko aizeneza! Ordun, oraingo soin-bearñikizunak sorozten dituzuenean baño, zori obe-obetsua izango bai-zĩñake. ¡Oñelako bearñikizunik ez ai-lego! ¡ai-legoz bakañik, gutxitan txastatzen ditugun, zoritxañez, gogo-oturunizak!

10. Inongo izakitik ere pozik aĩtunai ez izateraño inor eldu ba-da, bertantxe lenbizikotz Yainkoa gozagañizat izaten asten da; baita ara-orduko ere, edozelako gora-berak litzazkiotela, pozik dagoke. Ordun aundiagatik ez da poztuko, txikiagatik ezta laĩtuko ere; baña Yainkoagan osoki ta uste onez yaĩtzen da, Yainkoa berarentzat

guzietan guzia dalako; Yainkoarentzat ezer ere ez dalarik galtzen, ezer ere ez iltzen; oro, ordea, bizitzen eta Aren keñuz moñoiketean ari izaten.

11. Amaya beti gomutaratu ezazu; baita ere, galdutako astia ez dala beñe-toñtzen oroi zaite. Azku ta ayolarik gabe zindotasunik ezin yardetsi dezakezu. Epeltzen asten ba-zera, gaizki kausitzen asiko zera. Baña gañtsuki ibiltzen leyatuko ba-ziña, gentza edeña zeneukake, ta nekea arinduko litzaizuke Yainko-eskañez ta zindotzeko guraz. Maratz ta gañtsua dana edozertarako gerturik dago. Soin-lanetan izerdiz yardutea baño neke goñiago da girin eta ekandu txañei gogoñ egitea. Uts txikañak asagotzen ez dana, lañiagotara mara-mara leñatzen da. Añatsean pozik beti izango zera, egunbetea onaurkiz erabili ba-neza. Zeoñen zai zaude, zure burua aizkatu ta zirikatu ezazu, ta besteak gora bera, ez zaite zeoñenganako zabañ. Zeori zeoñek gogoñkiago ertxatuko dezun aña, geyago ere auñeratuko zera. Alayain.

BIGAÑEN IDAZTIA

Bañebidera eratoritzeko gaztiguak.

I ATALA

Bañeko erausia.

1. Zuen bañean dago Yainkoaren yaureña, dio Yaunak. Biotz-biotzez Yaunagana biguri zaite, ta luñeko matxakeriok utzi itzazu; ta gentza didoroke zure gogo oñek. Lekorekoak arbuyatzen eta bañekoetan ekiten ikasi ezazu; ta Yainkoaren yaureña zugana etortzen dakuskezu. Goteungandikako gentza ta poza da yaureña; ta ori ez zaye gaiztoei ematen. Bere pozkintza zuri agertzen Kisto datorkizuke, bizto-ki egokia bañean atontzen ba-diozu. Bañekoak dira Aren aintza ta edertasuna, ta antxe atsegin du. Bañeko-yentzat oi dira Aren ikeñaldi saritsuak, erausi gozoak, pozkin atsegintsuak, gentza edera ta nabastara zora-zoragaña.

2. ¡Eup, gogo, zintzo ori! Ezkon oñentzat zure biotza atondu ezazu, zugana etoñi ta zugan bizi nai dezantzat. Aunelaxe dasa-ta; *iñork maite ba-nau, nere esana dagike, ta argana goazke ta argan geratuko gera*. Kisto'ri, beraz, tokia emayozu, beste enparau guziei ataka itxirik. Kisto euki-ezkero, aberatsa zera ta aski dezu. Beraxe edozertan sorozle ta ornitzale zindoa izango zaizu, gizagandik entzindu beañez ez ibilki. Gizakiak laster aldatzen diralako; Kisto, ostera, beti ere dirau, ta azkeneraño gotoñ aldean zaigu.

3. Ez zayo gizaki auskoñ eta ilkoñari uste aundirik ezafi beañ, adiñona ta kuñuna izan-añen; biotza ez da ilundu beañ, noizpait yezafi ta yañkitzen ba-zaizu ere. Zure alde z gauf daudenak, bigañ aitzika daudeke, ta irulez; aizeak bezelañ maiz aldatzen dira-ta. Yainkoagan zure entzinmen osoa ipiñi ezazu; Beraren belduñ zaite, ta Beraxe maite ezazu. Berak zure alde zardokiko du, ta obekienik litzaizukenez egingo du. Betiko iria emen ez dezu; edonon ere zeudekela, añotz ta atzeñitafa zefa; ta atsedetik iñoiz ere ez

dezu izango, Kisto'ri mamiki itsatsirik egon ezik.

4. ¿Or'ara begiraka zertako ari al zera, zure atsedentokia ori ez dalarik? Goikoetan zure biztokia izan bea' da, ta lu'eko guziak iraisean bezela begiratu bea' dira. Guziak igarotzen dira, ta zeori ere ayekin. Ayei ez itsatsi, a'en; ez zaitezen atxiki ta galdu. Yaungoikoagan zure oldozkuna bego, ta Kisto'gana tai gabe zure otoyá biyóa. Goi ta ortziarenak asmaketan erabiltzen ezpa-dakizkizu, Kisto'ren nekal-dian kokatu, ta Aren zauri deunetan oldez bizi zaite. Yosu'ren zauri ta or-main gureneta gorku-eske ba-zoaz, lo'etan zuzpe'kun aundia somatuko dezu, gizagandiko nardakeriei ez diezu yaramon aundirik egingo, ta maxiolarien esamesak e'az yasango dituzu.

5. Ludian Kisto gizakumeak arbutatu zuten, eta lo'aldirik go'ienean bere ezagun ta aizkideak irain-ar'tean utzi zuten. Kisto'k beretzat neke ta nardak nai izan zituan; ta zeori edozer-tzaz sa'amuskatzen ausa'tzen al zera? Kisto'k etsai ta maxiolariak euki zituan; ¿zeo'ek, ordea, oro aizkide ta ongi-

leak euki nai al dituzu? Inongo atsekaberik ere ezpa-zaizu yazotzen ¿non-dik yasan-saria irabaziko al dezu? ¿Kisto'ren aizkidea nola izan alko zaitteke, naigaberik egari ezpa-dezu nai? Kisto'rekin eta Kisto'gatik yasan egizu, Kisto'ren bakalkide izan nai ba-dezu.

6. Yosu, ren bañnera beingoan osoro sañtu ba-ziña, ta bere maitasafe irazekia pixkat txastatu ba-zenu, zure kaltez naiz onaurkiz ez ziñake ayola; gerenez, ostera, pozik bai-zeudeke; Yosu'ren maitasunak norberaren nardara garagialako. Yosu'ren ta egiaren maitale, ta bañnekoi zindo, ta yas okeñ gabeko dana, Yainkoagana zoztoñik gabe itzuli, ta beregañera yeiki ta pozik atsedeen diteke.

7. Berenez diran arauz, ez giza-omen ala iritziaren arauz guziak somatzen dituana, auxe bai-da sentsua, ta gizakiak baño Yainkoak berezikiago irakasia. Bañne-bidetan ibiltzen eta atletikoak gutxi-esten dakianak, ez du tokirik ez garairik galtzen inarkun zintzoetan ari izateko. Bañnekoya dana bere baitara laster biltzen da; atletiko-etara beñere ez dalako osorik bañeya-

tzen. Ez zayo zoztoitzat atetiko lana, ez noizpaiteko eginbeaña; yazokunak gertatzen diranez, gomontzen zayelako. Bañnetik ondo gertu ta atondurik dagona, giza-egintza ařigari ta okeřen ayola ez dabil. Inork beregana deusak dakarzkian giño artantxe, bera ere eragotzi ta bařeyatzen da.

8. Zuzen ba-zenbil, eta ondo gardotsik ba-zeude, dana litzaizuke onerako ta auřerapidea. Zeořentzako oso ilik eta luřeko oroetatik aldeginda oraindik ez zaudelakoxe, askotaz atsekabetu ta maiz asaldatu oi zera. Izakietarako lera zantařak bezainbat ezerk ere ez du giza-biotza kutsutu ta arazotzen. Atetiko atsaldiak oiltzen ba-dituzu, goikoak begiratu ta maizetan bařne-pozaldiak euki alko ditzakezu.

II ATALA

Alki izate apala

1. Zure alde ala aitzin nor legokenik ez ezazu aintzat arřu; ekin eta alegindu, ordea, Yainkoa zurekin ari zeran orotan egoteko. Bařne zindoa

eukizu, ta Yainkoak ondo babesiko zaitu. Yainkoak babesi nai lukena, iñoren gaiztakeriak kalterik ezin legioke-ta. Ixilik eta yasan-oldez egoten ba-dakizu, Yaunaren urgazia noski dakuskezu. Berak dazauzkialako zu yareiteko garai ta bidea; ta argatik Berari alki beař zatzayo. Yainkoari dagozkio laguntzea ta edozein arazotik ateratzea. Apaldasun aundiago yagoteko adiñona da maizetan, gure utsak besteak yakin eta yaukitzea.

2. Bere utsengatik iñor apaltzen danean, besteak eřaz ibitzen ditu, ta asaře zazkionak eřaz ere isten ditu, Apalbera Yainkoak maldatu ta yareiten du; apalbera maite ta poztutzen; apalberagana etsegiten da; apalberari eskař yori damayo; apalbera, apalaldirazkero, ospetara daraiki. Apalberari bere zadořak zabaltzen dizkio, ta apalbera xamuřki deitu ta atosten du. Apalbera, alkea ařtuta, gentza erosoan gelditzen da; Yainkoagan ezařita dagolako, ez gizagan. Pitsik ere auferatu zerala ez ezazu uste, danik txikiena zeralakoan ezpa-zaude.

III ATALA

Gizon zindo ta mana

1. Manatan lenbizi zukizu: ta engoitik bestiak manatu ditzakezu. Ikastuna baño mana da oberako. Ona ere gaitzera makuítzen du girintsuak, eta gaitza eñaz ziñesten du. Zindo-manak onera dana biguítzen du. Manatan zindoki dagonak iñoren pekorik ez du. Baña minkun ta artega askotariko pekotan naspilatzen da; ez da bera atsedeten ezta besteak ere atsedeten uzten. Esan beañ ez lukena dio askotan, ta geyenik legokiona ez du egiten. Zer besteak egin beañ duten begira dago, ta zer berak egin beañ duanik ez da ayola. Zutzaz lenbizian ataza eukizu, ta geidetzaz ere engoitik daukakezu.

2. Zure egiñak garbitu ta zuritzen ondo dakizkizu, ta beste iñoren zuritzerik ez dezu arñu nai. Zuzenago litzake zure burua zeofek salatzea ta zure senidea zuritzea. Besteak yasan zautela nai ba-dezu, besteak ere zeofek yasan itzazu. Ekutzu benetakó maitasun ta apaldasunetik zein uruti zau-

den; auek, ba, norberaren aitzi-ezik, asefe ta sumintzen ez dakite. Ezer aundirik ez da on eta otzanekin yardutea; orok berenez ori atsegin dutelako, ta edonork gentza oldez dauka, ta bere gogaideak maiteago ditu. Baña zakañ eta gaiztoekin, naiz zirildakin ala gure aitzikoekin gentzaz bizi al izatea, orixe bai-da eskañ aundia ta gizon kementsuari dagokion eginbide goragogaña.

3. Batzuek beren baitan eta besteekin ere gentza daukate. Bestetzuek, beñiz, gentzarik beren baitan ez daukate, ta besteak ez dute gentzaz uzten; besteei nekagañiak zazkie, baña beren buruei are nekagañiangoak. Bai-dira ere, manatan berak dirautenak, eta besteak manatzen ekiten dituztenak. Baña biztaldi gaxo aunen gentza osoa, nairgaberik ez izatean baño, apalki yasatean benazago yañi beañ da. Obeki yasaten dakianak, gentza aundiagoa ere izango du. Uraxe da bere buruaren garaitzañea, ludiaren yabea, Kisto'ren aizkidia ta ortziaren yabegaya.

IV ATALA

Sen garbi ta asmo xaloa.

1. Ega bitaz luřekoetatik gizakia igotzen da: xalotasunaz eta garbitasunaz. Xalotasuna asmoari dagokio, garbitasuna lerari. Xalotasunak Yainkoagana daragi; garbitasunak Yainkoa eutsi ta txastatzen du. Eginbide on batek ere ez zaitu eragotziko, yas okeřetatik bařnez yarei ba-zeunde. Yainkoaren atsegiņa ta geidearen onaurkia baizik ezpa-dezu nai ta bilatzen, bařne-yareitasunaz poztuko bairera. Zure biotza zuzena ba-litz, izaki oro izango litzaizuke bizi-eredua ta irakaste deunaren idaztia. Yainkoaren ondasuna ez darabusten izakirik ez dago, piřin eta zirtziņa izan-ařen.

2. Bařnez on eta garbi izan ba-ziņa, eragozkirik gabe guzia zenekuske ta ondo uleřtuko zenuke. Biotz garbiak donokia ta gaiztokia ikeřtzen ditu. Bařnetik iņor danez, ořelaxe ere atetik datsa. Luřean atserik ba-dago, biotz-garbiak bai-dauka. Ta iņon kezka ta lořik ba-dago, bařne-okeřak be-

reziki somatzen ditu. Burniak sutan erdoya galtzen duan eta goritzen dan bezelaxe, Yainkoagana oso biguñitako gizakiak ere epeldasuna erauzten du, ta beste gizakera beñi batera aldatzen da.

— 3. Inor epeltzen asten danekoxe, neke txikiren ere beldur da, ta atetikoi atsaldia oldez artzen du. Baña osok burua ezten, eta Yainkoaren bidean gizonki ibiltzen asi-ezkero, nekagarñiak len zitzazkionak ez ditu aintzat artzen.

V ATALA

Norberaren sokuna.

1. Gugandik ezin entzindu gaitezke lañegi; askotan, ba, eskaña ta sena peitu zazkigu. Argi gutxi gugan dago; ta gutxi ori ere zabañkeriz laster galitzen degu. Askotan ere ez degu oartzen zein itxu bañez geranik. Askotan gaizki diardugu, ta gaizkiago burua txuritzen degu. Giriñak bañetik garga, ta ataza dala uste degu. Besteen uts txikiak yazartzen ditugu, ta gure uts aundiagoak lagatzen. Besteengan-

dik zer yasaten degun lasterixe oartu ta aundiesten degu, baña zeinbeste guggandik besteak yasatzen dutenik ez degu oartzen. Ondo ta artez bereak aztatuko litukenak, besterenak gañazki esteko biderik ez luke izango.

2. Bañekoyak buruaren ayola, edozelako ayola baño, obesten du, ta bere burua ayolaz sorozten duana, beste inorenzaz eñaz ixilik dago. Beste inoren arazotzaz ixilik ezpa zeunde, ta zure burua bereziki ezpa-zenu soroztiko, ez zera beñere bañekoi ta azkurtia izango. Zure ta Yainkoaren zai osoro ba-zaude, lekorean dakuskezunak gutxi asaldatuko zaitu. ¿Non ote zaude, zure baitan ez zaudenean? Ta zeoren ayolarik ez zerala, guzietara yodezunean, ¿zer ekoizpenik atera ote dezu? Gentza ta benetako batza euki beañ ba-dituzu, atzera guziak eginda, zure burua bakañik begitan euki beañ dezu.

3. Asko auferatuko zera, aldiko arazo guzitik opor iraungo ba-dezu. Kokituko zera, aldiko zerbait ere ezertzat etsiko ba-dezu. Ezer ere ez begokizu aundirik, ezer ez gureniz, ezer atsegiñik

ezta naigafiririk ere, Yainko utsik ala Yainkoarena izan-ezik. Izakitik letofikizuken edozelako atsea uts-utsaltzat etsi ezazu. Gogo yainkozaleak Yainkoaren azpiko dana ezesten du. Betiko ta neufigabekoa dan, eta oro betetzen ditan Yainkoa bakarik da gogoaren atsegiña ta biotzaren benetako poza.

VI ATALA

Bafne zindoaren poza

1. Zindoaren aintza, bere bafne zindoaren ziñalbena da. Bafne zindoa eukazu, ta beti pozik zaudeke. Bafne zindoak asko ta asko egari ditzake, ta naigabe-taritean ere poz-pozik dago. Bafne gaiztoa beti belduñti ta artega da. Samurki atsedengo zera, biotzak ezpa-dizu akarik egiten. Ondo dagikezunean-ezik, ez, añen, poztu. Beñere ez dute gaiztoak benetako pozik, ez bafneko gentzarik; gaiztoentzako gentzarik ez dagolako-dasa Yaunak. Esan ba-lezate ere: «gentzaz gaude; gaitzik ez datoñkiguke; ¿nork kalterik egiten azañiko zaigu?» ez zayezu ziñetsi; bat

batean Yainkoaren asefea yauziko dako, ta ayen egiñak ezereztuko dira, ta ayen asmakeriak suntsituko.

2. Loñez ilařaintzea ez du maitaleak zaia; ořela ilařaintzea, Yaunaren gurutzez ilařaintzea da-ta. Gizakumeak ařtu-emandako ospea iraizekoa da. Luřeko ospeak biotz-lařitasuna beti du laguntzat. Zindoen aintza beren bařnean datza, ez giza-aotan. Zindoen poza Yainkoagandiko ta Yainkoaganekoa da; ta aren atsegiña egitikakoa. Benetako ta betiko aintza nai duana, aldikoaren ayola ez da. Ta aldiko ospearen eske dabilanak, ala bera biotzez ezesten ez duanak, ortzikoa gutxi maite duala adirazten du. Goralbenak ala irañak dirala-ta ayolarik ez danak biotza ezti-eztitan daukake.

3. Iñoren bařnea garbia ba-da, pozik eta narerik dagoke. Ez zera deunago, goratzen ba-zaituzte; ezta zirtziago, iraintzen ba-zaituzte. Zeranaxe zera; ta Yainkoaren begitan zeran baño aundiagotzat ezin etsi zaiteke. Zure baitan zein ote zeran begiratzen badezu, zutzaz gizakiak erausi dezaketenari ez diozu yaramonik egingo. Auř-

pegia dakus gizakiak; Yainkoak, beriz, biotza. Gizakiak egikunari so dagio; baña Yainkoak asmoa azta-tzen du. Ondo beti yardutea ta burua gutxitzat aítzea, gogo apalaren adirazkia da. Izaki batetik ere pozkiñik izateko nairik-eza garbitasun aundiaren ta biotzezo entzinmenaren agerbidea da.

4. Lekoreko ziñalben-eske iñor ezpa-dabil, Yainkoari burua ziero eman duala nabari da. *Ez dalako onetsia—* dio Paul deunak — *burua gorantzi duana; Yainkoak gorazten duana, ori ordeba bai.* Yainkoarekin bañean ibiltzea, ta lekorean iñongo giriñ arazorik ez izatea, orixe da bañekoyaren ego-kera.

VII ATALA

Danik maiteena Yosu beañ dala

1. Yosu maite izatea, ta burua Yosugatik nardatzea zer dan aditzen duana jorixe zori ontsua! Kufuna kufunagatik utzi beañ da; Yosuk nai du-ta danik maiteena Bera bakarik izan. Iza-kiaren maitasuna zimarñkun eta aldakofa da; Yosuren maitasuna, oster,

zindo ta iraunkoſa. Izakiari ditxekana, leſatiarekin eroriko da; Yosu laztantzen duana beti ere sendorik dagoke. Beste guziak aldeginda ere, utziko ez zaituana ta azkenean galtzen yasango ez zaituana maite ta aizkidetzat eutsi ezazu. Nai ta nairik ez, oroetatik berezi beingoan beaſ zera.

2. Bizirik eta iltzerakoan Yosu'rekin zaude, ta bere zindotasunari zeran ori egotzi ezayozu, Berak bakaſik urgazi zaitzake-ta, orok uts egiten dizutenean. Aſotzik ez du zure kuſunak erkidetzat onaſtu nai; oſelako izaera du-ta. Berak bakaſik zure biotza euki nai du, ta antxe exeri, bakaldunak bere aulkian bezela. Irazaki guzitik zeorixe ondo garbailtzen ba-zeneki, pozik Yosu zurekin bizi beaſ litzake. Yosu'ren lekorean gizagan ezaſiko zenuken gei-geyena galduta ikusiko dezu. Seska baotan ez usterik ez bururik ez itzazu ipiñi; aragi oro elbitza dalako, ta aren aintza elbitz-lilia bezela, yalgiko da.

3. Giza-azala bakaſik begiratzen ba-dezu, laſteſ atzipetuko zera. Beste iñorgan atse ta irabaziaren bila ba-zabiltza, Yosu bai- didorokezu. Baña

zure buruaren bila ba-zabiltza, aufki-
tuko ere dezu; zure kaltez, ordea. Inor
ere. Yosu'ren bila ezpa-dabil, bere
buruarentzat kaltegiñagoa da, gizad,
osoa ta bere etsai guziak baño.

VIII ATALA

Yosu'ren aizkidetasun nabasia

1. Yosu aurki dagonean, ona da
guzia, ta ezertxo ere ez dirudi zail; baño
Yosu aurki ez dagonean, dana gogoña
da. Yosu ez zaigunean bañez mintzo
mengela da atsea; baño Yosu'k itz ba-
kañ bat ere ba-dagi, atse aundia somat-
zen da. ¿Ez al da Miren Matale, negañez
zegoan tokitik bereala yeiki, Marte'k
esan zionean, «Irakaslea emen dago
ta deitzen zaitu?» Negarétik gogo-at-
serako Yosu'ren deikunea juraxe pozu-
nea! Yosu gabe ¿zein agoñ eta gogoñ
zerán! ¿Zein tentel eta zirtzil, Yosu bai-
zik zerbait gura ba-dezu! ¿Ez al da kalte
ori, ludi osoa galduko ba-zenu baño
kaltetsuagorik?

2. Yosu gabe ¿ludiak zer erakafi al
dizazuke? Yosu gabe egotea elkaitz
goña da; Yosu'rekin egotea, eztaigo-

zoak. Zurekin Yosu ba-lego, etsai bateg ere ez lizuke kalterik egingo. Yosu epatu duanak, altxor oná epatu du, baita onik onena ere. Beñiz Yosu galtzen duanak asko baño anitzago galtzen du, ta ludi osoa baño geyago. Landeñ-landeña da Yosu gabe bizi izaten dana; ta aberats okitua Yosu'rekin aizkideki dabilana.

3. Antze aundia da Yosu'rekin yartuten yakitea; ta zurtasun aundia Yosueukitzen yakitea. Apal eta gentzatia zaite. ta zurekin Yosu dagoke. Azkuti ta mana zaite, ta zurekin Yosu'k dirauke. Lasteñ Yosu oildu ta bere eskafa galdu ditzakezu, atetikoaetara yo naba-dezu. Ta Yosu oildu ta galdu-ezkerro, ¿norgana yo egingo dezu, ta aizkidetzat noren bila ari zaiteke? Aizkiderik gabe ezin bizi zaiteke; ta aizkiderik kufunena Yosuezpa-litzaizu, itsegi ta lofegi izango zera. Eroki, beraz, diarduzu, beste inñori uste ta pozkidea ezaritzen ba-dizkiozu. Ludi osoa ere aitzin izatea obetsi beañ da, Yosue aseñeta baño. Yosue bakarik, beraz, bekizu maiterik kufunena.

4. Guziak Yosue'gatik maite bitez;

Yosu, ostera, Beraxe danagatik. Yosu-Kisto bakafik bereziki maite beař da; Beraxe bakafikan aizkiderik onena ta zindoena aufkitzen da-ta. Arengatik eta Argantxe bai aizkideak baita etsayak ere maite beař dituzu, ta oroen aldez otoi egin beař diozu, orok Bera ezagun eta maite dezatentzat. Bereziki goraldur ala maite izan zaitzateela beñere ez ezazu nai; idekorik ez duan Yainkoari bakafikan ori dagokio-ta. Inork bere biotzean zutzaz yardun dezala ez ezazu nai; ta zeori, beřiz, inorik maitatzen ez zaite arazotu; bařa bai zugar, baita zindo oroengan ere Yosu bego.

5. Garbi ta yarei bařnez zaite, izaki baten ere bilufik gabe. Bilutsik egon beař zera, ta Yainkoagana biotz garbia eramane beař dezu, opořik geldi ta Yau-na zein dan goxo ikusi nai ba-dezu. Ortara ez zera noski elduko, Yainkoaren eskařak ezpa-zaitu lendik gertu ta beraganatzen, Yosu bakafarekin, beste dana erauntsi ta alde eraginda, zeran ori bakafik ere bat etoři zaitzentzat. Edozertarako gai inor ere egiten da-ta, Yainkoaren eskařa datořkionean; diyoakionean, ostera, landeř ta

enul, ta astinketarako ezik, utzita bezelaxe. Ofelako kinkan ez da uzkuftu bea, ez etsi; bai, baña, Yainkoaren oldeari biotz narez itxeki, ta gerta litzaiken dana Yosú-Kisto'ren aintzagatik yasan. Neguari uda dañayolako, gabari eguna, ta ekaitzari atefaldi edefa.

IX ATALA

Atserik-eza.

1. Ez da zaia gizagandiko atsea nardatzea, Yainkoagandikoa dagoanean. Aundi baño aundiagoa da, bai Yainkoagandiko, bai gizagandiko atserik gabe egon al izatea, ta Yainkoaren dedugatik biotz-atzeritasuna yasateko oldea; ta ezertxotan ere norberaren bila ez ibiltzea, ta norberaren irabazkunik ez begiratzea. ¿Zela afitu, eskaña datorkizunean, pozik eta azkuz ba-zabiltza? Alako aroa orok gura dute. Erosoan dabil, Yainkoaren eskañak darimana. Ta ¿egundokorik al da iñork zamarik ez oaitzea. alorodunak bada-rama, ta artezkari nausiak bada-roa?

2. Gogotik zer edo zer pozkintzat afitzen degu; ta engaraz egiten da nor-

beraren erantztea. Gizakeriak azpiratu zituan Laurentzi ziñopak bere yaupariarekin, ludian atsegintsua zirudian dana ezetsirik, eta bere kuñun laztan Sista, Yainkoaren yaupalburu nausia, Kisto'ren maitasunagatik kendu zitza-yola yasanik. Irazaleaganako maitasarez gizaganako maitasuna uzkali zuan eta giza-atsegiña baño, Yainko-atsea obetsi zuan. Oñela zuk ere aide naiz aizekide laztanen bat Yosu'ren maitasunagatik uzten ikasi ezazu. Ta aizekidek utziko zaituanean, ez zaite mingotzu; azkenean oro elkar aldendu bea gerala yakiñik.

3. Bere baitan asko ta luzaro iñor buñukan ari izan bea da, burua ziero ezten, ta bere lera guziak Yainkoaganatzen yakin baño lenago. Nor beregan ezañita dagonean, giza-atsegiñetara eiki labantzen da. Baña Kisto'ren maitale peluta ta onbideko yañaitzale bizkoña danak ez du atsegiñetara yotzen, ezta ere oñelako gozakerien bila ez dabil; ostera ere, iñarkun azkañak eta Kisto'gatik yasan bea gogoñak gura ditu.

4. Gogo-atsea Yainkoak damaizu-

nean, eskaf berari egiñik, af ezazu, beraz: baña Yainkoagandiko oparitzat, ez zure irabazkintzat etsi ezazu. Ez, afen, ilařaindu, ez geyegi poztu, ez alpeřik ařotu: bai ordea, emaitzaz apalago zaite, ta eginbide oroetarako gurbilago ta beldurřiago; arako aldia igaroko dalako, ziltza dařayokela. Atsea kenduko zaizunean, ez etsi; bai oster, apalgi ta egoařiz goitikako atseren zai egon zaite; atse aundiagoa zuri beřiz emateko indařtsua da-ta Yaungoikoa. Ez dute ori beřitzat, ez oigabekotzat Yainko-bideak dazauzkitenak; deun aundiegan eta antziñeko lgarřegan ořelako gora-berak maiz aurfkitu ziralako.

5. Argatik norbařtek. eskařa aurkian zeukalarik, zion: « nere yoritaroan esan nuan; ez naiz beti ere kolokarik izango ». Baña eskařa aldendu zitzayonean, zer bere baitan somatu zuan agertzen du, esanik: « nigandik zure aurfpegia aldendu dezu, ta asalduřik gelditu naiz ». Alakoetan, ordea, ez du esten; bai baña areago Yainkoari otoi dagio, diolarik: « Yauna, zurots egingo dizut, eta ene Yainkoari otoi egingo diot ». Azkenean bere otoi

yaren saria yardesten du, ta entzunik izan dala daitof, diolarik : « entzun nau Yaunak eta eruki zait, nere lagunzarako yeiki da Yauna ». ¿Zertan gero? « Ene negafak » — dio — « atsera aldatu dizkidazu, ta moltzoan pozez estali nazu ». Orela gertatu ba zaye deun aundiei, guk gaxo ta landefok ez degu etsi beaf, noizpait irakiñik eta noizpait otzik ba-gaude; gogoa etofitzen eta yoaten da-ta, bere naimenaren oldez. Argatik Yob zori ontsuak dio : « Egunsentian ikefitzen, ta bat-batetan aflagotzen dezu »;

6. ¿Zertan, beraz, ustea ipiñi al dezaket, ala norgandik entzindu beaf, Yainkoaren eruki aundiagandik, eta goi-eskafaren itxaropenean izan ezik? Alabañan, lagun onak, senide azkurtiak, aizkide zindoak, idazki deunak, iradikun edefak, abesti gozoak eta eresiak euki-afen; guziok urgaizi gutxitxo dakafte, geza-xamaf dira, eskafa diyoakidanean eta nere landeftasunean gelditzen naizanean. Orduntxe egonafia ta Yainkoaren naitara nerauen ukoa baño burupide oberik ez dago.

7. Egundano ez det inorik epatu, azkuti ta yainkozalea izan-afen, noizik-bein eskar-utsunerik, ala yoranaren gutxitzerik somatu ez duanik. Egundano ez da egon, ziltza noiz edo noiz yazari ez zitzayon, deun bat ere bezain goratu ta argitua. Yainkoari so egiteko lain ez da-ta, Yainkoagatik lolean be-ñere ari izan ez dana. Geroko atsal-diaren iragarria oi da aurretiko ziltza-roa. Ziltzaz eragindakoei goi-atsedena abintzen datzaye-ta. Garaitzaleari bi-zitza — zugatzetik yatea emango diot— dasa Yaunak.

8. Alabañan, nekeak egartzeko inor sendotu dedin, Yainko-atsea ematen zayo. Ziltza, beñiz, ondoan datorkio, ez dedin arotu. Lotan ez dago tuxuria; aragia oraindik ere ilik ez dago: argatik, burua buñukara gertutzerik ez utzi; eskui-eskeñaldean daudelako be-ñere atsedeten ez diran etsayak.

X ATALA

Yainkoaren urgaiziari**zof zayon eskañ ona.**

1. Lanerako yayo zeran-ezkero; ¿atseden-bila zergatik zabilta? Yasatera yañi zaite, atse izatera baño lenago; gurutza eramatera, pozetara baño. ¿Lagunabañetako ere nork ez lituke gogotse ta poza añtuko, beti beretu ba-litu? Luñeko poz oro ta aragi-atsegiñak baño aundiagoak dira gogo atsaldiak. Luñeko pozkin oro utsal eta loyak diralako : gogoarenak, ordea, bakañik eztitsu ta garbiak dirade, ekandu onetatik erneak, eta Yainkoak gogo garbiei ixuriak. Baña goi-atsegiñok iñork ezin somatu ditzake beti bere gogara, ziltzaldia ez dalako luzaro itzaltzen.

2. Goi-ikeñari aitzia-aitzikoak zazkio gogoaren yareikeria ta norberagandiko entzinmena. Yainkoak ondo dagi, atse-eskaña ematen; gizakiak, ordea, gaizki dagi, Yañkoari eskañ-ordañez dana ez itzultzen. Argatik gugana ezin ixuri ditezke eskañ-emaitzak, Egilea-enganako eskañ-beltzak geralako, ta

dana ez diogulako iturburuari itzul-
tzen. Eskaf-ordaña beaf danez itzul-
tzen duanari, beti eskaña zoñ zayolako;
ta apalberari eman oi zayona, afoari
kenduko zayo.

3. Biotz-garabaya kenduko didan
atserik ez det nai, ezta ere afokeritara
naramaken sokunik. Alabañan, garai-
ko guzia ez da deuna; ezta gozaki gu-
zia ona; gura oro ez dira garbiak; ku-
ñun oro ez ditu Yainkoak onesten. Apa-
lago ta beldurñtiago ta buruari uko egi-
teko gertuago nagiken eskaña pozik
añtzen det. Añtutako eskañez ikasia ta
yuandakoaren miñez irakasia, ez da
azañiko bere buruari onik ezertxo ere
egozten; landeñ ta bilutsa bera dala,
beñiz, aitoñtuko bai-du. Yainkoarena
Yainkoari emayozu; arean, Yainkoari
eskañ-ordaña egiozu; zeofi bakañik,
ostera, obena ta oben-ordain egokia
zof zazkizula uste izazu.

4. Beti apal-apalgunean yañi zaite,
ta goi-goyena emango zaizu; goyenik
ez dagoke-ta apalgunerik gabe. Yain-
koaren begitan gorengoak diran deu-
nak, beren begitan are apalagoak dira-
de. Goi-egiz ta aintzaz beterik daudela,



ospe izunerako iskirik ez dute. Yainkoagan tink egonda ta sendotuta, iñolaz ere ezin arotu ditezke. Artutako on guzia Yainkoari osorik egozten diotena, ez dute elkarrengandikako osperik bilatzen; baña Yainkoagandiko aintza bakarik nai dute, ta bai beren lepotik, bai deun guzientatik Yainkoa goretsi izan dedila gogo dute, ta beti beragantzen ari dira.

5. Amiñiñoetan ere eskar-ordaña egiozu, ta aundiagoaz artzeko gai izango zera. Kiziren bat ere gorengotzat ar ezazu; ta areaneza ere opari berezizat. Emalea norbeste dan begiratu-ezkero, txiki ala zirpilegi lirudiken emairik ez dagoke. Ez da-ta txikia, Yainkoak damana. Neke ta zigor-kadak emango balizkigu ere, pozik artu bea giñizkioke; guri gertatzen zaigun guzia, gure osakuntzaren alde beti dagialako. Yainkoaren eskaña eutsi nai duana, artutako eskañagatik ordainbera bedi, ta kendu zayonean, ya sanbera. Itzuli datzayon otoi egin beza: ta ez dezan galdu, gurbil bedi.

XI ATALA

Kisto'ren gurutz-zale gutxi dira.

1. Yosu'k bere yaureñiaren maita-
fzalerik asko ditu gauñkoan; baña bere
gurutzaren soinkari gutxi. Atse-zalerik
asko-ditu; loñ-zalerik gutxi. Maikiderik
asko aurfkitzen ditu; barukiderik gutxi.
Orok nai dute Kisto'rekin poztu; gutxik
zerbait yasan Aren edefagatik. Ogi-za-
titzerañokoan Yosu'ri asko dañayote;
neke-ontzia edateraño, gutxi. Bere ala-
tzak askok agufitzen dituzte; gurutz-ge-
renari gutxi dañayote. Askok Yosu
maite dute, naigaberik ez dagonean.
Askok Bera goraldtu ta onesten dute,
Beragandik atsaldiak artutakoan. Baña
Yosu itzaltzen ba-zaye ta apuf baten
uzten ba-ditu, muxindu ala kikiltzen
dira.

2. Baña Yosu'rengatik, ez iñolako
norberen atserengatik, Yosu maite du-
tenak, bai loñ eta biotz-kezka guzietan,
baita atsaldirik eztitsuenean ere, Bera
onesten dute. Ta beñere ezpa-litu poztu
nai-añen, Beraxe onetsi lukete, ta Bera-
ri eskañ egin liokete.

3. ¡Zenbaterañoakoa dan Yosuga-nako maitasun utsa, norberaren onaurkiz ala maitasunez nasgabekoa! ¿Beti atseren eske dabiltzanak ez al dira ogipekoak deitu bea? ¿Kisto'ren baño geyago, norberaren maitatzaleak ez al dira agertzen, beren onaurki ta irabazkizunak beti asmatzen diardutenak? ¿Yainkoari ururik yopu izan nai lukenik non idoroko al da?

4. Bakan bakanetan aurkituko da oroetatik bilutsik izateko bezain gogozalea litzakenik. Benetako lander ta izaki oroetatik bilutsik nor idoroko al du? Urutiko bazteraldetik letozken bitxiak baño bikañagoa da alakoa. Bere ogasun osoa inork emango baleza ere, ezer ez litzake. Ta garbai-neke goritan ba-liardueke, gutxi ere litzake. Ta yakintza dana ikasiko balu, ufuti ere legoke. Ta zindotasun gurena ta azku beroegia baleuzka, anitz ere peitu litzayoke; alegia, danik beaen duan baka ezer bat. ¿Zer, ba? Oro utzi-ezkerro, norbera ere uztea, norberagandik irtetea, ta norberaganako maitasun-izpirik ere ez eustea. Ta egin bea dua-la dazaun guzia eginda-gero, deusik egin ez dualakoan bego.

5. Aunditzat etsi litekena ez beza aunditzat aritu; baña zin-ziniez aitor beza otsein alpeña beraxe dala, Egiak dionek: «zuei agindutako guziak egingo dituzuneko, esazute; yopu alpeñak gerade». Añezkero, gogo-landef ta bilutsa izango diteke, baita Igarlearekin esango dezake ere; «bakañik eta landefa naiz». Ala ere uraxe baño aberatsagorik, uraxe baño altsuagorik, uraxe baño yareyagorik ez dago; bere burua ta enparau guziak uzten, eta beraxe dana be-bekoan yañtzen dakizkialako.

XII ATALA

Gurutz deunaren bide zabala.

1. Gogofa askok deritzate itz au; «buruari uko egiozu, gurutza aritu, ta zaraikit». Baña entzun-gogoragoa izango da azken-itz ura; «Nigandik urtikan, ezetsiok, betiko sutara zoazte.» Gurutz-aipua orain oldez dantzutenak eta berari dañayotenak, ez dira zori artan betiko ezespena entzuten beldur izango. Epayetara Yauna datorkenean, gurutz-irudi au ortzian dagoke. Ordun-

txe, gurutzekoaren eduz ziarduten gurutz-yopu guziak, Kisto ebazlegana entzinmen aundiz urbilduko dira.

2. ¿Zergatik, ba, gurutza aitzen belduñ al zera, yaurefirako bidea gurutza dan-ezkero? Gurutzean osasuna; gurutzean bizitza; gurutzean etsayen aitziko babesia; gurutzean goi-atseren ixuria; gurutzean gogoaren sendotasuna; gurutzean biotzaren poza; gurutzean zindotasunaren gonburua; gurutzean deundasuk bikañena. Gurutzean baik, ez dago gogo-osakunderik, ezta betiko bizitzaren itxarobiderik ere. Gurutza beraz, añ ezazu, ta Yosuri zañayo, ta betiko bizitzara zoazke. Beraxe aurfendu zaigu, beretzako gurutza sorbalдан zeramala, ta zuregatik gurutzean il zan; gurutza zeorék ere eramán, eta gurutzean il gura dezazun. Bere eriozkidea izango ba-ziña, bere bizkidea ere izango zeralako. Berebat, nekekidea izango ba-zintzayo, aintzaki-dea ere izango zatzayo.

3. Oña, gurutzean dana dago, ta dana ere iltzean datza, ta ez dago bizitzarako beste biderik, ez barne-gentzarakorik, gurutz deunaren eta egunoro-

ko nekearen bidea baizik. Edonon zabilta, edozeren bila ari zaite; ez dezu, baña, ez goyan bide gurenagorik, ez bekoan bide eskieñagorik idoroko, gurutz deunaren bidea baño. Dana zure oldez ta iritziz antola ta atondu ezazu; oldez ala engaraz yasanbeaña izan ezik, ez dezu aurkituko; ta, beraz, gurutza beti didorokezu. Soñean miña somatu ala gogoan biotz-loña yasango dezu-ta.

4. Yainkoak noizik-bein utziko zaitu; noizpait ere geideak zirikatuko zaitu; ta aztunago dana, maizetan zeorixe zeofentzako nekagafiya izango zera. Ala ere iñongo bidez ez siratsez ezin yarei edo arindu zaiteke; ta Yainkoak nai duaño yasan beañ dezu. Yainkoak nai du-ta atserik gabe loña yasaten ikasi dezazula, ta bere mendean ziero yañi, ta loñez apalagorik geldi zaitezela. Kisto'ren nekaldia iñork ere ez du somatzen, zerbait idekorik yasan duanak bezain biotzez. Beraz, gurutza beti gertu ta edonon zure zai dago. Igesik ezin egin dizayokezu, edonora yoanda ere; zoazken bertara zure burua daramazulako, ta zure burua beti didorokezu. Gora zoaz; bera zoaz; lekora zoaz; ba-

fura zoaz; gurutza edonon aurkituko dezuz; ta edonon ere yasan beaŕ dezuz; baŕnegentza izan, ta betiko saria irabazi nai ba-dituzuz.

5. Gurutza oldez ba-daramazu, berak zaramake, ta isitutako eiburura zarroake; antxe yasanbeaŕa bukatuko da; emen, ordea, ez. Besterik ezinda, badaramazu, zama leporatu ta zeran oritointzen dezuz; baŕna orduntxe ere yasan-oldez egari beaŕ dezuz. Gurutzen bat yaurtitzen ba-dezuz, beste bat noski didorokezuz, ta ausaz aztunagoa.

6. Ilkoŕetako batek ere ezin txuliatu dezakena, txuliatuko dezula uste aldezu? ¿Deunetako zein egon da ludian gurutza ta loŕik gabe? Yosuz Kistoz gure Yauna Bera ez zaŕ ordu bete egon nekerik gabe bere biztaldian. Kistoz'k nekea artu, ta ilen artetik berbiztu, ta arezkero bere aintzan saŕtu beaŕ zituan-dio Beraxek. ¿Zer dala-ta, zeori beste bide baten bila zabilta, bide zabala dan, gurutza-bide au utzirik?

7. Kistoz'ren bizitza osoa gurutza ta oŕazea izan zan, ta ¿zeoŕentzako atsedeen eta poz-bila ari al zera? Okeŕ, okeŕ zabilta, atsekaberen baizik, ezereen es-

ke ba-zabiltza; andegaz beterik eta gurutzez esirik dago - ta biztaldi amaikoŕ au. Ta gogokoetan iñor gorago igotzen dan giñoan, gurutz aztunagoak ere maiz aurkitzen ditu; atzeriko nekea maitasareak areagotzen diolako.

8. Baña oŕenbeste loŕez yota dagon orixe atsaldirik gabe ez datza; bere gurutzea yasatetik ekoizpen gurena geitzen zayola oaritzen dualako. Alabañan, gurutzaren azpian oldez yaritzen danean, loŕ-zama osoa Yainkoagandiko atsearen uster a bigurtzen zayo. Ta aragia miñez gei-geyago akitzen dan giñoan, gogoa ere gei-geyago barneko eskaŕez sendotzen da. Iñoizetan ere, Kisto'ren gurutzari alki izateko guraz, naigabe ta loŕetara beratu ta sendotuta, miñik eta atsekaberik gabe egon ez luke nai; Yainkoaren kufunagoa beraxe dala us-te dualako, neke anitzago ta aztunagoak Beragatik yasan alko ditzaken añan. Ez da ori giza-indaŕa, Kisto'ren eskaŕa baño; eskaŕ oŕi dagokio-ta aragi makala sendotzea, berak beti iguin eta asagotu oi duana, gogo-leraz bururatu ta maite dezantzat.

9. Giza-erarakoa ez da gurutza era-

matea, gurutza maitatzea, soña nekal-
tzea, ta yoputzan eukitzea, dedutik iges
egitea, irañak pozik yasatea, burua
nardatzea ta besteak nardatu dezatela
nai izatea, aigabe ta kalte aítzea, ta
luñ aunetan iñolako entsegurik ez gura-
tzea. Burua begiratzen ba-dezu, oñela-
korik ezertxo ere zeroñez ezin dezakezu.
Baña Yainkoagan ustea ezaítzen ba-
dezu, goitikan indaña emango zaizu, ta
bai gizakeria, baita aragia ere zure
mendera datořzkizuke. Zure etsai tuxu-
riaren ere ez zera belduñ izango, ziñes-
men-izkiñuz yantzirik eta gurutz-ezau-
bidez oarğařiturik ba-zaude.

10. Beraz, zureganako maitasunak
zure Yauna gurutzari yosi zion ezkerro,
gurutz ori Kisto'ren yopu on eta zin-
doari dagokionez, gizonki eramateko
gertu zaite. Gertu zaite, biztaldi gaxo
aunetan neke ta naigaberik asko yasa-
teko; edonon ere zeundeken, oñela gerta-
tuko zaizulako; ta bazteñtuko zeran
edonon ere, oñela, noski, yazotzen
aúřkituko dezulako. Oñela beañ
ere ta burua yasan-ezik, gaitzen loña ta
kaltea asagotzeko beste biderik ez da-
go. Yaunaren ontzia leraz edan ezazu,

bere aizkide ta erkidea izan nai ba-de-zu. Atsaldiak Yainkoaren naitara ego-tzi itzazu; Bere oldez erabili bitza. Zu, ordea, loía yasatera gertu zaite; ta atsegiñik gurentzat loía etsi ezazu; ge-roko aintza irabazteko lain ez dira-ta aldi ainetako nekeak, guziak zeoñexek yasan al ba-zenitu ere.

11. Loía ezlitzat eta gozotzat aítze-ra elduko zeranekoxe, ondo zabiltzala uste ezazu; luñean atsetegia epatu de-zulako. Yasatea zaía zaizunean, eta ya-satetik igeska zabiltzanean, gaizki zau-de, ta zoazken edonora, yañaituko zai-zu igesi nai diozun loía.

12. Zure eginbeaña dan artara, ale-gia, yasatera ta iltzera yaítzen ba-zera, laster obeki zaudeke, ta gentza yar-de-siko dezu. Irugañen ortziraño Paul' ekin yasoá izango ba-ziña ere, eskie-rik ez zeundeke, yasanbeañik ez litza-izukelakoan. «Nik erakutsiko diot-dasa Yosú'k-ene izenagatik zenbat egari beañko duanik». Yasatea, beraz, dago-kizu, Yosú maite izan eta beti ere Aren yoputzan yardun nai ba-dituzu.

13. ¡Kisto'ren izenagatik zerbait ya-sateko lain ai-ziña izango! ¡Zein bes-

teko aintza zeořentzat, zeinbesteko poz Yainkoaren deun oroentzat, zeinbesteko auřerapide geidearentzat letořzke! Yasan-oldea orok goraltzen dute; gutxi, bařa, yasan nai dute. Pixkat berderen Kisto'rengatik pozikan yasan beař zenuke; giza-ederařatik askok neke aztunagoak egartzen dituztenezkero.

14. Ziņez yakizu iltzen bizi beař zerala. Ta nor beretzat geyago iltzen danez, geyago ere Yainkoarentzat bizitzen asten da. Ortzikoak aditzeko gai iņor ere ez da, Kisto'rengatik naigabeak yasatera ezpa-da apalik yařtzen. Yainkoaren gogaragorik luř aunetan ez dago, ezta zeořentzako osakořagorik ere, Kisto'rengatik oldez yasatea baņo. Ta aukeratu beařko ba-zenu, obetsi beařko zenuke atsekabea Kisto'gatik yasatea, atse ugari izatea baņo; Kisto'ren irudiago ta deun oroen edukoago izango ziņakelako. Ez dago, ba, gure irabazpidea, ezta gure bizitzaren auřerakuntza ere, entsegu ta atse yori-tsuan; bai ordea, atsekabe ta lořak yasatean.

15. Yasatea baņo ezer ba-litz giza-

osakuntzarako obe ta adiñonagorik,
Kisto'k noski itzez ta ereduz lerakuski-
guke. Oña ba; zerayoten ikasleei ta
yañaitu nai dioten guziei, gurutzea era-
mateko garbiki aolkatzen die, dasaye-
la; «Nere ondoan iñork etoñi nai ba-du,
bere buruari uko begio, ta bere guru-
tza ar beza, ta beñait. Oro, ba, ira-
kuñi ta azteñtu ezkerro, azken-berazkun-
dea auxe bedi : nekearen nekez yaure-
ñian sañtu beañ degu.

IRUGAÑEN IDAZTIA

Bañeko atsea.

I ATALA

Gogo zintzoari

Kisto'k darauskiona.

1. Yainko nere Yaunak nigan zer darausan entzungo det. Bere baitan Yauna erausten dantzuan gogoa, ta Aren aotik atse-itza aítzen duana ¡auxe da gogo zori ontsua! Yainkoaren zuzmuñ-buadak, gizañteko zuzmuñik oañtzeke, biltzen dituzten belañiak ¡belañi zori ontsuak! Lekorean dabilan otsik ez, bañetik irakasten ari dan egia bai dantzuten belañiak ¡belañi zori ontsuak! Atetikoentzat itxi, ta bañekoentzat atzañirik dauden begiak ¡begi zori ontsuak! Bañera murgiltzen, eta ortzizadoñak aditzeko egun oroko iñarkunetaz burua geroago ta gertuago izaten ekiten dutenak ¡abek zori ontsuak! Baita ere zori ontsuak Yainkoarenetan yarduteko iskiz dabilzanak, eta gi-

zarfeko eragozpide guzia beragandik asagotzen duana. Guziok oartu itzazu, ene gogoa, ta zure soma-ateak itxi, zure Yaungoikoak zugaran zer darausan entzun dezakezuntzat.

2. Auxe dio zure maiteak : Ni naiz zure osakuntza, zure gentza, zure bizitza. Nerekin zaude, ta gentza didorokezu. Iraizbear' dana utzi, ta betikoak galde itzazu. Liliurpidea baizik ¿zer ote da ir aizbear' dana? ¿Ta zertarako ote datzazkizu izaki guziak, Irazaleak utziko ba-zaitu? Dana, beraz, zapuzturik, zure Irazaleaganako kufun ta zintzoa zeran ori egizu, benetako zori ona erdietsi al dezakezuntzat.

II ATALA

Itz-zaratarik gabe egia barnean mintzatzen da.

1. Mintzo zaite, Yauna, zure otseñak dantzu-ta. Zure otseña ni naiz; adiña indazu zure erasak yakin ditza-dantzat. Zure ao-itzetara nere biotza limurtu ezadazu; intza bezelaxe biñotso zure mintzoa. Beñola Mois'i Israel'da-

řak zesayoten; mintzo zatzakigu zero-ri, ta dantzukegu; ez bekigu Yauna mintzo, ez gaitezen agian il. Ez nik ofela, Yauna, ez det nik ofela galde-tzen; Samuel igarřlearekin, osterá, apa-lik eta gogotik daskaizut; mintzo zaite, Yauna; zure otseřak dantzu-ta. Itzik ez begit Mois'ek, ez beste iragarřle batek ere; Zeori, iragarřle oroen eragile ta argitzařlea zeran Yainko Yaun ori, min-tzo zaite. Zeořek bakařik, ayek gabe, irakasi nazakezulako; ayek, ordea, Zu gabe, ezertarako ere ez dira.

2. Itz-zarafa atera bai-dezakete; bařa gogorik ez damate. Edeřki dara-sate; bařa Zu ixilik egonda, ez dute biotza irazekitzen. Itzak darakařzkite; bařa ikuřa Zeořek zabaltzen dezu; za-dořak aipatzen dituzte, bařa zadořen adiřa Zuk agertzen dezu. Agintzak ira-garřten dituzte; bařa betetzeko lagun-tza Zuk damazu. Bidea darakuste; bařa ibiltzeko sendotasuna Zugandik datoř. Atetikan ezik, ayek ez daragite; bařa biotza Zuk irakasi ta argitzen dezu. Azala ayek bustitzen dute; bařa maluztasuna Zuk damazu. Itzez ayek

ots dagite; baña Zuk belaríei adikuntza damayezu.

3. Ez bekit, beraz, Mois mintzo; Zuk, ordea, itz egidazu, egia zeran Ořek; ez nadin agian il, eta kamus geJdi, azaletik bakařik irakasia ta bařnez ez irazekia naizelarik. Ez bekit ataragařia itz entzuna ta ez egiņa, ezaguna ta ez maitea, ziņetsia ta ez betea. Beraz. mintzo zaite, Yauna; zure otseņak dantzu-ta, bizitza betikorako itzak dituzulako. Itz egidazu, nere gogoa nolarebait pozteko, ta nere bizitza ařas obetzeko; baita zure oneskun ta aintza ta ospe betikorako ere.

III ATALA

Yainkoaren mintzoa apalik entzun beař da; ta askok ez dute iratitzen.

1. Nere itzak entzun, seme ořek; itz goxo-goxoak, luřeko yakitun ta ikastun oroen yakintza baņo gora-goak. Nere itzak ařs ta bizitza dira; ta ez dira giza-senaz neuři beař. Ez dira alpeřikako atsetara makuřtu beař; bai,

ordea, ixilik entzun, ta apal-apalik eta gogotik aritu. Nik esan det: Zori ontsua da, Yauna, zure aginbidetan yakitun eta ikastuna egingo zenukena, egun gogoñak berari biguntzeko, ta luřgañean ez dedin babeskerik.

2. Askalditik Nerau izan naiz iragarleen irakaslea — dio Yaunak — eta gauřdaño guziei itz egiten ez naiz gelditu; baña nere mintzoarekiko soñ ta goñ asko dira. Yainkoarena baño, gizotsa geyenak pozikago dantzute; Yainkoaren oldeari baño, beren iritsari eřazago dařayote. Gizařtean sari suntsikoñ ta kaxkañak eskeintzen dirala ere, giza-mendean yoran goriz ari oi dira asko. Nik, ostera, sari guren eta betikoak abintzen ditut, eta sorayotzen dira giza-biotzak. Gizařteko ta aundiekiko mořoitzan oi dan ayolaz ħnor dabil nerekiko mořoitzan eta mēnean? Lotsa zaite, Sidon — dio itxa-soak. Eta ħzergatik ori?, galdetzen ba-dezu, ara adizu: Ogipide uřiagatik bide luzea egiten da; betiko bizitzagatik, ordea, luřetik askok oña nekez yasotzen dute. Sari txatxařaren bila ibiltzen da; txanpon bakař batengatik

iñoizetan auzi tentelak sofitzen dira; zizki-mizkiagatik eta eskein zirtzil batengatik gau ta egunez neke-beldurik ez dago.

3. Baña jau miña! alda ezin onagatik, beaŕ danez ezin etsi diteken sariagatik, dedurik gorenagatik eta betiko aintzagatik neke-pixkat ere afitzeko nagikeria oi da. Lotsa, ba, zaite, otsein alpeŕ ta zital ori, galbiderako ayek gertuago daude-ta, bizitzarako zeori zauden baño. Zu egiatik baño, pozikago daude ayek uskeriagatik. Beren usteak iñoiz uts dagie; nere abintzak, ordea, ez dio iñori ere iruzurik egin, eta nere zai dagona ez du utsik bidaltzen. Abindu dedana damaket; esan dedana beteko det. *Ni maitatzen iñork zintzoki badirau azkeneraño. Zindo guzien saritzalea Ni naiz, ta yainkozale guzien ikeŕtzale zoŕotza.*

4. Nere itzak zure biotzean idatzi ta ayolaz erabili itzazu; ziltzaldian oso beaŕak izango dituzu-ta. Irakuraldian uleŕtzen ez dezuna, ikeŕaldian dazaukezu. Nere autetsiak bitara ikeŕi oi ditut; alegia, ziltzaz ta atsez; ta irakaskizun bi egun oro azaltzen dizkiet; bat,

beren obenak ataritzen; bestea, obekuntzara aizkatzen. Nere itzak entzun eta arbuyatzen dituanak, azken-egunean ebatsiko duanik bai-duke.

Azku-eskaña eskatzeko otoya.

5. Ene Yainko Yauna; Zu zera nere ogasun guzia. Ta ¿nor ote naiz ni, Zuri itz egiten azartzeko? Zure mofoi gaxo-gaxoa ta artxo kaxkaña naiz, aitortzen dakidan eta azartzen naizan baño anitz gaxoago ta kaxkañagoa. Oroi zaite, ba, Yauna, ezer ez naizala, ezer ez daukadala, ezer ere ezin dezakedala. Zu bakañik on, zindo ta deuna zera; Zuk dana dezakezu, dana damazu, dana betetzen dezu, obendia bakañik utsik uzten dezularik. Zure erukitiaz oroi zaite, ta zure eskañez biotza bete ezadazu, Zuk egindako ezertxo ere lanborik egon nai ez dezun Oñek.

6. ¿Biztaldi gaxo aunetan nere burua nola egari al dezaket, zure eruki ta eskañak ezpa-naute sendotzen? Ez ezazu, añen, nigandik zure aurpegia aldenendu; ez ezadazu zure ikerkundera berandu; ezta zure pozkintza atzera

egin ere; ez dedin nere gogoa zure aitziñean urik gabeko luña bezelaxe. Zure naya egiten irakaskidazu, Jauna; zure aurrean egoki ta apalik yarduten irakaskidazu; Zu zera-ta nere yakin-tza, ezautzen eta ezautu nazuna ni lurrean yayo ta luña izan baño lenagotik.

IV ATALA

**Egiaz ta apalik Yainkoaren
aurrean yardun bear da.**

1. Ene semea, egiaz zabilta nere aurrean, ta nere bila biotz zintzoz ari zaite beti. Nere aitziñean egiaz dabilana yazar-kun gaiztoekiko babes-a eukiko du, ta maltzuren eta maxiolarien aitzika egiak yareingo du. Egiak yareingo ba-zaitu, zienez yarei izango zera, ta alpeñikako giza-esamesaen ayola ez zera izango. Egia da, Jauna. Diozunez, nigan, aŕen, egin bedi. Zure egiak irakasi benaza; berak zaitu, ta azaga oneraño eutsi benaza, Berak lera gaizto ta yas oker guziak nigandik asagotu bitza; ta Zurekin ibiliko naiz biotz yarei ta zabalez.

2. Nik irakasiko dizut — dio Egiak — nere aurrean zuzen eta nere gogarakoa zer dan. Atsekabe ta lañi aundiz zure obenak gogaldu itzatzu; ta ondo zenegiken edozergatik zerbait zeraia beñere ez uste. Obendia ziñez zera, ta girin askotaz labangañi ta nasia. Zerez beti ezereztara zoaz; laster iñist, laster pot egiten dezu, laster asaldatzen, laster mariatzen zera. Anpabiderik ez dezu; apalbiderik, ordea, eruz; uleñtu dezakezun baño txit aulago zeralako.

3. Beraz, egiten dituzun guzietako bat ere ez ezazu aundizat etsi. Betikoa baizik, ezer ere ez ezazu aundizat, ez gurentzat, ez añañat, ez aipagañizat etsi; ezer ere ez garaitzat, ez gorañañizat, ala gogoangañizat añtu. Betiko Egia danik atsegiñena bekizu, ta zure txatxañtasuna, iguñena. Zure oben eta giriñen bezain belduñ, ezereen ere ez zaite; ezer ere ez ainbat narda; ezeri ere ez ainbat igesi; edozein kalte baño, iguñagoak izan beañ zazkizulako. Iñortzuek nere aurrean xaloki ez dabilta; bai oster, nere zadofak igeñi ta Yainko-bañea uleñtu nai dituzte, añokeri ta yakinmiñak daragizkitela,

beren buruen eta osakuntzaren ayolarik gabe. Oyelakoek, beren afokeri ta yakinmiña dirala bide, ziltza gogofetara ta obenetara maiz leñatzen dira, aitzikoa nazayelarik.

4. Yainko-ebaskunen belduf zaite; alorodunaren aseñeak ikara bezaitza; Yainkoaren eginbideak eztabaidatan ez itzazu erabili nai; zure okeñak, ostera, azteñkatu itzazu, zenbatan uts egin dezun, eta zenbatan onerako zabaña izan zeran gomutaturik. Idazkietan bakañik beren azkua daramate batzuek, beste-zuek irudietan, eta batzuek, beñiz, ikuñkin eta agerbide nabarietan. Batzuek aotan naukate; baña biotzean ozta. Beste batzuek, adimen argiz ta biotz garbiz, betikoetara beti irikatzen dira; luñeko goraberak atsekabez dantzuzkite, soin-beañak samañez sorozten dituzte: oyelakoek aditzen dute egiatsak beren baitan darausana. Egiats oñek luñekoak nardatzen, goikoak maitatzen, gizakeriak uzten, eta ortzia gau ta egun gogo izaten irakasi dizkie.

V ATALA

Yainko maitasunaren

atze añañiak.

1. Onesten zaitut, Aitagoikoa, Yosunere Yaunaren Aita, naizan gizagaxo aunetzaz oroitzeko adeya egin didazulako. Eskañik asko, ene Aita erukitsu ta atse guzien emalea, zure atsekuntzaz noizpait pizkoñtzen nazulako, atse baterako ere gai ez naizala. Beti onesten ta goratzen zaitut zure Seme bakañekin eta Goteun atselariarekin menderen mendetan. Bai, Yainko Yauna, nere maitatzañe deuna; Zu nere biotzera — ezkerro, nere altsañ guziak pozez yauziko dira. Zu zera nere aintza ta nere biotzaren poza. Zu zera nere itxarobi-dea, ta loñaldirako gorkua.

2. Baña maitatzen aula ta onbidean marketsa oraindik naizalako, zuregandiko sendokuntza ta atsea beañak ditut : argatik, sañitan ikeñi, añen, nazazu ta irakaspide deunetan azi. Girin txañetatik yarei nagizu, ta yas okeñ guzietatik biotza sendatu ezadazu; bañez sen-

datu ta añas gardostuta gero, maitatzeko gai, yasateko gogor ta irauteko gotoña izan nadin.

3. Ezer aundi bat da maitasuna, onaurki guziz aundia; berak bakarik aztuna dana arintzen du, ta gorabera guziak berdin egartzen ditu. Zama nekatzeko daramalako, ta gañatz dana ezti ta gozatzen dualako. Yosu'renganako maitasun martzalak ekite gurenetara bultzatzen du, ta beti obetara gogoa zirikatzen. Goruntz beti maitasunak ekiten du, ta beko bilurik ez du nai. Yarei egon nai du maitasunak, eta gizañteko lera guzitik urun, ez dedin bere barne-ikusmena lausotu ta ez dezan aldiko ekoizpenak arazotu ala kalteak uzkali. Ez dago maitasuna baño ezer goxoagorik, ez azkañagorik, ez garayagorik; ezer ere ez dago zabala-gorik, ez atsegiñagorik, ez beteagorik, ez oberik ortzian naiz lufean ere; Yainkoagandik maitasuna yayo dalako, ta, Yainkoagan baizik, izaki oroen gañez, ezin atsedean diteke.

4. Maitatzalea antxika, egaka ta pozez dabil; yarei da ta ez arazotua. Guzia guziagatik dama, ta guzia guzietan

dauka; on dana diñotson eta darion Goiko Bakañ Bategan, guzien gañetik, atsedeten dalako. Ez du emairik begiratzen; bai osterá, Emañeagana, emai guzien gañetik, itzultzen da. Maitasunak sañitan erabiderik ez dazau; baña erabide oroen gañez diraki. Maitasunak zamarik ez du somatzen; nekerik ez du ezertzat esten; al dezaken baño geyago ekiten du; ezin ditekenik ez du aipatzen; dana dezakelakoan eta zilegia dualakoan dago-ta. Beraz, edozertarako lain da; ta maitatzen ez duana okilduta datzanean, berak lanbide asko egin ta burutzen ditu.

5. Ernai dago maitasuna; ta lotan ere lorik ez dago. Neketan ez da akitzen; ertsaldian ez da eragozten; izutaldian ez da lañitzen; baña, gañ bizi ta zuzi ixioa bezelaxe, goruntz yeiki ta eskieñki igarotzen da. Iñork maite baidu, izen aunek zer ots egin duan baidazau. Yainkoaren belañientzat oyu ozena da gogoaren lera bizia, dasayonean; ene Yainkoa, ene kuñuna; Zu osorik neretzat, eta ni osorik Zuretzat.

6. Maitasunez zabaldu nazazu; biotzaren bañneko aoz txastatzen ikasi de-

zadan zein goxo dan maite izatea, maitasunez urtzea ta maitasunean igeri egitea. Maitasunak benauka, azkuaren azkuz eta txundioz neraunen gañera naramala. Maite-eresia abestu nai det; goruntz dañaikizuket, ene maite ori; nere gogoa zure goreskunetan igatu bedi, maitasñez yauzkaturik. Izan zatzakit nerau baño maiteago; ta nere burua Zugatik bakarik, eta zure maitatzañe benetakoak Zugan maite izan bekizkit; Zugandiko argiz agertzen dan maite-agintzak erabakitzen duanez.

7. Maitasuna da pizkoñ, xalo, zintxo; añai, sendo, yasankoñ, zindo, zurñ, gibel-aundi, kementsu, ta iñoiz ere ez berekoya. Norberaren bila ibili-ordukoxe, maitasunak ok egin du-ta. Guñbil, apal eta zuzena da maitasuna; ez melin, ez arin, ez kimizkoi; eratsu, garbi, gotoñ, mana, ta somabide oroen zaitzañea. Nausienganako mendo ta esanekoa da maitasuna, beraganako matxañ ta nardagañia, Yainkoaganako azkuti ta eskañ onekoa, Argan beti entzinmen eta uste ona dauzkala, Yainkoa gozaka zayonean ere; maite izan-ezkerro, miñik gabe bizitzerik ez dago-ta.

8. Oro yasateko ta maitearen naitara yarduteko gerturik ez dagonak, maitale-izenik ez du irabazi. Maiteagatik maitaleak gogor ta samin litzayoken edozer yasan beaŕ bai-du; ta, gerta litzeken agi gaitzagatik ez da argandik sayestu beaŕ.

VI ATALA

Benetako maitalearen agerbidea.

1. Maitale azkaŕ eta zuŕa ez zera oraindik, ene semea.

—¿Zer, ba, Yauna?

Naigabe apur batengatik asitakoak zapuzten dituzulako, ta atse-bila iski laŕiegiz zabilzalako. Maitale azkaŕa ziltzaldian ere gotoŕik dago, ta etsayaren maltzuŕkeriak ez ditu ziñesten. Atsekaldian atsegin naun bezelaxe, atseka-be aldian ere ez nau iguña.

2. Maitalearen emaya baño, emalearen maitasuna geyago begiratzen du maitatzaŕe zuŕak. Mozkiña baño geyago txera [oaŕtzen du; ta kuŕunaren azpikotzat emai guziak datsazki. Maitale martzala ez da emayan atsedeten;

bai osterā, Nigan, edozelako emai gañetik. Ez da oro galdu, Nerāu ala nere deunak noizpait ezpa-dituzu, nai zenitukenez, gogokoak somatzen. Inoiz somatzen dezun arako txera on ta samurā, aurki dagon eskañak soñtzen dizu, ta ortzi-eñiaren inolako milizkaldia da; baña ez da artan geyegi ezafi beañ, yoan-etorñkoñā dalako. Osterā ere, gogoko igikun gaiztoen aitzika yañkitzea, ta ixerñenen eragikunak arbuyatzea, orixe kemenaren agerbide ta irabazpide aundia da.

3. Ez bezaitzate, beraz, izutu, atetik sañtu litzaizkizuken edozelako irudipenak. Zure asmoa gogof eutsi, baita Yainkoaganako txede zuzena. Itxumustuan gora noizpait yaso, ta berealaxe oiko tentelkerietara itzultzen ba-zera, ori ez da liluraldia. Oñelakoen egilea baño geyago yasalea naigabez zeralako, ta iguin eta asagotzen dituzunean, galtzerik ez dago, irabazterik bai.

4. Yakin ezazu aspaldiko etsayak leñenak egiten dituala onerako leya zuri eragozteko ta inarkun azkutsu guzitik zu bereizteko; alegia, nere nekaldiaren oroitze zintzotik, zure biotzaren

zaitzetik, eta onbidean auferatzeko erabakitako asmotik. Oldozkun txarrik asko erasten dizkizu, azpeñtu ta izutu zaitezzen, ete otoi eta irakuñtze deunetik aldendu zaitzan. Aitoñ apala iguin du; ta, al ba-lu, yaunañtza uztera eramango zinduke. Ez ari ziñetsi; yaramonik ez egin, xedera maiz yañiko ba-lizu ere. Zitalkeri ta zantañkeriak erasten dizkizunean, berari egotzi zazkiozu. Esayozu; urñikan, gogo zantañ ori; lotsa adi, doñorñ ori; zantaña ta alaena bai-aizak, belañiei alakoak dizkidakan ori. Oakit, liluratzale zantañ ori, ez dek izango nigan iraspiderik; Yosunerekin izango dek, gudari azkañ-zurñian, ta i lotsa izango aiz. Il ere naya-go dikat, baita iñongo nekeak yasan ere, irekin bat etoñi baño. Ixilik ta tutik ago; iñoiz ere ez aut adituko, mutiriki zinkatzen egongo ba-intzakidak ere. Yauna dek nere argi ta osasuna, ¿noren belduñ izango al nauk? Etsaietzauntza auñkez dikadala ere, ez dek nere biotza belduñ izango.

5. Gudari onari dagokionez, bufukan ari zaite; ta noizik bein, ergala zerala-ta, erortzen ba-zera, lengoak baño

indar azkaragoak ar itzazu, nere eskar ugariagoren zai izanik; ta ayola aundia, anpurskeri ta afokeria asagotu itzazu. Orek dirala bide, amaika okertzen eta itxutasun osakaitzera lefatzen dira. Galen eta apalbidetzat izan beki zu berengan tentelki entzindutako afo oyen ausiabaña.

VII ATALA

Apaldasun aterpean eskaña ostendu bear da.

1. Ene semea, obe ta eskierago dezu azku-eskaña ostentzea, argatik ez ilafaintzea, artzaz asko ez eraustea, ezta bera lafegi aundiestea ere; bai oster, zeran ori nardatzea ta beldur izatea, artarako gai ez zeralarik, eman zaizulako. Orelako lerari ez zayo zailki itsatsi bear; lastertxe osorik irauli diteke-ta. Eskar-aroan gogaldu ezazu zein gaxo ta lander oi zeran eskarik gabe, Atse-eskaña dezunean ez-ezen; baita eskar oren atzeraldia apalik, bu ruaren ukoz, eta egonafiz, otoi-leya moteltzeke, ta beste eginbear oikoak

uzteke, yasaten dezunean ere, gogoaren auferakuntza bai-dago. Zure eskuan dagona, obekien dezakezun eta dakizunez, gogotik egizu; biotza agoñ ala kezkaz egon-añen, ziero zabañtzeke.

2. Gogara ez dabiltzanean, berealaxe minberatu ta zabañtzen diranik asko daude. Giza-mendean ez dago-ta bere bidea; Yainkoari, ordea, dagozkio ematea ta pozeraztea nai duanean, nai duan aña ta nai duanari, Berak atsegin duanez, ta geyagorik ez. Sengabeko batzuek, azku-eskaña zala bide, beren ausiabañtza atondu zuten, al zezaketen baño geyago egin nai zutelako, zein txatxañ ziran ez neuriturik, ta biotz-le-yari, senaren iritziari baño geyago yañaiturik. Eta Yainkoari edeñ zitzayon baño gorago ekin zutelako, eskaña lasteñ galdu zuten. Ortzian berentzako kabia yañi zutenok, landeñ eta purtzil gelditu ziran; beeratu ta landeñtu-ezkero, nere egapean itxedoten, ez beren egaz egaltzen, ikasi zezaten. Yainko-bidean sañbeñi ta atingeak, eñaz bidekatu ta aburikatu ditezke, urgurien aolkuz ezpa-dabiltza.

3. Baña atindunei baño, norberaren iritziari yafaitu nayago ba-dute, ondo-re ertuna yoko dute, beren iritziatik es-tikatu nai-ezik. Norberaren ustez yaki-tuna danak, bakan-bakanetan beste inoren artezkuntza apalgi yasaten du. Gogo-apalez, adin uñi ta yakite gutxi obeak dira, yakite-kopuru ugari afoke-riz baño. Afotu zinduken asko baño obe dezu gutxiago eukitzea. Beaf da-nez urguriki ez diardu, pozari osorik lotzen zayonak, lengo apoita azturik eta eskeñitako eskaña galtzeko lañi oi dan Yainko-belduñ garbia atzendurik. Onbiderako sen uñiz ere dabil, elkai-tzetan eta loñaldietan etsiegi diarduna, ta beaf dan baño uste gutxiagoz Nitzaz iritzi ta asmatzen diarduna.

4. Gentzaldian eskieñegi dalakoan yardun nai duana, gudaldian erkiñegi ta belduñti maiz auñkituko da. Beti apal ta txumerik zure baitan egoten, eta zure gogoa eraldu ta artezten ba-zenekizki, galbide ta obenetan ez ziñake oñen las-teñ eroriko. Gogo-gañaldian burubide ona da, argia itzali-ondoan zer izango ote danik gogaltzea. Ta ori gerta-ez-kero, argia beñiz ere itzuli datzaizukela

gogaldu ezazu; apur baten argi ori itzali nizulako, zure gurbiltasuna ta nere aintza gordintzeko.

5. Afagotaldi ori askotan adiñona-goia zaizu, zure naitara beti atsaldia ba-lego baño. Ez da-ta iñoren irabazpidea aundietsi bear, ikuspen eta atsekaldi asko ba-ditu, edota Idazteunerako antzetsua ba-da, ala goiko okian ipiñita ba-dago. Bai baña, benetako apaldasunean efoak eginda ta Yainko-maitasarez okituta ba-dago; Yainko-aintzaren bila utsik eta osorik beti ba-dabil; bere buruari narda ziñez ba-dagio, ta besteengandiko gorakundez baño, nardaz ta kayoz pozikako-ba-dago.

VIII ATALA

Yainkoaren aurrean

norberaren apalespena.

1. ¿Auts eta geldo naizan auxek, nere Yaunari itz al dagioket? Zerbait geyago naizalakoan ba-nengo, oña nere kaltez yarkiko zintzaket: ta ezin yarki natzayoken aitor ziña nere gaiztakeriak dagite. Baña, nere burua ka-

yotu ta ezereztuko ba-nu, ta neraunen aundiespen dana erauzi, ta autsa naizan-etzkeru, burua austuko ba-nu; nere alde zure eskaña ta nere biotzaren urbil zure argia izango dira; ta goramin dana, danik uriena ere, nere ezereztasunaren lezean murgildu ta bein betiko ilko da. Antxe erakusten didazu zer naizan, zer nintzan eta nora eldu naizan; ezer ez naiz, bada, ta ez nekian. Nere buru uzten ba-naiz, ezertarako ere ez, ta gaxo uts utsik gelditzen naiz; baña bapetan begiratzen ba-nazu, berealaxe zuzpeñtu ta poz beñiz betetzen naiz. Añituta naukazu oñen zartakoan yaso ta oñen zamufki laztantzen nazularik, nere aztaz beti bera noan-añen.

2. Zure maitasafreak ori burutzen du, adei niri dagikidala ainbeste laboritan sorozten eta galbide lañietan zaitzen naula, eta, egi utsa esateko, zenbatu ezin ditezken gaitzetik ateratzen naula. Alabañan, nere burua okeñez maitatzen, nere burua galdu det; baña Zu bakañik bilatzen, bai nere burua, baita Zeori ere epatu ditut, eta, maitasunak naragiala, areago ezereztu naiz. Narokiago nerekin diarduzu, ba, On-

bera O'rek, irabazi nezaken baño, ta itxedon ala eskatu dezakedan baño.

3. Beyun deizula, nere Yauna; ezer-txorik ere a'rtzeko gai ez naizen-a'ren, esku-zabal ta onbera zerala-ta, tairik gabe ari zeralako eska' gaiztoko ta Zuganeik u'run sayesturik dabilztanok sorozten. Zuregana bigu'ri gaitzazu; eska' oneko, apal eta azkutiak izan gaitezten; Zu zera-ta gure osasun, kemen eta sendotasuna.

IX ATALA

Elburua dan Yainkoagana

guziak zuzendu bea' dira.

1. Ene semea, Nerau izan bea' na-tzaizu zure elburu nausi ta gurena, zori ontsua izan zi'nez nai ba-dezu. Asmo aunez garbituko da zeo'fenganton-tz eta izakietarontz maku'rtu oi dan zure lera. Zeo'ren bi'la ba-zabiltza, be-realaxe akitu ta lego'rtzen zera. Beraz, Nigana batez ere guziak a'rtzatu itzazu; oroen emalea Nerau naizalako. Ezer bana On nausiagandik dariola iritzi ezazu; ta argatik dana, bere sorburua bezela, Nigana itzuli bea' da.

2. Txiki-aundiak, landeñ-aberatsak, iturri bizitik bezela, ur bizia Nigandik edaten dute; ta Niganako otseinketan oldez ta gogotik diardutenak, eskañ-ordañez eskaña aítuko dute. Ta Nigandik lekorean iñaraindu ala beretzako onaurkiren batez poztu nai lukena, benetako pozean ez da sendotuko, ezta bere baitan zabalduko ere; bai, osterá, arazo ta kezka-pañastan nasiko da. Onik bat ere ez ezazu zurekotzat uste; iñori ere ez ezayozu zindotasuna ego-tzi; Yainkoari, ordea, guzia erantsiozu; Beragabe iñork pitsik ere ez du-ta. Dana Nik ematen det; dana daukazula nai det; baña eskañ-ordaña zoñozki daskat.

3. Au da añokeria oiltzen duan egia. Goi-eskaña ta maitasun zaña iñorgan sañtu-ezkero, ez dagoke iñartsirik, ez biotz mokoñik, ez norberaren maitakeririk. Dana menderatzen du Yainko-maitasunak, eta gogoaren indañ guziak zabaltzen ditu. Senean ba-zabiltza, Nigan bakañik poztuko, Nigandik bakañik entzinduko zera; on danik ez dagota, Yainkoa baizik. Beraxe danik gorañgariena ta orotan oneskañiada.

X ATALA

Gizakeria nardatu-ezkeru,
 Yainkoaganako
 moñoitza gozoa da.

1. Orain beriz, ene Yauna, itz dagiket, eta ez naiz ixiliko; nere Yainkoaren, nere Yaunaren eta nere Nausigoikoaren belarrietan esango det: ¿zein yoritsu dan, Yauna, zure beldur dirarentzat alzzatu dezun zure eztia! ¿Nolakoa, beraz, izango ote zera maite zaituztenentzat? ¿nolakoa ote moñoiket tan biotz-biotzez ari datzazkizunentzat? Ezin esan diteke zein dan goxo, zure maitatzaileak so egiten dizutenean, eman diezun eztia. Zure maitasare eztitsua bereziki erakutsi didazu, ez nintzanean, egin nazularik; eta Zugandik urun nentzanean, Zugana moñoitzat nerakartzularik, eta Zu maite izateko agindu didazularik.

2. ¿Betiko maitasuna darion iturria! ¿Zer esango aldet Zutzaz? ¿Nola Zutzaz aztu izango naiteke, irotu ta poñkatuta nengolarik ere, nitzaz oroitu nai

izan dezun-ezkero? Uste liteken baño eñukiago zure otseñari izan zatzayo; ta irabazi lezaken baño, adei ta aizkide-tasun aundiago erakutsi dizkiozu. ¿Eskar oñen ordañez ¿zer biguñi al dizazuket? Ez zaye, ba, guziei, oro erautsita, luñekoak asagotzeko ta lekaide-tza leporatzeko aukera ematen. Izaki guziak zure moñoiketan ari beañ dirala, ¿añitzeko ote da, nik ere artan ba-diardut? Ez det aundizat iritzi beañ zure moñoiketan yardutea : gaxo ta doñoña naizan auxe moñoitzat añtu ta zure laz-tanekin biltzeko dagidazun adeya, orixe bai aundi ta añitzekoa da. —

3. Dauzkadan eta zure moñoiketan darabilzkidan guziak, oña zureak dira. Baña, eginbeañak iraulita, ni Zuri baño geyago, Zu niri ari zaitzat moñoiketan. Oña, giza-laguntzarako irazan dituzun ortzi-luñak gerturik daude; ta agindu diezun dana egun oro dagite. Ori ez ezen, gotzonak ere giza-laguntzara malguarazi dituzu. Baña guziok atzera uzten dituzu, gizakiaren moñoa Zeorixe iza teko adeyaz eta berari zeran Orixe emateko abintzaz.

4. ¿Zer al damaizuket oñenbeste emayen ordañez? ¡Nere bizitzako egun guzietan Zuganako moñoitzan ariko ai nintz! ¡Egunbete bakaf baten beintzat zoñ zaizun moñoitza ai nizu eskeñi! Ziñez zoñ zazkizu iñongo moñoitza ta aintza ta betiko goreskundea. Zu zera noski nere Yauna; ta ni, zure moñoitzan leñenak egin eta zure goreskundetan beñere azpertzeko yardun beaf dedan zure otsein kaxkaña naiz. Auxe nai, auxe gogo det; peitu zaidana, Zeoñek ornitu, añen, ezadazu.

5. Gora-goragañi ta aintza biribila dira zure moñoitzan yardutea ta Zugatik oro nardatzea. Eskañ ugari izango dutelako zure mendeko moñoitza deñnean oldez yañiko diranak. Goteungandiko atse goxo-goxua idoroko dute, aragi-atseginkeri oro zure edeñagatik asagotu lituketanak. Gogo-yañreitasun aundia yardetsiko dute zure izenagatik bide ertsian sañtu ta gizañteko ospearen ayola izango ez diranak.

6. Gizakumea yarein eta deuntzen dezun Yañkoaren mendeko moñoitza joñen begiko ta atsegin zeran! ¡Lekai-deñ moñoibide deuna! Zuk gizaku-

mea goizonen idekoa, Yainkoarentzat ibitzalea, txerentzat izugaria, ta zindun guzientzat atoskaria dagizu. ¡Zein zeran laztangari ta gogoangari, Ongoikoa irabazi, ta amaitzeke dirauken poza eskuratzen diguzun moñoitza!

XI ATALA

Biotz-iritsak azteffu

ta ezi beaŕ dira.

1. Ene semea, gauŕdaño ikasi ez dituzunik asko, -engoitik ikasi beaŕ dituzu.

—¿Zeintzuk ote, Yauna?

Zure gura nere naitara osorik yaŕtzen; zure burua maite ez izaten; eta nere nayaren bila ataza biziz ibiltzen. Askotan gurak irazekitzen eta oldaŕez eragiten zaituzte; baña oar ezazu zerk biziago ote zaragian, nere aintzak ala zure onaurkiak. Nik eraginda ba-zabil, pozik zaudeke, gertakizunak atonduko nituken edozela; baña zeoŕenganaiko irits-apuŕ bat zure asmoan kokatzen ba-da, oŕ dezu eragotzi ta toiltzen zaituana.

2. Ayola zaite, ba, Nerekin ituntzeke aítutako gurari geyegi ez itsasteko; ez zaitezen gero garbai ta atsezabe izan, len atsegin zenuan eta obetzat iríkatzen zenuan arakotzaz. Ez zayo-ta berealaxe yaíaitu beaí ona leritzaken edozein lerari; ezta edozein iguñi ere ez zayo lenbait-len igesi beaí. Iríts eta gura onetan ere, elikua noizpait adiñona zai-zu, gogo-baíeikerira leyaz ez etoízeko, iñorik ere, arau-uíatuz, ez galbiderat-zeko; ta iñoren yaíkitzez beingoan laí ta luía yobeáean, ez gelditzeko.

3. Noizpait ere mutiriki ta gizonki irítsei gogoí egin beaí zaye, aragiak zer nai ote duan ala ez duanik oaitzeke; bera gogoaren mendean, engaraz ere, eusten ekiñik. Eta edozertarako ere aragia gertu ta orni uíiz ta baldanez ase legoken-aíteraña, zigoíaka erabili ta yoputzan eutsi beaí da.

XII ATALA

Yasamenaren azkuntza

ta iritsekiko buñuka.

1. Ene Yainko Yauna, dakustanez, yasamen aundia beañ-beaña det; biztal-di aunetan atsekabe asko gertatzen dirala-ta. Nere gentzarakoan edola yardun-añen, guda ta miñik gabe ezin ditekelako nere bizitza.

—Alaxe da, ene semea. Baña ez det nai ziltza ta atsekaberik gabeko gentzaren bila zu ibiltzeko. Ostera ere, askotariko loñez azi ta naigabe askotan ari izanda gero, benetako gentza idoro dezulakoan zaudeke.

2. Askorik ezin yasan dituzula ba-zenesa, ¿garbitokiko sua nola yasan alko dezu? Bi gaitzetako baten beañez, txikiena beti aukeratu beañ da. Ekin, ba, oraingo nekeak gibel aundiz yasaten, geroko oñaze betikoak zugandik urutiratzeko. ¿Gizakeritan ari diranak gutxi ala ezer ere ez dutela yasaten uste al dezu? Ez dezu alakorik yañugiko, gurikien bizi diranak ere arakatu-añen.

—Baña atsegiñak parastan dauzkate, la norberaren naitara dabilta; ta, añezkero beren loñak gutxi oartzen dituzte.

3. Ala dala demagun; nai aña beukate: ¿noizarte irautekoak guziok al deritzazkizu? Kea bezela, adelatuko dira garatzazal oñek; eta beñolako pozunen oroirik ez da geldituko. Bizi diranean ere, ez dira oñelakoetan samiñik, iguñik eta belduñik gabe atseden. Atsea datoñkien artatikantxe, saritan min-nekea ere artzen dutelako. Bidez ori gertatzen zaye; atse-bila ta ondoan okér dabiltzan ezkero, lotsa ta samiñik gabe ez dezaten burutu.

4. ¡Zeñen labuñ, zeñen izun, zeñen okér ta zantañ diran atseginkeri oro! Ayek, baña, ordi ta itxu dirala-ta, ez dute oartzen; aitzitik ere, sengabeko abereak bezelaxe, bizitza ustelgañiaren atsegin uñiagatik, gogoaren eriotzara yotzen dute. Zu, ordea, ene seme ori, zure irits-ondoren ez zoaz, ta zure naitik aldera egizu. Yauna ezazu atseginizat; eta zure biotzak leskakena eman-go dizu.

5. Ziñez atse ta Nik poztuago izan

nai ba-dezu, luŕeko guziak nardaturik eta atseginkeri oro iñausirik, zure siratsa didorokezu, ta atse ugari emango zaizu. Ta izakitiko atse oro asagotuko zenituken giño artan, Nigan atse xamufago ta azkaragoak ere aurkituko dituzu. Baña askaldian ez zera ayetara elduko, atsekabe ta bufuka-nekerik gabe. Ekandu zaña yaŕkiko da; baña ekandu obeak azpiratuko du. Saŕamuskan aragia ibiliko da; baña gogo-gaŕak eziko du. Azpaldiko sugeak aizkatu ta gaŕaztuko zaitut; baña otoyak oilduko dn; ta lan adiñonez ataka guziak itxiko zazkio.

XIII ATALA

Yosu-Kisto'ren eduko men apala.

1. Mendik aldegiten ari danak, eskaŕetik ere aldegiten du; ta beretzako bereziak euki nai ditunak, guzienak galtzen ditu. Bere nausiari iñor ezpazayo berez ta oldez azpiratzen, aren aragia ziero ezita oraindik ez dagola, ta saŕamuskan eta ostikoka ari zayola nabari da. Burua, beraz, nausiari agudo azpiratzen ikasi ezazu, zure aragia

ezi nai ba-dezu. Lastefago, ba, atetiko etsaya azpiratzen da, giza-bařnea andegaturik ezpa-dago. Ez dago gogoarentzat etsai mutiriagorik, ez gaiztoagorik, zeorixe bařno, gogoarekin ezpa-zera bat etořtzen. Zeořen narda ziņa beař beařa dezu, aragi ta odolaren aitzin garaitu nai ba-dezu. Zure burua okeřegi maite dezulako, beste iņoren nayari alki izateko ikara zera.

2. Bařa izer ote da ařitzekorik, auts eta deus ere ez zeran ori, Yainkoaren edeřagatik giza-azpian yařtzen bazera; dana ezereztatik atera dedan alorodun eta goi-goikoa naizan Auxe, zuregatik apalki menbekotu naizan-ezkero? Ororik apalen eta txikiena egin naiz, nere apaldasunez yure ařokeria ezi zenezan. Men egiten ikasi ezazu, auts ořek. Luř ta loya zeran ořek, apal izaten, eta oroen oinpean makuřtzen ikasi ezazu. Ikasi ere zure naya autsen eta iņongo mendean yarduten.

3. Zeořenganako aseře zaite; ez ezazu anduřerik zugan yasan; azpiko ta txikitzat, ostera. ageri zaite, zuregain guziak ibili ditezken eta zeyako loya bezela, guziak lardakatu zaitzake-

ten. ¿Zeren espaz al zabilta, gizaxo ori? ¿Zer yardukt al dizayekezu zure iraintzaleei, Yainkoa ainbestetan iraindu, ta betiko nekea askotan irabazi dezun obendi zantaf orek? Baña zure gogoa nere begikoa dalako, azketsi zaitu nere begiak, nere maitasarea dezauzun, eta nere emayekiko eskaf onekoa izan zaitezzen; baita ere, benetakoa mendo ta apala beti izan zaitezzen eta legizuteken narda egonafiz egari dezazun.

XIV ATALA

**Yainkoaren epai ostenaak gogaldu
beaf dira,
ondo dagigunetan ez arotzeko.**

1. Zure epayak nere gatn bufunbarazten dituzu, Yauna; ta ezuf guziak beldufrez ta ikaraz dardarazten dizkidazu; eta izu laboñian nere gogoa da. Afituta nago, ortzia bera zure begitan garbia ez dala gogaldurik. Gotutsengan gaizkeria aufkitu ba-zenuan, eta ezpa-zenituan azketsi, ¿nitzaz zer izango ote da? Ortzitik izañak yalgi ziran; autsa naizan au ¿zertarako ote naiza-

lakoan nagoke? Yardunbide goreskafian ibiltzen ziruditenak bera baño berago erori ziran; eta gotzenen ogia yaten zutenak txerri ezkuñez pozten ikusi ditut.

2. Ez dago beraz, deunbiderik, zure eskua. Yauna, atzeratzen ba-dezu Sen adiñonik ez dago, artezkiña Zuk uzten ba-dezu. Ezertarako ere indarik ez dago, Zuk ezpa-dezu irozotzen. Garbitasun sendorik ez dago, zure babesean baizik. Norberaren zaitzerik ez dago, aurkian ezpa-da zure sorozkundera gurena. Uzten ba-gaituzu, murgildu ta itotzen gera; baño alderatzen zaitzaiguneko, yeiki ta bizitzen gera. Koloa gerade-ta; baño Zuk gotortzen gaituzu; epeltzen gera, baño Zuk irazekitzen gaituzu.

3. ¡Zein apaltzat, zein purtziltzat nere buru au iritzi bear dedan! ¡Zein ezerez aintzakotzat etsi bear dedan, nigan on deritzadanik edozer! ¡Zure epai-lezean, Yauna, zein barnera kapen egin bear dedan, uts-utsa baizik ezer ez naizela bertan ikusirik. ¡Au azta neurigabekoa! ¡Au itxaso iragan eziña! ¡neraunen ezerez utsa baizik,

agertzen ez didan itxasoa! ¿Non ote dago, beraz, afokeriarentzako zirkilurik? ¿Non al dagoke norberaren zindotasunetik sortutako entzinmenik? Andipuzkeri dana ito zait nitzaz ebazten dezunaren zingoan.

4. ¿Zer al dira zure begitan bizi diran oro? ¿Loya ilařaindu ote diteke bere eraltzalearen aurkez? ¿Biotza Yainkoaren azpian eusten dana, erausi utsetaz nola puztu ote diteke? Egiak beretzat menderatu zuana, ez du ludi osoak eraikiko; ta Yainkoagan uste osoa ipiñi zuana, ez dute ao zuri guziak kordokatuko, Ao zuriok deusik ez diralako; ta beren itz-otsarekin batean suntsituko dira; Yaunaren Egiak, beriz, betidañokoan dirau.

XV ATALA

Nola yardun eta mintzo beař dan gura liteken edozertan.

1. Ene semea, edozertan ere esazu; Jauna, zure aintzarako ba-litz, zure ize-nean egin bedi au. Yauna, neretzat au egoki ta adiñona ba-deritzazu, - zure

aintzarako erabiltzen indazu. Baña neretzat kaltetsu, ta nere gogoaren osasunderako adiñona ez dala ba-dazauzu, arako gura ken ezadazu. Ez da Goteungandik etoñia edozelako gura, zuzen eta zindoa giza-iritziz izan-añen. Zaña bai-da, au edo ori opa izateko, gogo onak, ala txarñak, ala zure gogo oñexek ote zaragian egitan iritzea. Gogo onak lenbizian igituta ziruditen lagun asko, azkenean atzipetu ziran.

2. Argatik, Yainkoaren belduñez ta biotz apalez gura ta eskatu beañ, gogo ari otu zayon guragañi edozer; eta batez ere Niri alki izanik, guzia egotzi beañ zait esanaz; Yauna, Zeoñek bai-dakiku obeki zela dan; au edo ori, atsegiñena zenukenez, egin bedi. Nai dezuna, nai dezun aña, ta nai dezunean, indazu. Dakizunez, atsegiñena eta aintzatsuena zenukenez, nerekin yardun. Nai dezun artan ipiñi, ta zure oldez edozertan erabili nazazu. Zure eskuan nago; irauli ta beñibildu nazazu. Oña nagokizu otsein au, guzietarako gerturik; neretzat ez det bizi nai. Zuretzat, bai; ta, ai-litz egoki ta zindoki!

Yainkoaren naya egiteko otoya.

3. Zure eskaña indazu, Yosu onbera, nerekin lan egin eta nigan iraun dezan. Gura ta nai-erazi ezadazu danik obetsiena ta laztan-begikoena dezuna. Zure naya nerea bedi, ta nere naya zureari beti beñayo ta osorik alkl bekio. Nai ta nairik-eza berberak bekizkit, ta ez bitez nigan beste nai ala nairik-eza, zure nai eta nairik-eza baizik.

4. Luñeko oroentzat ilik, eta zure maitasunagatik ezetsi ta azturik egoteko gura indazu. Guragañi oroetan baño geyago, Zugan atsedetea, ta biotza Zugan naretzea inzkidazu. Benetako biotzgentza, ta atsedea bakaña Zu zera; Zu gabe guziak gogoñ ta urduriak dira.

Gentzaz Beraxekin, alegia, betiko Ongoikoarekin lotan atsedengo naiz.

XVI ATALA

Benetako pozaren biñ

Yainkoagana bakañik

yoan beañ da.

1. Nere atsegintzat gura ala asmatu dezakedan edozer, emen iritxiko deda-

lakoan ez nago, gerokoan baño. Luferko poz oro nik bakarik ba-neuzka, ta atsegin orotaz poztu ba-nintz ere, guziok ezin lezaketete, noski, luzaro iraun. Argatik, ene gogoa, osorik ezin poztu, ez pizkoitu zaiteke, landerren pozkile ta apalen atoslea dan Yainkoagan baizik. Pixkat itxoizu; ta ortzian garatzazal izango zera. Oraingoxeok okelegi irikatzen ba-dituzu, betiko ta goikoak galduko dituzu. Oraingoak erabili, baña betikoak gura itzazu. Inongo on suntsikoerez ezin ase zaiteke; ez zera-ta irazan orelakoetaz poz izatekoa.

2. Irazandako on oro ba-zeneuzka ere, atsegin eta pozik ezin zeundeke; guziak irazan dituan Yainkoagan, oster, zure atsegin ta zori on osoa datza. Ez noski, gizakerikoi tentelak zori ontzat etsi ta goresten dutenaren edukoa; bai ordea, goikoetan diarduten histaf zindoak ditxorotenaren edukoa. Uts ta laburra da gizagandiko poz dana. Zori ontsu ta benetakoa, beriz, da barnean somatzen dan egi-poz. Azkutiak berekin bere pozkile Yosu edonon darama, ta dasayo; nere aldean zagokit, Yosu Yauna, edonon ta beti. Auxe bedi nere

atsea; giza atserik-eza gogotik nai izatea. Ta Zugandiko atsea peitu ba-zait, pozik aundientzat bekizkit zure naya ta zure ikerkundera. Ez zera, ba, betidaño-koan asefe izango, ezta betidaño-koan zematuko ere.

XVII ATALA

Ayola dana Yainkoagan ezañi beañ da.

1. Ene semea. utzi nazazu nai dedana zutzaz egiten: Nik bai-dakit zer zaizun adiñona. Giza-zuñian asmatzen zera; giza-lerak zaragianez, askotan dira zure iritziak.

—Yauna, egia da dasazuna; nere alde ayolago diarduzu, neraunek yardun dezakedan baño. Erori agi agian dago, bere ayola dana egozten ez dizuna. Yauna, nere nayak Zugan zuzen ta sendorik iraun-ezkero, atsegin zenukena nitzaz egizu. Ona baizik ezln diteke-ta atsegin zenukena.

2. Iluntan ni egotea nai ba-dezu, onetsia zaite; ta argitan ni egotea nai ba-dezu, berebat onetsia zaite. Pozteko

adeya egiten ba-didazu, onetsia zaite; ta atsekabetu nai ba-nazu, onetsia ere beti izan zaite.

—Ene semea, oñela izan beař zera, Nerekin ibili nai ba-dezu. Atserako bezain gerturik, neketarako ere egon beař zera. Landeř ta txiroa, edota ase ta aberatsa olde berberaz izan beař zera.

—Yauna, gogotik yasango det zure edeřagatik, zure naya dalarik, letořki-dan edozer. Gogo orobatez zure esku-tik ařtu nai ditut ona ta gaitza, gozoa ta gařatza, atsegiña ta ertuna; ta gerta litzazkidaken oroengatik eskař-ordaña Zuri itzuli. Oben guzitik zai nazazu, ta ez naiz izango eriotzaren, ez betiko ne-kearen ere, belduřik. Ez baldin ba-nin-duzu Zuregandik bein betiko yaurti ta bizitza-idaztitik ezabatuko, letořkike-dan iñongo lořek ere ez dit kalterik egingo.

XVIII ATALA

Biztaldiko nekeak,

Kisto'ren eduz, gogo onez yasan
bea' dira.

1. Ene semea, zure osabiderako ortzitik yetxi nintzan: ez alabea'ak, maitasa'ak, o'atera, bai - nenka'ela, zure andega neretzakotu nuan; yasaten ikasi zenezan, eta biztaldiko nekeak ase'fe izateke egari ziñitzan. Yayo -ordutik gurutzean il-a'ftera'ño'koan, miña yasateke ez naiz egon. Biztaldirako onau'kirik asko peitu zitzazkidan; nitzaz esparik asko maiz entzun nituan; oparien orda'ñez eska'rgaitza; alazen orda'ñez biraoak, irakaspene' orda'ñez aka'ak bildu nituan.

2. Yauna, zure bizitzan yasanbera izan zera'n-ezkero, o'rtan bereziki zure Aitaren agindua betetzen zenualarik; bide ta zuzen da, obendi gaxo aunek, zure oldearen arauz, burua emeki yasatea, ta bizitza ustelko'aren zama, nai izango zenuken a'ftean, burua gaizkatzeko eramatea. Aztuna o'a'ftzen

ba-da 'ere oraingo bizitza; guziz irabazkoña, ta zure ereduz ta zure deunen aztañnaz gaxoentzat eramangañi ta argitsuago zure eskañak egin du. Baita atsegintsua, noski, da ere, beñola zan baño, Antziñeko Aginbidean, ortzi-atea itxirik zegonean, ta ortzirako bidea ilunago agertzen zanean, eta ortzeñira leyatzen ziranik ain gutxi ziranen. Orduko zuzen eta gaizkatu izatekoak berak, ortzean ezin sartu zitezken, zure oñaze ta eriotza baño len.

3. ¡Zenbat eskañ zoñ dizkizudan, zure yaureñirako bide zuzen eta ona niri ta zindun guziei erakutsi nai diguzulako! Zure bizitza gure bidea dalako; ta yasan-olde deunaz gure saria zeran Zugana goaz. Gure auñelari ta irakasletzat ezpa-zindugu izango, ¿nor izango al litzake yañaitzeko ayola? ¡Amai-ka urutian ta atzean geratuko lirake, zure eredu bikañak ezpa-lituzte ikusiko! Zure ainbeste alatz eta irakaspentzunda ere, epeltzen geranok, zer egingo ote genuke, Zuri gañaitzeko oñenbesteko argirik ezpa-geneuka?

XIX ATALA

Irañen yasapena; ta yasanbera
ziña nor nabari dan.

1. ¿Zer al dasazu, ene semea? ¡Urtikan espa oyek, nere ta beste deunen nekeak gogaldurik! Odolketaraño ez dezu oraindik gogoñ egin. Gutxi da yasaten dezuna, batzuek ainbeste yasan zutenaren aldean, ain gogoñki ziltzatu, ain gaizki lañitu, ainbesteko eraz eragin eta añagotu izan ziralarik. Besteent neke lañigoak gogaldu beañ ditzuzu, zure ariñagoak eñazago eraman ditzazun. Ta axit ezpa-deritzazkizu, begira, sakeñe zeralako edo, ori gertatzen ote zaizunetz. Baña txikiak naiz aundiak diralarik ere, guziak egonañiz yasaten ekin.

2. Yasateko gerturikago yañtzen zeran aña, senazago ere diarduzu, ta geyago ere irabazten dezu; ta gañera, adorez ta atiñez yasateko gerturik egon-ezkero, yasatea bera arinduko zaizu. Ez esan; urliagandik ofelakorik ezin yasan det; ofelakorik ez det nik yasan beañ; kalte goñi egin dida-

lako, ta iñoiz ere asmatu ez nituanak egozten dizkidalako; beste iñorengandik, osterá, pozik eta yasan bea' deritzakedanez, yasango bai-det. Asmake-ri utsa dezu ori; yasamenak zer das-kan, eta nork saria damayokenik ez ditualako oá'tzen; batez ere, osterá, irañak eta iraintza'leak aztantzen dituala.

3. Yasati ziña ez da, berak deritzan aña ta berak nai duan argandik baizik, yasan nai ez duana. Benetako yasati-ak ez du begiratzen yasanbea'ez nork ya'tzen ote duanik, nagusiak ala ide-koak, naiz menbekoak, onak ala gaiz-toak. Baña iñongo izakitik edonoiz leto'rkion edozelako naigabea, Yainko-aren eskutik eska' onez guzi ori a'tzen du, ta irabazi aunditzat deritza. Iraba-zirik gabe ezin gelditu diteke-ta ezer ere, axit izan-a'en, baldin Yainkoaren ede'ragatik yasaten ba-da.

4. Bu'fukarako gerturik, beraz, zau-de, garaikundea yardetsi nai ba-dezu. Bu'fukarik gabe yasan-sarira ezin eldu zaiteke. Ezpa-dezu yasan nai, saria zapuzten dezu. Baña saria gura ba-de-zu, gizonki bu'fukatu, ta egona'riz yasan

ezazu. Atsedenerabo biderik ez dago nekerik gabe; ezta garaibiderik ere bufukarik gabe. Eziña nere indañez deritzadana, eskañez egingaia bekit, ene Yauna. Bai-dakizu gutxitxo yasan dezakedala, ta neke txikiren bat yeiki-ekero, berealaxe beera noala. Guragañi ta maitagañitzat biguñi bekit zure izenagatik edozelago loñetan ari izatea; zuregatik neke ta atsekabeak yasatea nere gogoari guziz osakoña zaidalako.

XX ATALA

Norberaren andega - aitoña, ta biztaldi aunetako nekeak.

1. Nere okerñbidea nere aitzia aitoñtuko det; nere ergalkeria aitoñtuko dizut, ene Yauna. Kiziren bat maiz da ñukutu ta goibeltzen nauna. Azkañki yarduteko asmoa añtzen det; baña ziltza uxiren bat datoñkidaneko, lañi goñitan asten naiz. Noizpait ere kizi txatxaña da ziltza laña soñtzen didana. Ta ezer ez dedalako oañtzen, eskieñ xamañ nagola uste dedanean, uzkañi-agian noizpait iñongo atsak yañtzen nau.

2. Begira itzazu, ene Yaun Ofeke, nere txikitasuna ta ziero dazauzun andega. Eruki zatzakit, eta lokatzatik atera nazazu, ez nadin antxe itsatsi, ezta betidaño etzanda geratu. Oren labankor, eta giriñei yañkitzeko oren ergal naizala-ta, maiz zipeñtagian ta lotsa zure aurrean naiz. Eta bayetzaraño ezpa-narakañtenean ere, nekagañi ta aztuna zait ayen erasokuntza, ta ofela egunoro bizibeña iguin-iguin det. Iru-dipen nazkagañiak aldegiten baño, eñaz-eñazago erasoten zazkidala-ta, nere ergaltasuna nabari zait.

3. Begira, añen, itzazu zure otseñaren neke ta miña, gogo zindoen zaitzañlea zeran Israel'en Yainko azkaña, ta bere ekite guzietan lagun zatozkio. Goi-indañez sendotu nazazu, gizaki zaña, edo gogoari ziero ezita oraindik ez dagokion aragi zantaña ez dedin garai izan : oren aitzu buñukatu beña da, biztaldi gaxo aunetan asnas añzen danañtean. ¡Auxe bizibeña, loñ ta andega peitu ez zazkiona, txederaz ta etsayez edonondikan betea! Atsekabe ala ziltza bat yoan-orduko, beste bat datoñ; eta lengo buñukak oraindik diruala,

bestetzuek parastan ta ustekabe datořz.

4. ¿Nola maite izan al diteke ainbeste saminez betetako, ta ainbeste nairgabe ta nekepean yařitako bizitza? ¿Bizitza-izena nola ote du, ainbeste eriotz ta izuři darizkiona? Ta ala ere maite oi da, ta atsegintzat askok bera nai dute. Gizařtekeria gezuři ta utsa dala-ta, muřunga asko dabilta; baņa ez oi da eřaz utzi, aragi-iřitsak gordiņegiak diralako. Baņa gizařtekeria maitatzera zerbaitek ba-garakař, iguintzera ere beste zerbaitek garakař. Maitatzera garakařte aragi-iřitsak, begi-iřitsak eta bizitzaren ařokeriak; ostera, baņa, oyen ondoren, beař bezela, datozkigun atsekabe ta kalteak arekiko gořoto ta naga sařtzen dituzte.

5. Ala ta ere řau miņa!gizakeriari lotutako gogoa atseginkeriak azpiratzen du; ta alako gogoak lařpean egoitea atsegintzat deritza; ez ditualako ikusi, ez murtxatu Yainkoaren ezta ta bizi zindoaren mami goxoa. Ostera ere, gizařtekeria ziero nardatzen, eta araubide deunean Yainkoarentzat bizitzen ekiten dutenak, abek gizařtekeria asagotzen dutenei abindutako Yainko-ezta

dazaute, ta gizakeria zein okef ta bide-
katurik dabilan, argiago dakuste.

XXI ATALA

**Onaurki ta emai guzien gañetik,
Yainkoagan atsededen beaf da.**

1. Oroetan ta oroen gañez Yainko-
agan beti atsededen zaite, ene gogo ori;
Beraxe dalako atsededen betikoa. Ene
Yosu goxo ta maitatzalea, Zugan atse-
dena indazu, izaki oroen gañez; iñongo
osasun ta edertasunaren gañez; iñongo
ospe ta deduaren gañez; iñongo al ta
eskubidearen gañez; iñongo yakite ta
adin zoñotzaren gañez; aberaski ta an-
tze oroen gañez; poz ta atse oroen ga-
ñez; omen ta goralben oroen gañez;
itxarokizun eta eskein oroen gañez;
irabazi ta gura oroen gañez; Eman eta
ixuri ditzakezun opari ta emai oroen
gañez; gogoak eden ta somatu ditzaken
poz ta atse oroen gañez; ta azkenean,
gotzon ta gotzonburu oroen gañez, ta
ortziko samalda oroen gañez; agiri
diran eta ez diran oroen gañez; ta Zu,
ene Yainkoa, ez danik edozeren gañez.

2. Zu, ene Yainko Yauna, danik onena zera; Zu bakarik, danik goyena, Zu bakarik, altsuena; Zu bakarik goxo ta atsegiñena, Zu bakarik edera baño edera goa ta maitatzaierik biziena; Zu bakarik, danik guren eta aintzatsuena; Zugan akatsik gabe bilduta on guziak euki, eukitzen eta eukiko dituzula. Argatik gutxi ta ufi da, Zeori kenduta, damaidazun edozer, ta Zutzaz adirazi ala abintzen didazun edozer, Zu ikusi ta osorik ifitxia izan-ezik.

3. Ene ezkon laztan-lasztana, maitale garbi-garbia, izaki oroen nagusia zeran Yosu-Kisto; ¿benetako azkatasunaren egak norik emango al dizkit, Zugana egotzeko ta Zugan kokatzeko? ¿Noiz al nagoke opor-oporik, ene Yainko Yauna, zein zeran goxo begiratzen ari izateko? ¿Naizan au osorik Zugan noiz bilduko al dezaket, Zuganako maitasarez nerau oartzeke, ta guziak ez dakitenez, Zu bakarik, somabide ta neufi oroen gañez oarturik? Orain, ordea, asperenez nago safi; ta nere zori txafa nekez daramat. Negaf-ibar aunetan gaitzik asko gertatzen diralako, lafi, goibel ta lauso

naukatela, ta askotan eragotzi, bañe-yatu, atotsi ta bilurkatzen nautela, Zuganako bide zabalik ez dezadan, eta gogo zori ontsuak beti aukeran duten zure laztan zoragariz ez nadin poztu. Samuritu bezaitzate, añen, nere asgorapenak eta lurreko negar aundiak.

4. Betiko aintzaren argia, ta atzeñiko gogoaren poza zeran, ene Yosu; otsik gabe Zure aurrean dago nere aboa, ta ixiltze orixe mintzo zaizu. ¿Noizarte etortzen berandu al da nere Yauna? Bere gizaso aunengana betor, ta poztu benaza. Bere eskua edatu beza, ta gaxo au inongo kezkatik atera benaza. Zatoz, zatoz; ezin dagoke-ta Zu gaberik ez egun ez ordu atsegin-tsurik; Zu zera-ta nere poza; ta Zu gabe nere maya utsik dago. Gaxoa naiz, eta nolarebait giltzapean eta oinbilurez atzituta nago, zure aurpegiaren argiz zuzperitu ta yarei egingo nazun arte, ta aizkide-begiok erakutsiko dizkidazun-arte.

5. Nai luketena Zure ordez besteak bila bezate; nik, ordea, beste atsegiñik ez det, ezta ere izango det, nere Yainkoa, nere itxarokuntza ta betiko

osasuna zerrn Ori baizik. Ez naiz ixilik; otoi-otsik ez det utziko, zure eskaña nigana itzuli-arte, ta barnez mintzatuko zatzaidan-arte.

—Emen nagokizu, dei egin didazu-ta. Zure malkoak, zure gogoaren iskiak, zure apaldasun eta biotzeko garbayak zugana biguri ta ekañi naute.

6. Ta esan det; Yauna, deitu zaitut, eta Zutaz poztu nai izan det, Zuregatik oro asagotzeko gerturik. Zeorék aurrenean zirikatu nazu, zure bila ibili nendin. Onetsia, beraz, zaite, Yauna, zure otseñari adei ori egin didazulako, zure eruki yoriak zaragiala. ¿Zer ote du aunezkero zure otseñak zure aurrean esatekorik, burua apal-apaldu baño, bere gaiztakeri ta txatxañkeria beti oroiturik? Ez dago-ta zure antzekorik, ortzi ta lufeko añañari diran guzietan ere Zure egiñak on onak dira; zure ebaskunak zuzenak, eta dana zure sorozpenak artezten du. Beraz, Aitaren yakitea zeran Ori aintza ta goreskuna biyoazkizu; nere aboak, nere gogoak eta nerekin izaki guziak ere goraldtu ta onetsi bezaitzate.

XXII ATALA

Yainkoagandik ařtutako
onaufkien oroipena.

1. Yauna, zure agintzari nere biotza zabaldu ezayozu; ta zure aginbidean ibiltzen irakasi ezadazu. Iragari ezadazu zure naya; ta zure emayak itzal aundiz ta gogalben bizkořez banaka ta moitzoka ere gomutara zazkidazu, eskař-ordaña gauřdanik, beař danez, itzuli dizaizukedan. Ziñez dakit eta aitortzen det, zure emairik txikienari ere dagozkion goralben ta eskařak ezin ordaindu ditzaizkizukedala. Egin dizkidazun emai oro baño txikiagoa naiz, ta zure esku zabala begiratzen dedanean, ořenbestekoa ikusirik, ñukutzen da nere gogoia.

2. Bai soñean, bai gogoan ditugun guziak, eta geronez ala eskarez barñetik ala azaletik dauzkagun guziak, zure emayak dira, ta esku-zabal, biotzbera ta ontzat zarakuste, on dana Zugandik ařtu degu-ta. Batek geyago ta bestek gutxiago ařtu ba-du ere, dana zurea da, ta Zu gabe lipitsik ere ezin

euki diteke. Geyago aítu duana ezin aítu diteke, irabazi dualakoan, ezta beste inor baño gorago yeiki, ezta gutxiago aítu duanari ñakarik ezin egin dizayoke; norberari gutxienik egozten diona, ta eskaít egiten apalago ta azkutsuago dana, auxe aundiago ta obea dalako. Ta norbera gizarik txatxaíen ta dolóíena deritzana, emai aundiagoak aítzeko egokiago da.

3. Ostera ere, gutxiago aítu duana, ez da goibeldu beaít, ez aseíe izan, ezta aberatsagoren inartsi ere; bai baño, zure zai egon, eta zure biotz bera goratu beaít du; zure emayak, inorik bereizteke, baíeyatzen dituzulako ain eíuz, uíuz ta oldez. Zugandik oro datoítz; argatik orotan ere goretsi beaít zera. Zuk bai-dakizu bakoitzari zer eman beaít zayon; ta urliak gutxiago ta berendiak geyago zergatik duten, ez da gure auzia, zurea baño; bakoitzaren irabazkiak zeatz dazauzkizulako.

4. Oíegatik, ene Yainko Yauna, opari aundizat deritzat, giza-iritziz dedu ta aintza azaletik agertzen dituan askorik ez eukitzea; nor bera zein dan landeít ta kaxkaít inork gogaldurik, ase-

řetu, ala goibeldu, ala ñukutu-beařean, areago atse ta pozetara yo dezantzat; zure elaide ta etxekotzat landeřak, apalak eta gizaureko purtzilak autu dituzulako. Ziñaldariak ditugu, ludi osoaren nagusi izatekoak yaři dituzun zure bidaliak. Alegia, gizařtean eřesumiñik gabe yardun zuten; zure izenagatik irañak yasan, eta gizabařak gořoto oi dituztenak ere gogo-gogotik laztandu zituzten: ĵain ziran apal ta xaloak, mařukeri ta gaiztakeri-gabekoak!

5. Beraz, maite zaituanari ta Zugandiko onaurkiak dazauzkianari, zure naya egitea ta zure erabaki betikoa onizat ařtzea bezain pozkařitzat, ezer ere ez zayo beař izan. Ořez atse ta poztu beař da; iñork garayena izan nai luke bezain gogotik, berak txikiena izan nairik ere. Berebat, azkeneko leřoan, auřenekoan bezain pozik eta narerik egon beař da; ta gizarik aintzagarien eta aundiena izango litzaken bezain oldez, izan beař da ere nardagarı ta txatxařa, ta ospe-entzuterik gabe. Danik auřenekoak izan beař diralako zure naya ta zure aintzarako iskia; ta iñori eman edo emango zaz-

kion edozelako onaurkiak baño geyago, ayek atse ta poztu beař dute.

XXIII ATALA

Gentza aundia darakařten lau bide.

1. Ene semea, gentza ta yareitasun ziřerako bidea orain irakasiko dizut.

—Diozuna egizu, Yauna; pozik entzungo det ori-ta.

—Ekin ezazu, ene semea, beste iřoren naya, zurea baño leyazago egiten. Orni yori baño, uřia obetsi ezazu. Be-ko aldean beti ta oroen mendean egoten ekin. Yainkoaren naya beti zugar ziero bete dedila, gura ta galde ezazu. Ořela dabilena gentza ta atsedemugetan sařten bai-da.

2. Yauna, zure itzaldi labuř auxez zindotasun ugariz izořa da. Itzez labuřa da; baņa adibidez okitu ta zituz kuxuřua. Zindoki bete ba-neza, ez litzaiket ain eřaz lařirik sořtu beař. Artega ta toildurik nagon bakoitzean, irakaspide aunetatik sayestu naizala oařten det. Baņa dana dezakezun, eta gogo-

ren auferapena beti nai dezun Ořek, eskar aundiago geitu ezadazu, zure itzok bete, ta nere gaizkapena burutu ditzakedan.

Oldozkun txafei yařkitzeko ořoya.

3. Ene Yainko Yauna, ez zatzakit uřundu; ene Yauna, nere lagun zatokit; askotariko oldozkunak yařki zazkidalako, atsekabetzen nautela. ¿Akařsik gabe nola igaroko al naiz? ¿nola pořokatuko al ditut?

—Ni zure auřetik yoango naiz-dio Yaunak, -eta luřeko aundi maundiak nik beratuko ditut. Ekerako ateak iriki-ko, ta zadořak ageriko dizkizut.

—Diozunez, Yauna, egizu; ta zure auřetik oldozkun okeř guziak iges egin bezate. Nere itxarobide ta atse bakařa auxe da; loř guzietan zure magalpera yotea, Zugan uste ona ipintzea, ta ego-nařiz zugandiko atsearen zai egotea,

Adimenaren argikuntzarako ořoya.

4. Bařneko argi-ziřintaz argi nazazu, Yosu ona; ta nere biotz-bařnetik ilundi oro iraitzi itzazu. Bařeyakeri sařitsuak eragotzi zazkidazu, ta ertsatzen

nauten ziltzak erayo itzazu. Gogoŕki liskaŕtu nere alde; ta piztizaŕak diran iŕits okeŕak iŕaŕotsi; zure indaŕez gentza etoŕi dedin, eta yauregi deuna dan biotz garbian zure goralbenak eŕuz ozendu ditezen. Aize ta ekaitzari agindu ezayezu; itxasoari esayozu «geldi adi», ta ipaŕ-aizeari «atsik ez egin», eta ateaŕaldi ezŕitsua dagoke.

5. Luŕgaŕnean argi egin dezaten, zure argi ta egia bidali itzazu; luŕ soil utsa naiz-eta, argituko nazun-aŕte. Eskakaŕa goitik ixuri ezadazu; ortzi-intzez nere biotza busti ezazu; luŕ-azala mordintzeko azku-ura indazu; zitu ugari ta bikaŕa ekaŕi dezadan. Oben-zamaz zapatutako gogoa itoi egidazu, ta nere gura goikoetara eraiki ezazu; luŕeko asmakeriak nakaitz datzaizkidan, goiko zori onez aogozatu-ezkero.

6. Ken eta atera nazazu izaki-taŕteko atse iragankoŕ guzitik; irazaki bat ere ez dago, gogoa osorik ase ta poztu dizadakenik. Azkatu ezin liteken maitasun-bilueŕez Zeoŕi lotu nazaizu; maitaearentzat naikoa Zu bakaŕik zeralako; ta guziak, Zu gabe, lipitsak dira.

XXIV ATALA

**Urkoaren jardunbidean garazan
ibiltzetiz igesi beař.**

1. Ene semea, yakinmiñez ta alpeřikako ayolaz ez zabilta. Ori naiz ura dala-ta ¿zer ote zaizu? Zafaikit. Urlia alakoa naiz bestelakoa dala; berendiak ori naiz ura egin edo esaten ba-du, ¿zer ote zaizu? Iñoren ordeez erantzun-beařik ez dezu; zeořentzaz, baña, iñar-detsi beařko bai-dezu. ¿Zertako, ba, naspilok? Guziak Nik dazauzkit, eta eguzkipean gertatzen dana bai-dakust; eta bai-dakit nolakoa nor dan, zer nork asmatzen, zer nai duan, eta bere xede-ak zertara yotzen duan. Niri, beraz, guziak utzi bear zazkit, ta zu gentza erosoan gēldi zaite, ta nai aña artega-tzen artegazalea laga. Esan edo egingo lukenak edozer, bere lepora datoř-kioke; ezin atzipetu nau ta.

2. Itzal aundiko izenaren ayola ez zaite; askoren nabastařearen, edo iñoren maitasun bereziaren ezta ere. Biotza bařeyatzeko ta iluntzekoak ořelako-ek diralako. Pozik itz egingo nizuke,

ta zadoñak erakutsiko nizekizuke, nere etoñkundearen zai ba-zeunde, ta biotz-atea irikiko ba-ziñit. Ernai zaude ta otoiketari atzari, ta orotan apalik.

XXV ATALA

Biotz-gentza sendoa ta benetako auferakuntza zertan datzaten.

1. Ene semea; Nik esan det; gentza uzten dizuet; nere gentza damaizuet; ta ez damaizuet, gizakiak eman oi duanez. Gentza orok nai dute; baña gentzari dagokionaren ez dira oro ayola. Apal eta biotz-otzanentzat da nere gentza. Zure gentza yasamen aundian dago. Ba-nantzuzu ta nere deyari ba-darayozu, gentza yoriz poztu alko zaiteke.

—¿Zer egingo ote det, ba, Yauna?

—Edozertan ernai zaude, zer ote dasazunik; eta zure asmo osoa auxe bedi; Niretzat bakañik atsegin izateko, ta Ni baizik, ezere ez gura ez bila ibiltzeko. Berebat, iñoren esan-egiñak ez itzazu bidegabekoz iritzi; ta zure bizkañ ez diran garatzetan ez zaite nasi; ofela gutxi ala bakanetan asaldu alko zaiteke.

2. Baña kezkarik beñere ez somatzea, ta biotzean ala soñean naigaberik ez yasatea, oraingo biztaldiari ez dago-kio; betiko atsederi-aroari baño. Atsekaberik ez zerala-ta, benetako gentza iritsi dezula ez uste; ezta ondo guzia diyoala ere, etsairik ez dezunean; ta berebat ez uste egoala dezula, zure gogara guziak gertatzen diranean. Aundia ala bereziki maitea zerala ez uste, azkuz ta eztiz ba-zabiltza; ez dalako orelakoetan benetako zindozalea agertzen, ezta ere orelakoetan ez datzate iñoren aufferapena ta bikaindasuna.

3. —¿Zertan, ba, Yauna?

Zeran orixe Yainkoaren nayari biotz-biotzez eskeintzean; naiz txiki, naiz aundi, zurerik bilatzeke, ez aldikorik, ezta betidañokorik ere; atsekaldian eta loñaldian begitarite beti batez eskañ-ordaintzen dirauzulariz, guziak aztaga berdiñez aztandurik. Barne-atsea yoanda ere, neke aztunagoak yasatera biotza gertutzeko bezain azkañ ta kemen-tsua zure itxaropena ba-litz; ta orelakorik ez zenezakela yasan beañ-edo, burua ezpa-zenu zurituko; ta erabakitzen ditudan guzietan zuzentzakotzat eta de-

untzakotzat goratuko ba-ninduzu; or-
duntxe bai-zenenbilke gentzarako bide
on ta zuzendik, ta beriz nere aurpegia
pozik zenekuskela, zin-ziñez uste izan-
go zenuke. Baita are, zeoren narda be-
tera elduko ba-ziña, yakizu gentza ede-
rez poztuko ziñakela, atzerian poztu
zaitekenez.

XXVI ATALA

**Irakurpenez baño geyago,
eske-otoiz bere yareitasuna
gogoak irabazten du; ta zein
guren dan yareitasun ori.**

1. Yauna, auxe da gizon bikañaren arloa; goikoetarako asmotan beñere ez mertziltzea, ta leba askoren arian, lebarik gabe bezela, igarotzea; ez, noski, sorayoen eduz, bai ordea, gogo yareyen eskubidez, alegia, inongo izakiri ere yas okerez itsasteke.

2. Ene Yainko onbera, biztaldi aurretako ayolai buruz yagon nazazu, arian; ez nadin geyegi nasi; ainbeste soin-bearkizunei buruz, ez nazan atseginkeriak atzitu; gogoarentzako era-

gozkin oroei buruz, ez nadin naigabez akituta kokildu. Ez diozut giza-uskeriak isituki tiriatzen dituan ayetatik ni yagoteko; bai baña, ilbear geran guzion zori txarez, barne-yareikuntzan nai nuken bakoitzetan ez nadin saftu, zure otsein aunen gogoa nekez toiltzen eta uzkuftzen dutenetatik.

3. Ene Yainko, ezin esan alako gozoa, betikoetarako leratik aldentzen eta oingoxe atsegiñen apeukoz beragantzen naun aragi-atse dana, samindu ezadazu. Ene Yainkoa, ez benazate aragi-odolak azpiratu; ez gizañtekeriak eta gizañteko ospeak atzipetu; ezta txeñenek ere bere maltzuñkeriz oinperatu. Indazu gogoñ egiteko sendotasuna, yasateko egonaña, irauteko gotoñtasuna. Ludiko atsegin oroen orde, zure gogo xamuñez igortzi nazazu, ta aragi-arekiko maitasunaren orde, zure ize-narenganako maitasuna ixuri ezadazu.

4. Oña, azkuñi, edari, yanzki, ta soin-sozkoari dagozkion enparau guziak, gogo gañtsuari nekagañiak zazkio. Oñelako sorkiak elikuz erabiltzeko, ta lera geyegiz ez arazotzeko eskaña indazu. Ez da zilegi guziak asagotzea;

sozkoa azi beař da-ta; baña geyegikeri ta atseginkerien biła ibiltzea agintza deunak gebentzen du; bestela, ba, gogoaren kaltez aragia yařkiko litzake. Ořelakoen ařtean zure eskuak, ařen, ařteztu ta irakasi benaza, geyegi dan ezertara ere ez dezan yo.

XXVII ATALA

**Norberaren maitasunak
onik onena ařas atzeratzen du.**

1. Ene semea, danaren ordañez dana eman, eta zure buru ezertan ere ez izan beař dituzu. Yakizu, kalte geyago egiten dizula zure buruaganako maitasunak, luřeko beste edozerk baño. Zure maitasuna garbi, uts eta zindoa ba-litz, ez zinduke ezerk ere lotuko. Ez ezazu irikatu nai, eukitzeko zilęgi ez zaizunik. Eragotzi zaitukenik, eta bařneko yareitasuna kendu dizazukunik, ez ezazu euki nai, ¡Ařitzeko aña! ez dizkidazula-ta zure burua, gura ta euki ditzakezun oroekin, biotz-mami-mamitik egozten!

2. ¿Alpeřikako kezka zergatik iro-

tzen zera? ¿Zergatik ayolakeriz aunnatzen? Nere naitara zaude, ta kalterik ez dezu izango. Adiñonezago ta gogarrago izateko, au edo oñen bila bazabiltza, ta an edo emen egon nai badezu, ez zera iñoiz ere narerik, ez ayolagabekorik egongo; orotan utsune bat edo bat, eta edonon zure yarkiz norbait dagoke-ta.

3. Onerakoa, beraz, ez zaigu, lekorean iritxi edo kopurutzen degun edozer; bai oster, nardatu ta biotzetik eñotikan ateratzen deguna. Ta ori ure ta ogasunaren etekintzaz ez-ezen, aundimintzaz ta beyungaletzaz ere uleñtu ezazu; guziok ludiarekin igarotzen dira-ta. Babes gutxirako da tokia, gogo-azkurik ez dagonean; ta luzaro ez dirauke lekorean bilatutako gentzak, biotzaren benetako zotañaña naizan Neregan, ezpa-dago eraikirik; bestera aldatu bai-zaiteke; obetu, ordea, ez. Garaya eldu ta añtutakoan, iges egin ziñiona bera, ta are geyago, aũkituko dezulako.

Biotz-garbikuntzarako

ta goi-yakintzarako ofoya.

4. Goteunaren eskañez, Yainkoa, sendo nazazu. Indazu bañea sendotzeko indaña, ta nere biotzetik kezka ta ayola oro erauztekoa, baita zatañ, naiz guren, ezertara ere, iñits-naspilak eraginda, ez leñaratzekoa; ta, ostera, guziak, eta naizen auxe ayekin ere bai, suntsigañizat iriztekoa. Ez dago, ba, eguzkipean diraukenik; dana emen utsa ta atsekabe-bidea da. Aunela deritzana jauxe gurbila!

5. Goi-sena indazu, Yauna, oro baño lenago Zu bilatzen eta aurkitzen, baita oro baño ere Zeori atsegiñago ta maiteago izaten ikasi dezadan; enparau guziak zure yakintzaren arauz diran alakotzat dazauzkidala. Indazu leuntzañea aidegiteko gurbiltasuna, ta yazañtzañea yasateko egonaña. Sen aundia da-ta, edozein itz-buadan zirkiñik ez egitea, ta lamin malgutzaleei be-lañirik ez ezañtzea; oñela-ta, asitako bi-detik auñera eskieñki yañaitzen da.

XXVIII ATALA

Maxiolarien aitzika.

1. Ene semea, ez aseŕe, batzuek gaizki ba-zaritzate, ta entzun-gogoŕak zutzaz ba-dasazkite. Zeoŕek zeoŕentzaz are gaizkiago iritzi beaŕ dezu, ta zu baño argalagoa iñoŕ danik ez uste. Baŕnera zai ba-zabiltza, itz egakarien ayola gutxi izango zera. Zufaŕtasun aundia da, aldi txaŕean ixilik egotea, Nigana baŕnetik itzultzea, ta giza-iritzien-gatik ez goibeltzea.

2. Ez bego zure gentza giza-aotan: naiz ontzat, naiz txaŕtzat aipatzen zaituten-aŕen, zeran besterik ez zera-ta. ¿Non al dago benetako gentza? ¿non benetako aintza? ¿Nigan ez ote? Giza-kumeen begikoa izan nai ez duana, ta ayei gogait eragiteko belduŕ ez dana gentza ugariz poztuko da. Maitasun okeŕtik, eta alpeŕrikako belduŕtik soŕtzen dira biotz-kezka ta soma-baŕeikeri guziak.

XXIX ATALA

Loñaldian Yainkoa nola deitu
ta onetsi beař dan.

1. Betidaño onetsi bedi, Yauna, zure izena, ziltza ta loř abek neregañeratu nai izan dituzulako. Ezin iges dagieket; Zugana, ostera, babes-eske yoan beař det, urgazi nazazun, eta nere onerra biguři ditzazun. Yauna, lořez orain nago, ta nere biotza ez dago nasai; mutiriki narabil oraingo miñak. ¿Orain ba, Aita maite ori, zer ote desaket? Kezkaz ertsita nago. Kinka aunetatik yarei atera nazazu. Baña kinka aunte-tara eldu ba-naiz, Zu goratu zaitezen ori izan da, apal-apaldua izan naizana, Zeořek yaregingo nazuenean. Zure gogarako izan bedi, ařen, ni itoitzea; gixaxo aunek, ba, Zu gabe ¿zer egin al dezaket; ¿eta nora al noake? Ointxe ere, Yauna, egonařia indazu: lagun zatozkidazu, ene Yainkoa, ta azken beltzean ere ez naiz belduř izango.

2. Orain, ba, aunelako-tařtean zer ote dasaket? Yauna, zure naya egin bedi. Min ta lořen ařtzekodun bidez

naiz. Ekaitza igaro ta atefi-arte burutu beaf det. ¡Egonafiz ai nu burutuko! Zure esku aloroduna ziltza au ere nigandik kentzeko altsua da, ta aren oldafa moteltzeko, ez dezadan lufa yo; lengoan maiz egin didazunez, Yainko eřukitso Ořek. Goikoaren eskutikako aldatze au, niri zaġa zaidan bezain, eřaza Zuri zaizu.

XXX ATALA

Yainkoaren laguntza eskatu ta eskařa beřiz daukakegula uste beaf degu.

1. Ene semea, Ni naiz lořaldirako Yaun azkařtzaġea. Ondo ez zaudekenean, zatozkit. Goi-atsekuntza geyen eragozten dizuna da otoyetara berantegi yotzea. Atsegin askoren bila oi zabiltzalako, ta atetikoetan poz artu oi dezulako, biotzez Niri otoi egin bařo len. Ori dala bide, lagun gutxirako dana zaizu; Nigan ustea daukatenen azkatzala Ni naizala, ta Ni gabe ez laguntza azkařik, ez aolku onerakorik, ez osabide iraunkořik ez dagola oaf-

tuko dezun-arte. Baña ekaitz-ondoren asnas egin-ezkero, zuzpeñtu zaite nere eñuki-argitan; aufki nagokizu-Yaunak dio-ta-oro lengoratzeko, osorik ez-ezen, eñuz ta gonburuz ere.

2. ¿Zaia zaidanik ote dago? edota. ¿esan bai, egiten, ordea, ez duanaren antzekoa ote naiz? ¿Non dago zure ziñesmena? Tink zaude ta gotorik. Gibelaundi ta gizon azkar zaite; ta atsea adionez elduko zaizu. Nere zai zaude, natoñkizuke ta sendatuko zaitut. Ziltza da, ertsatzen zaituana; alpeñikako belduña, izutzen zaituana. ¿Zertarako ote da lirakenen ayola izatea, itsari itsa biltzeko baizik? Aski du bere andega egun bakoitzak. Alpeñik dabil, beñere beañ bada izango ez diranengatik kezkatu ala pozten dana.

3. Baña oñelako irudiketari burua liluratzea giza-ayueñekoa da; ta adore uñiaren agerbidea, etsayaren amañuetara ain eñaz leñatzea. Etsaya, gezuñez ala egiaz iñor atzipetu ta liluratuko ote duanik, ez da ayola; ezta aufkietarako ala gerokoetarako leraz ere azpiratuko ote duanik. Beraz, ez bedi kezkatu, ez belduñtu zure biotza. Nigan entzindu,

ta nere erukian uste ona ipiñi ezazu. Askotan, Nigandik urun zaudela uste dezunean, urbilago nazazu. Galduñantzat dana uste dezunean, orduntxe irabazpide aundiagoa aurki dezu. Ez dezu dana galdu, zeozer aitzika gertatzen zaizunean. Ezer ere ez ezazu iritzi, ziztako irudipenari yaraiturik; ta letořki-zuken atsekabe edozer ere, ez ezazu artu ez eutsi, igespide oro kendu zazkizulakoan etsita.

4. Apur baterako loia igori, ala naitako atsea kendu ba-dizut ere, ziero utzi zaitudalakoan ez zaude, ori da-ta ortzi-erirako bidea. Obe dezute, noski, zuk eta nere ofsein guziok naigabetan yardutea, dana aukeran eukitzea baño. Oldozkun estaliak Nik dazauzkit, eta bai-dakit zure gaizkakunderako guziz adiñona zaizula atsekabe noizik bein izatea; ez zaitezen eraraldian arotu, ta ez zerana zerala uztean, ez dezazun burua ederetsi. Eman dedana ken dezaket, baita, atsegin nukenean, oster a itzuli ere.

5. Eman-etzker o, nerea da; ken-etzker o, zurea zanik ez det kentzen; nereak dira-ta emai on oro ta opari bi-

kain oro. Ez aseé, ez bekizu biotza kokildu, lof edo naigaberen bat bidaliko ba-nizu. Nik bereala eraiki, ta iñongo zama pozera aldatu ditzaket. Ta oñela zurekin diardudala, zuzen naiz eta oneskaña.

6. Sena ta egiaren arauz irizlea bazera, beñere ez zera naigabe-añen aintalki, goibeldu beañ; osterera ere, pozartu ta eskañ egin beañ dituzu. Ta ori ez ezen, pozkañi bakaña izan beañ zaitzu, gupidesteke miñez ebaintzen ari natzaizula oartzea. Buñuka gogoñetara nere ikasleak bidali nituan, ez noski, aldiko pozetara; gerenera, ez aintzara; lanetara, ez alpeñketara; zitu ugari egonañiz ekañtzera, ez noski atsedenera, artarako nesayela; Aitak maite izan naun bezela, Nik ere maite izan zaituztet. Itzok oroi itzazu, ene semea.

XXXI ATALA

**Irazalea aurfkitu al izateko,
izakiak atzendu beañ dira.**

1. Yauna, urgazi aundiago are oraindik beañ beaña det, iñork eta ezerk

ere ezin eragotzi nintzaketen bezain gora eldu bea' ba-naiz. Zugana yarei ezin egaldu naitekkelako, ezerk atzituta eusten naun artean. Yarei egaldu nai zuan ofela zesanak; ¿usoarenak lako egarik nork damaidake, egaldu ta atsedan nadin? ¿Begi-xaloa baño zer dago managorik? ¿Eta luñean ezertxorik gura ez duana baño zer ote yareyagorik? Beraz, izaki oro baño gorago igo bea', ta norbera ziero utzi, ta gogoa yasota euki, ta ikusi oroen Egile Oñen, eta zure egindakoen artean antzik ez dagola. Ta izaki oroen eragozkiñik gabe egon-ezik, Yainkoarenetan nasaiki iñork ere ezin yardun dezake. Sogile gutxi dira, ba, gutxi diralako izaki mengel guzietatik ziero aldegiten dakitenak.

2. Gogoa yaso ta bere gañera erai-ki dezaken eska' aundia artarako bea'fa da. Ta gogoa gora, ta izaki guzie-kiko yarei, ta Yainkoari oso itsasita iñork ezpa-du, dakian eta daukan guzia, mami gutxikoa da. Luzaro txikia ta lu' yoa izango da, neu' ta amairik ez duan On baka'fa baizik, ezer ere aundizat datsana. Yainkoa ez dana

ezer ez da, ta ezer ez dala uste beař da. Arte aundia dago ikastun maratzaren yakitetik, goitik argitutako azkutiaren senaraño. Nekeren nekez giza-antzeak bildutako yakintza baño guziz da urenago, Yainkoak eragiñik, goitik darriona.

3. Sokun-zale asko dira; baña artarako beař diranetan ez dute yoranez yarduten. Eragozkin aundia da irudi ta nabarietan gelditzea, benetako ezi-nekea aldera utzirik. Ez dakit zer ote dan ez zein asmok garaman, ez zeren bila ote gabiltzan gogozaleak omen geradenok; ořen nekez ta lebaz zirtzilkeri suntsikořetan ekiten degula-ta, gure bařnekoak ozta ala gutxitan, geronen baitara ziero bilduta, gogaldurik.

4. ¡Au miña! apuřtxo bat gure baitara bildu-orduko, berealaxe lekorera oldařtzen gera, ta ez ditugu gure aziořaziak zeatz eta meatz aztakatzen. Gure lera non ote datzanik ez degu oařtzen; ta gugan guziak ořen zikin dirala-ta, ez degu negař egiten. Aragi danak bere bidea loitu zuan; ta argatik ugoldetzařa gertatu zan. Biotz garbitik sořtzen da bizitza onaren zitua.

5. Zenbat iñork egin duan galde oi da; baña zein zindomiñez egin duanik ez oi da ain ayolaz begiratzen. Aberats, azkañ, edeñ, antzetsu, idazle on, abesle on, langile on iñor ote danetz azteñtu oi da; baña zein gogo-landeñ, zein yasankoñ, ta otzan, zein azkutsu ta bañekoi ote danik ez da aipatzen. Gure etoñkiak giza-azalekoak begiratzen ditu; eskañak bañekoetara biguñtzen da. Ura maiz atzipetu oi da; aunek Yainkoari ditxeka atzipera ez etoñtzeko.

XXXII ATALA

Norberaganako ta iñits oroekiko ukoa.

1. Ene semea, burua ziero asagotuzik, osorik yarei ezin izan zaiteke. Biluñez daude yabe, norberakoi, mi-kuin, beñitsu, iperloka guztak beti gurikerien bila, ez Yosu Kisto'ren ondoan dabiltzanak; eta ez diraukena maizeko asmakeri ta ametsetan darabiltenak. Aituko da, ba, Yainkoagandik soñtu ez dan guzia. Esakun labuñ ta mamitsu auxe eutsi: guziak asagotu itzazu, ta

guziak aurkituko dituzu; iritsak aldera utzi, ta atsedena didorokezu. Auxe go-goan erabiltzu; ta zertu-orduko, dana igariko dezu.

2. Yauna, ez da ori egun baterako saia, ezta ume-yostaldia ere : itz labur aunetan itxita dago lekaideen bikaindasun biribila.

Ene semea, ez dezu bereala eurtik, ez ukorik egin bear, zindoen bidea entzunda, ostera ere, gorantzago ekin, eta bederen, artara guraz leyatu. ;Burukoya ez izateraño, ta bai nere oldeari, baita, buruzagitzat yañi dizun, aitarenari ere soilki itsasteraño ai ziña elduko! Orduntxe, beintzat, nere guziz begikoa ziñake, ta zure biztaldi osoa pozetan ta ez titan ligaroke. Uztekorik asko oraindik dituzu; ta guziok nereztat osorik laga-ezik, ez dezu daskazuna yardetsiko. Aberastu zaitezzen, sutan soildutako ur̄ea Niri erosteko aolkaizen dizut; ur̄ea ori dalakoan goiko sena, beko guziak ostikatzen dituana. Atzera egin itzazu lufeko sena, ta gizar̄teko naiz buruaganako onar̄pen oro.

3. Lagun-abar̄ez zatar̄tzakoak zureztat erosteko esan dizut, guren eta bi-

kaintzakoan ordain. Zatañ eta txiki ta uñan aztuta dirudi benetako goi-sena, ñañaintzen ez dakiana, ta luñeko beyun-eske ez dabilana. Alako sena aoz askok goresten dute, baña yardunbidean argandik sayesten dira: ala ere beraxe da ostendutako pitxia.

XXXIII ATALA

**Biotza aldakoña da;
ta Yainkoagana biguñi
beañ da gure azken-asmoa.**

1. Semea, ez, añen, ziñetsi zure lerari; oraingoxea besteruntz laster itzuliko da. Bizi zeran añtean, aldakoña izango zera; batzuetan pozik, bestetzetan goibel; alditan nare, beste alditan urduri; iñoiz azkutsu, beste iñoiz epel; noizpait leyatsu, ta noizpait nagi; bein aztun, beste beingoan ariña zeralarik. Baña sen eta gogokoetaz ondo ikastuna, gora-bera oyen gañean dago; zer bere baitan oañzen duanik, eta aldakeri-buadak nondikan bultz dagianik aditzeke; ostera ere, beañ ta gura duan elburura bere txede osoa zuzendurik.

Oñela, ba, bere txede xaloa begiz-begi Nigana beti eukirik, ainbeste gorabera-añen, beti bat gotoñik dirauke.

2. Ta txede-begia garbiago litzaken aña, bera ere gotoñikago ibiliko da iñongo ekaitz-añtean. Baña askotan asmo garbiaren begia lausotzen da; datoñen gogarako edozer berealaxe begiratzen dalako. Bakan bakanetan aurkitzen da-ta norbera sorozteko miñez kutsututa ez dagokenik. Beñola yudañak Betani'ra Marte ta Miren'ena ziyoazten; Yosu ez-ezen, Lazar ere bai ikusteko. Txede-begia, beraz, xalo ta zuzena izan dedin, garbitu beañ da, ta bitañteko guziak atzera utzita, Nigana itzuli.

XXXIV ATALA

**Maitatzañeari Yainkoa danik
gozagañiena orotan zayo.**

1. Oña ene Yainko ta dana. ¿Zer geyago nai ote det, eta zer nai al dezaket zori obekorik? ¡Auxe dan itz ezti ta aogozagañi! Baña Itzaren maitalearentzat gozoa, ez noski, luñ aunen ta luñe-koen maitalearentzat. ¡Ene Yainko ta

dana! Aditzañeak ori aski du; ta maita-
leak, beñiz eta beñiz esatea, atsegin.
Zu aurrki-etzkeru, guzia da atsegiña;
Zu, osteru, urun-etzkeru, guzia nakaitz.
Zuk biotz nareu, gentzu eder ta poz
bizia soñtzen dituzu. Zuk orotaz iritzi
onak erakarñtzen dizkiguzu, ta orotan
zure oneskunderu garamazkizu; Zu
gabe atsegiñik luzaru ezin dagoke; ta
gogorako ta aogozagaña ezer izateko,
zure eskaña bertan egon beañ da, ta
zure sen-kutsuk ezitu beañ du.

2. ¿Gozagin zaituanak, gezarik zer
izango al du? ¿Ta gezu zatzayonari,
gozorik zer al datzayoke? Baña adi-
gaitzu zaye gizarñteko yakitunei ta ara-
gikoyei zure yakimbideu; ayen yakin-
tzan uts aundiu, ta aben aragikerietan
eriotzu dagolako. Yakitun ziañak, be-
ñiz, agertzen diru, gizakerien erdeñuz
ta aragiaren nekalbenez dañaikizute
nak; utsalkeritik egiaru, ta aragitik
gogoru igarotzen diralako. Oñelakoek
Yainkou gozagin dute, ta izakietan da-
gon on guziu, beren Irazalearen go-
reskunderu dakarñte. Baña beste-beste-
la gozagiñañak diru Irazaleu ta irazakiak,

betikoa ta aldikoa, argia bera ta piztu-
takoa.

3. ¡Argi piztu oro gainditzen dituzun betiko argia bera! Nere biotzaren barne guzia argiz betetzeko, tximista goitik yaurti ezadazu. Gogoa ta bere almenak garbi, poztu, argi ta pizkoitu zaizkidazu, pozaren pozez itsatsi naitzaizun. ¿Noiz elduko al zait aro zori ontsu ta zoragafi ura, zure aurpegiz ase nazazun, eta orotan oro izan zaitzaidan? Ori eltzerano, poz beterik ez dagoke. ¡Au miña! gizaki zafa nigan oraindik bizi da; ez dago oraindik gurutzari yosirik, ez ziero ilik. Gogofki oraindik gogoaren kaltez egiten da; barneko gudak pizten ditu; ta gogoaren nausigoa manatan egoten ez du uzten.

4. Baña Zu, itxasoaren indaia ezten, eta uin-oldaia ibitzen dezun Ori, yeiki zaite, airen, eta nere lagun zatokit. Eri gudazaleak sakabanatu, ta zure ndaiez austu itzazu. Erakutsi itzazu zure alatzak, eta gora bedi zure esku-bidea; ez dago, ba, itxarobiderik, ez gorkurik, ene Yauna, Zugan-ezik.

XXXV ATALA

**Biztaldi aunetan ziltzaekiko
eskieftasunik ez dago.**

1. Ene semea, biztaldi aunetan eskieftik beñere ez zaude; ta bizi zeran artean, gogo iskiluak beti dituzu bea-
rak. Etsai-tartean zabilta, ta ezke-es-
kuitik eraso. Beraz, egonaria babes-
kitzat alde orotara ezpa-darabiltzu, ez
zaudeke luzaro zauririk gabe. Buruka
ori ere ezin yasan dezakezu, ezta zor-
ontsuen garai-saria iritsi, ezpa-dezu
Nigan zure biotza tink ipintzen, Niga-
tik edozer yasateko asmo utsez. Gi-
zonki, beraz, edozer eraman bea-
dezu, ta yañki litzazuken aitzika beso gogo-
erabili. Garaitzaleari mana ematen za-
yolako, ta zabañtzen danarentzat pego-
ñeri latza gelditzen da.

2. Biztaldi aunetan atsedeneren bila
ba-zabiltza, ¿betiko atsedenera zela el-
duko ote zera? Asko yasateko, ez or-
dea asko atsedeteko, asmoa erabaki
ezazu. Goyan benetako gentza bila
ezazu, luñean ez; Yainkoagan bakañik,
ez gizagan, ezta iñongo izakietan ere.

Yainkoaren ederaġatik, pozikan edo-zer yasan beaġ dezu; neke, min, ziltza, mutirikeri, kezka, beaġkun, eri, irain, akaġ, berapen, lotsa, ataġaldi ta nardak. Guziok onbiderakoak dira; guziok Kisto'ren gudalgaya zeinbesterako dan darakuste; guziok ortzi-burestuna eyotzen dute. Neke labuġ ordañez betiko saria, ta iraizeko lotsaren ordañez mugarik gabeko aintza Nik emango dizkizut.

3. Gogo-atsea beti eskumendean eukiko dezula uste ote dezu? Ez zuten beti nere deunak alakorik euki; bai ordea askotariko neke ta ziltzak, eta atsekabe laġiak. Baġa orotan egonaġiz egon ziran; norberagan baġo, Yainkoagan geyago uste ona zeukatelarik; aldi aunetako nekeak geroko aintza irabazteko lain ez dirala yakiġik. ¿Negafen negafez ta nekearen nekez askok ozta iritxi zutena, zeofek berealaxe euki nai al dezu? Yaunaren zai zaudeke; gizonki ari ta azkaġtu zaite; ez uzkuġtu, ez kokildu; ostera ere, Yainkoaren aintzarako soin ta gogoa adorez eskeġi itzazu. Nik ordaġa gonburuz

itzuliko dizut; Ni zurekin nagoke iñongo atsekabetan.

XXXVI ATALA

Giza-irizkerien aitzi.

1. Zure biotza Yaunagan sendo ipiñi ezazu, ta zure baitan burua zintzo ta obengetzat oartu-ezkero, giza-iritzien beldur ez zaite. Orela yasatea on ta zori ontsua da; ta ez zayo gogor biotz apalari ta norberari baño geyago Yainkoari uste ona ezarita daukarnari. Asko askok darasate; ta argatikantxe gutxi ziñetsi bear zaye. Baña guzien gogoko izatea ezin diteke. Yainkoaren ederagatik guziei atsegin izaten Paul'ek ekiñaren, giza-iritziak pits bat aintzat etsi zituan.

2. Besteak onbideratu ta gaizkatze-ko, berez al zezaken dana egin zuan, bañan azezkerok ere, ayen irizkeri ta erdeñuak ezin ito zituan. Argatik dana zezauñ Yainkoari, dana egotzi zion; eta bai maxiolari maltzuren aitzika; baita gezur utsak asmaketan eta beriketean beren oldez zerabilzkiotenen ai-

tzika ere, apaltasunez ta egonañiz bere burua babesi zuan. Noizik bein ere erantzun zien, bera ixilik zegola-ta, erkiñei ez zekien gaizkibiderik sortu.

3. ¿Il beař dan iñoren belduř izateko, ¿nor ote zera? Gauř bai-da, ta bíař ez da ageri. Yaunaren belduř zaitte, ta giza-mamukak ez zaituzte izutuko. ¿Itzez naiz irañez iñorbaitek zer egin al dizaizuke? Zure baño, bere kaltezago diardu; ta litzakena litzakela, ez dio alako iñork Yainko-auziari igesik egingo. Yauna zeořek begitan eukizu, ta liskařak utzi. Ez asefe; yasanik ezaz zure zaria ez gutxitu, orain luřa yo, ta irabazi ez dezun alkea yasan ba-dirudizu. Nigana, osterá, ortziruntz soizu; alke ta irain orotik atera, ta nori bere egintzaren arauz ordaña itzuli baizayoket-eta.

XXXVII ATALA

**Biotz yarei iristeko,
norberaren uko soil eta osoa.**

1. Ene semea, burua utzi, ta auřkituko nazu. Ezer ere ez autetsi, ez zure-

tzakotu; ta irabazlea beti izango zera. Eskaf ugariago geituko zaizulako, buruari bein betiko uko egin ezkeroxe.

—Yauna, ¿zenbatetan eta zertan buruari uko egin bear diof?

—Beti ta edonoiz; ñimiñoetan eta aundietan. Ezer ez det ateratzen; zeori orotan bilutsik aurkitu nai zaitut. Bestela, ¿zu nereaa, ta Ni zurea nola izan al gindezke, ezpa-ziñitu zure naikeri oro bafnetik eta atetik erautziko? Erauzte ori lasterago dagikezun aña, obeki ere zaudeke; ta zieroago ta benazago dagikezun aña, atsegiñago ere izango zaitut, eta geyago ere irabaziko dezu.

2. Beren burua batzuek uzten dute; baña zerbait berentzat eutsirik; ez diralako Nigandik osoki entziten; argatik norberaren sorozkuntzan ekiten dute. Bestetzuek, beriz, lenbizian dana eskeintzen dute; baña gero, ziltzak yofa, berenetara itzultzen dira, ta argatik iñola ere ez dira onbidean aufferatzen. Orelakoek biotz garbiaren benetako yareitasuna ta nerekiko nabastare erosoaren onaurkia ez dituzte iritxiko, beren burua ziero ukatu ta egunoro eskeñi

ezkero baizik; ori gabe ez dagoke-ta batze pozkořikan.

3. Asko-askotan esan dizut, eta ointxe ere dasaizut; burua utzi, burua ukatu, ta barnez ezti-eztitan zaudeke. Guziaren ordain, guzia emazu; ezeren ere bila, ezeren ere gura ez zabilza; Nigan garbiro ta zalantzarik gabe zaude, ta naukakezu. Biotz yareya izango dezu, ta iluntan ez zera etzango. Yabetasun oro erauzita, Yosu bilutsari yafaitzera, ta zeofentzako ilik, Niretza, beti bizi al izatera, zure ekite, otoi ta gura guziak yo bezate. Orduntxe suntsituko bai-zazkizu irudikeri zirtzil, kezka txař, eta alpeřikako ayola guziak. Orduntxe ere belduřkeriak aldegingo dizu, ta maitasun okeřa ilko zaizu.

XXXVIII ATALA

**Atetikoeetan norbera ondo yaufi,
ta galtzorian Yainkoagana
yo beař da.**

1. Ene semea, zeundeke edonon, ta ari ziņaken orko edozertan, barneko i yarei ta zure buru izan alegizu; guziak

zure azpian euki, ez ayen azpian zu; zure egikunen yabe ta yaurlea izan, ez ayen mofoi ta ogipekoa; bai oster, israeldar yarei ta peluta, Yainkoaren semeen yarauntsi ta yareibidera yaso. Ofelakoek, oraingoan gañean yañita, betikoetara so daude; ezkerko begiz irazekoak, eta eskuikoaz goikoak begiratzen dituzte. Aldiko ezerk ere ez dituzte berari itsatsi guraz artaratzen; ayek, oster, beñ danez erabiltzeko, edozer berenganatzen dute; artarako, ba, dana Yainkoak atondu ta goiko Egileak yañi zuan, bere irazakian okeren bat ere uzteke.

2. Edozein gertaketan ezpa-zera azalean gelditzen, eta ikusi edo entzun dezuna ezpa-dezu aragi-begiz aztertzen; ta ori ez-ezen, bereala Yaunagana Mois'ekin itun-bila sartzen ba-zera; Yaunaren erantzuna noizpait dantzukezu, ta oraingo ta geroko askotaz ikastuna irtengo zera. Yauretxolara beti Mois'ek yotzen zuan, ezpai ta auziak ariltzeko; ta galtzori ta giza-bidegaberiak asagotzeko, otoi-laguntzara iges egiten zuan. Ofela zeofek ere zure biotz-bañnera iges egin beñ dezu,

Yainkoaren urgazia biziro eskatzen. Argatik Yosue'ri ta israeldareei gabaondakak ziri sañtu zietela irakurtzen da; Yaunaren ituna ez dutelako galdetu, ta arezkero ezpain xuriekiko lañegi zinaesperak izanda, zintzokeriz atzipetu izan ziran.

XXXIX ATALA

Ez da garatzetan

mutiriki yardun beañ.

1. Ene semea, zure auzia beti egotzi ezadazu; Nik garaiz atonduko baidizut. Nere zuzenbide-zai egon, eta ekoizpena oartuko dezu.

—Bai pozik, Yauna, dana egozten dizut; gutxirako dira-ta nere asmake-riak. ¡Ez ai nieke geroko yazokunei yaramonik egin; burua, ordea, zure maitara zartadan eskeñi ai nizuke!

2. Ene semea, inork gura duan ezertara, mutiriki oi diardu; baña artara-etzkeroko, bestela irizten asten da; iraunkoak ez diralako bat berarako iritsak; bai ordea, batetik bestera aizkatzen gaituzte. Ez da, beraz, arlo txikia niniñoetan ere buruari uko egitea.

3. Buruaren ukoa, orixe da auñera-bidea; ta oñelako ukoa egin duana benaz yarei ta eskierik dago. Baña aspaldiko etsayak, edozein on goñoto dualata, ziltza-opoñik ez digu beñere utzi nai; osterá, gau ta egun maltzurkeri lañiak asmatzen ari da, zai ez legoken iñor iruzur-xederara amilerazi al izateko. Ernai zaudezte, dasa Yau-nak, ziltzapera ez etoñtzeko.

XL ATALA

On pitsik ere gizakia berez ez du, ta ezertzaz ezin ilañaindu diteke.

1. Yauna, ¿zer ote da gizakia, Zu artzaz oroitzeko? ¿Zer, beñiz, ote da gizakumea, ikerñtzen dezulata? ¿Zer irabazi du, zure eskaña eman dizayozun? Yauna, uzten ba'ninduzu ere, ¿zertzaz eñemuskan al nengoke? ¿Ta bidez zer yarduki al dizaizuket, daskaizudana egingo ezpa-zinñit? Auxen oski ta zinñez gogaldu bai dezaket; Yauna, ezer ez naiz, ezer ere ezin det, nerez ezer onik ez daukat; osterá ere, orotan uñs ta ezer-eztara beti leñafia

naiz. Nere lagun ta biotz-irakasle ezpa-
zatozkit, epeldu ta zabañtzen naiz.

2. Zu, ordea, nere Yauna, beti bat
zera ta betidañokoa, beti on eta zuze-
na, bidez ta deungi dana egin eta se-
naz atontzen dezuna. Baña auñera
baño, ok egitera ayeñago naizan auxe,
ez nagoke beti ein berberan; berein aro
neregain aldatzen diralako. Ala ere,
Zuk nai-ezkero, ta zure eskua lagun
datoñkidanekoxe, ohera laster egiten
det; Zuk bakañik urgazi ta azkañtu na-
zakezulako, giza laguntzarik gabe, Zu-
gana bakañik nere biotza, beñere alda-
tzeke, biguñi, ta Zugan bakañik atsedeen
diteken giñoan.

3. Beraz, azkua irixteko asmoz,
ala, pozten naun iñorik ez dagolako;
zure bila ibilibearnez, edozein giza-atse
asagotzen ba'zeneki; orduntxe zure
eskañetik bidez entzindu, ta atse beñi
baten opariz poztu ninteke,

4. Eskañik asko, Yauna, Zugandik
datoñkidalako ongi gertatzen zaidan
guzia. Ni, ordea, zure aitziñean uts-
utsa, ezerez ta gizagaxo aldabera naiz.
Beraz, ¿zer dala-ta, añotu al ninteke?
¿ta ospegale zergatik ote naiz? ¿Ene

ezerezgatikan ote? Tentelkeri utsa litzake ori. Izurri ustela, ta uskeririk ut-sena ziñez da ospe mazkoña; benetako aintzatik ufutiratzen gaitualako, ta goieskafa erauzten digulako. Naskagañi zayozu-ta, bere burua atsegin duana; ta giza-ospearen iritsan dabilana, onbidean kamus gelditzen da.

5. Benetako aintza ta poz deuna, oña zer diran: Zutzaz ilařaintzea, ez norberatzaz; zure izenagatik poz izatea, ez norberaren zindotasunagatik; ta zurregatik izan ezik, inongo izakirik ez izatea atsegin. Gora bedi zure izena, ez nerea; aundietsi bedi zure egintza, ez nerea; onetsi bedi zure izen deuna; ta ez bekit giza-ospe-lits bat ere egotzi. Zu zera nere ilařainbidea; Zu nere biotzerako pozkiña. Zutzaz beti ilařaindu ta poztuko naiz; nitzaz, ordea, iñoiz ere ez, elkaitzetan izan-ezik.

6. Elkař ospe-bila yudaitzařak bebiltza; Yainkoagandik bakařik datořena nik galdetuko det. Utsalkeri ta tentelkeria dalako edozein giza-ospe, edozein aldiko dedu, ta edozein gizařteko goreskunde, zure aintza betikoaren aldean. ¡Nere egia, nere erukia, nere

Yainkoa, Irukoitz zori ontsua! Zuri ba-
kañik bekizkizu gorespen, dedu, ones-
kun eta aintza beti-betidaño.

XLI ATALA

Aldiko dedu guzien narda.

1. Ene semea, ez zaite uzkuñtu, bes-
teak gora ta dedutara, zu, ordea, arbu-
yo ta alker a etoñtzen ikusirik. Gorantz
biotz ori Nigana yaso ezazu, ta luñeko
giza-nardak ez zaitu goibelduko.

—Yauna, itsuak gera, ta utsalkeriak
lasteñ liluratzen gaitu. Naizan auxe
beañ danez begiratzen ba-det, iñongo
izakiren batek ere ez dit gauñdaño bi-
degabekeririk egin; ta añezkero, Zu-
tzaz ekaisurik ezin nagoke bidez.

2. Baña maiz ta izuki Zuganako
obendun izan naizalako, bidez ere iza-
ki guziak iskiluz yañki zaizkit. Bidez,
ba, iñundako alke ta nardak zoñ zaiz-
kit; Zuri, ordea, gorespenak, dedu ta
aintza dagozkizu. Pozik nai beañ det
iñongo edonori matxañ, uzkin ta eze-
rez aintzat izan; eta artarako gerturik
egon-ezik, niretzat ezin dagoke bañe-

gentzarik, ez irauterik, ez gogo-argirik, ezta ere Zurekin batze osorik.

XLII ATALA

Gentza ez da gizagan ipiñi bea.

1. Ene semea, iñorgan ere zure gentza ezañtzen ba-dezu, gogo batetsu ta elaidea dezulako, urduri ta arazotan zaudeke. Baña beti bizi ta egoten dan Egiagana itzultzen ba-zera, aizkidea yoan, naiz ilda ere, ez zera goibelduko. Nigan ezañi bea da aizkideganako maitasuna; ta Nigatik maite bea da, biztaldi aunetan on eta maite-maitagarria dirudizun arako iñor. Ni gabe ez dago aizkidetasun sendo ta iraunkorrik; eta Neraunek lotzen ez dedan maitasarea, yasekoa ez da. ezta garbia ere. Zuketz al danik, elaidetik gabe bizigale izateko ere bezain ilik egon ziñake iñorenganako lerarentzat. Lurereko atse guzitik urutirago iñor diyoa, ta Yaungana are urbilagotzen bai-da. Beñiz, berago bere baitan iñor yetxi ia apaltzen dan aña, gorago ere Yainkoagana igotzen da.

2. Norberari ordea, ona dan lits bat ere egozten dionak, Yainkoaren eskañari beraganako etorñpidea eragoz-ten dio; biotz apalen ondoan beti da- bilalako Goteunaren eskaña. Burua osorik ezereztu, ta orko lera guziak okazten ba-zenekizki; orduntxe eskañ yori dariodala, zureganatu beañ nin- tzake. Irazakiei so egiten diezunean, Irazalearen aurpegia ostentzen zaitu. Irazalearen edereñz orotan burua ezten yakizu; ta Yainkoaren ezaupidea iritxi alko dezakezu. Pitsik pitsena ezer izan- añen, lañegi maite ta sorozten baldin ba-da, goiko Onganakoan yeurtu ta kutsatzen gaitu.

XLIII ATALA

Gizañteko yakintza utsalaren aitziñ

1. Ene semea, ez bezaitzate giza-ele xuri ta zoñotzak zirikatu. Onbidean, ez noski izketan, yaureñia dago-ta. Nere itzak adi itzazu; biotza ixiotu, gogoa argitu, oben-gañbaya piztu, ta askota- riko atsea eradoren duten itzok dira. Itzik ez ezazu beñere irakuñi, yakitun

ta ikastuntzat agertzeko. Girin okeñak moteltzen ekin; obeki ori izango dezuta, otekuntza zail askoren beña yakitea baño.

2. Asko irakuñi ta ezautu ezkeru, soñburu bat bakañengana itzuli beañ. Nik gizakiari yakintza irakasten diot; eta iñork ere irakasi dezakenarentzako baño adin argiago umetxoei damayet. Itz egiten diodan edonor, berealaxe yakitun izango da, ta gogokoetan azkoñtua. Niganako otseinbidearen ayola gutxi dirala, giza-beñikerien usmoan dabilzanak jayek gixaxoak! Garaya datoñke, irakasleen Irakaslea ta gotzonen Yauna dan Kisto agertzeko, oroeñ irakaskizunak entzutera; alegia, bakoitzaren barnea azteñkatzera. Orduntxe Yerusalen zuziz ikeñiko da, ta ilunpekoak nabari izango dira, ta mingain txurikeriak ixiliko dira.

3. Gogo apala Nik ziztan yasotzen det, betiko Egiaren irizpide anitzago uleñtu ditzan, ikastolan amañ urtez lanean ari izanda baño. Abotsik gabe Nik irakasi egin det, iritzi-naspilik gabe, añandirik gabe, adirazpide-buñukarik gabe. Nik darakaskit luñekoak

nardatzen, oraingoak iguiten, betikoak bilatzen, betikoetaz aogozatzen, dedutik igesten, eragozpideak yasaten, uste osoa Nigan ezañtzen, Ni baizikan ezer ere ez añtzen, eta beste edozer baño Ni gafez maitagotzen.

4. Norbaitek, ba, mamiki maitatzen ninduala, Yainkoarenak ikasi ta añitze-koak erausi zituan. Zoñozkeriak azteñtzen baño, geyago auñeratu zan, guziak uzten. Txosten añuntak batzuei, bestetzuei bereziak aipatzen dizkiet; iñortzuei ikuñatz ta irudibidez agertzen natzaye; bestetzuei, beñiz, zadoñak argi-argitan zabaltzen dizkiet. Ots bat bera idaztiek dagite; baña ez die oroei ots oñek bat bera yakiñerazten. Ni naiz, ba, bañnetik egiaren irakasle, biotzaren ikeñle, oldozkunen ezaule ta iñarkunen eragilea, bakoitzari dagokiona, deritzadanez, banatzen diodana.

XLIV ATALA

Atetikorik ez du iñork

beregianatu beañ.

1. Ene semea, murtik ere askotaz ez yakitea, ta zeori luñean ildakotzat

eta ludi osoa gurutzeko zařaskitzat iriztea adiřona zazkizu. Berebat adiřona izango dezu askotarřean belarři-gorřigarotzea, zure gentzarakoak bakarřik gogaldurik. Obe da iguingarřietatik begiak aldentzea, ta nori bere iritzia uztea, eztabaidan yardutea bařno. Yainkoaren ederřa ba-daukazu, ta Aren iritzia aditzen ba-dezu, txil eginbearřa erřazago yasango dezu.

2. ¿Norařno, Yauna, eldu gera? Lurřeko kaltetan, negarřez; apurř bat irabazteko, lanean ta itoka oi gabiltza; gogo-kalte, berřiz, aztuta utzi, ta ozta beranduxe gomutaratzen degu. Gutxi ala ezertarako ere ez danarekiko ernai gaude; ta bearřik bearřena sorozteke lagatzen degu; atetikoetara barřeyatzen dalako giza-gogo osoa, ta ezpa-da laster bere baitara biltzen, atetiko orřetan pozik datza.

XLV ATALA

**Ez zaye oroei ziřetsi bearř;
ta zein erřaz erausketan**

leřatzen dan.

1. Yauna, lořaldian lagun zatozkit; gizagandiko gaizkabidea alpeřa da-ta.

¡Zenbatetan zindotasuna iñon aurkitu-ko nualakoan, zindotasunik ez det antxe aurkitu! ¡Zenbatetan, beriz, gutxi-
 nik uste nuan bertan idoro det! Utsa, beraz, da gizagandiko ustea: ta Zugan, Yainko Oregan, dago zindoen osabi-
 dea. Beyun deizula, ene Yainko Yau-
 na, gertatzen zaigun edozertan. Maka-
 lak gera ta aldaberak; berealaxe atzi-
 petu ta aldatzen gera.

2. ¿Beingo ere kezka naiz iruzur bat edo batera iñoiz ez yotzeko bezain gurbil ta zurki norbera orotan zaitu dezakenik, nor al dago? Baña, Yauna, Zugandik entziten, ta zure ondoren zintzoki ibiltzen dana, ez da ain eñaz leñatzen. Ta loñen batera yo-ezkero, edozela eragotzita ere, berealaxe eraiki ta poztuko dezu; ez dezu, ba, zurtzik uzten, Zure zai azkeneraño dagoken iñorikan. Bakan-bakana da aizkide zindoa, aizkidearen ertsaldi guzietan diraukena. Zeori, Yauna, Zeori baka-
 rikan edozer agitan zin-zindoa zera, ta Zeori kenduta, alakorik bat ere ez dago.

3. ¡Zein senaz arako deun ark zion; Kisto'gan sendo ta eñoak eginda nago!

Ni ere alaxe ba'nengo, ezin neragike ain eñaz giza-beldurak, ezta ere ezin nerabioketeiñongo itz-zartadak. ¿Dana auñenetik nork al dakuske? ¿Datozken gaitz guziak lendanik oiltzeko lain nor ote da? Mugonez oartuak ere askotan kalte ba-dagite, ¿oartzeke datoñenak zauri lafirik ez al dute egingo? ¿Zergatik, ba, nere buru gaxo auxe ez det sorotzi? Baita ¿zergatik ain eñaz edonori ziñetsi diot? Baña gizakiak gera, ta gizaki uragañiak besterik ez; askoren iritzi ta aiputan gotzonak irudiaren. ¿Nori ziñetsiko al diot, Yauna? ¿Zuri baizik, nori ote? Zu zera itxulasten ez dezun, eta itxulastu ezin zaiteken Egia. Gizaki dana, beñiz, gezuñti, makal, aldabera ta leñakoña da, bereziki izketan; eta ezin ziñetsi diteke berealaxe azalean zuzena dirudiana.

4. ¡Zein zurki gaztigatu gaituzun gizaenganako ernai egoteko, ta iñorenekoak, aren etsayak dirala. ta ez zayola iñori ziñetsi beañ, dasanean, oña oñ, ala ara an. Neraunen lepotik ori ikasi det: gurbilago ibiltzeko, ez ordea, nere tentelkerian irauteko, Yainkoak ba-letsa!

Gurbil zaite-ulandiak dasait-gurbil zaite; dasaizun au ixilikan euklzu. Ta estali dalakoan, ixilik nagonean bertan, arako ulandiak ixilpean eukitzeko eskatu zidana, ezin dezake berak ixilpean euki, ta berealaxe, bai ni, bai bere burua ere lotsa agirian yañirik, of diyoa. Ofelako gizakote beritsu ta mii-luzetsuok nigandik uxatu itzazu, Yau-na; ayen mendean ez etortzeko, ezta ere ofelakorik beñere ez egiteko. Ene aboan itz egitsu ta gotoña ipiñi ezazu, ta nigandik urutira egizu mingain malizuña. Yasan nai ez dedana, iñolaz ere ez det egin beañ.

5. ¡Zein on eta gentzabide dan beste iñorentzaz itzik ez egitea; guziak sits ta bits ez ziñestea; ezta ere gero eiki bañeyatzea; gutxiei bañnea zabaltzea; biotza dakuszun Ori bilatzea; edozein ele-atsez ez of-arakatzea; ostera ere, bañne-atetiko guziak zure nayaren oldez zertu ditezela gura izatea! ¡Goi-eskaña irauteko, zein dan eskieñ giza-agerkeratik iges egitea; ta azalean añañiak diruditenen gura ez izatea; bai ordea, bizkera obetu ta biotza berotzen duten ayetara atazarik bizenaz leya-

tzea! ¡Amaika lagunei ageritako ta goizegi goraldutako zintzotasunak kalte egin dien! Ta beñiz, ziltza ta guda utsa dan biztaldi gaxo aunetan ixilik eutsitako eskaña ¡zein onerako oi dan!

XLVI ATALA

Itz mingaŕiak zartatzen
zazkigunean,
Yaikoagandik entzindu beaŕ.

1. Ene semea, sendo zaude, ta ene iguri. ¿Itz-ezik, itzak zer? Egurats-zeaŕ egaka diyoaz; aŕirik, baña, ez dute akasten. Obendun ba-zera, gogotik obetu nai dezula bururatu ezazu; obenik zure baitan ezpa-dezu oaŕtzen, oŕelakorik oldez yasateko burupidea aŕ ezazu. Aztintze gogoŕik yasan ezin dezakezun-ezkerø, gutxitxo noski egingo dezu, itz miñak bederen noizpait eramanki. ¿Zergatikan kizmizkeriok biotza minberatzen dizute, aragikoya oraindik eta beaŕ baño giza-lotsago zeralako ezpa-da? Narda-belduŕ zeralata, zure okeŕen akaŕik ez dezu nai, ta apuko-gorkura oi zoaz.

2. Baña zure barnea obeki aztertu ezazu, ta oartuko dezu oraindik ere gizakeria ta gizakien edera eukitzeko irits tentela zugaran bizi dala. Zure okerengatik datorkizun narda ta gerena asagotzen dituzunean, nabari da zienez apalbera ez zerala, ezta gizakeriak zuretzat eta zerori gizakerientzat ilda ez zaudeztela ere. Nere itza entzun ezazu, ta gizakumeen itz-tirluaren ere ayola ez zera izango. Ara, okerez asma litezken guziak zure lepotik esango ba-lira ere, ¿zertan kalte egingo lizukete, igarotzen laga ba-zenitu, ta lastotzat baik, ezpa-zenitu etsi? Ite bakar bat ere kenduko al lizaizukete?

4. Baña ez biotza bere baitan, ez Yainkoa begitan dakartzkiana, irainitz batek ere ezaz minberatzen du. Nigandik ordea, entziten dana, ta bere iritzian egon nai ez duana, giza-iruzurik gabe egongo da. Ni naiz, ba, zador guzien ebazle ta ezaulea; Nik bai-dakit zela edozer gerta danik; Nik irain-egile ta irain-yasalea bai-dazauzkit. Nigandik orrelako itza softu da; Nik laketsi nualarik, ori yazo da, biotz askoren asmoak ageri ditezen. Nik obendun ta

obengea ebatziko ditut; baña asmo es-
taliz biak aurrenean aztakatu nai izan
ditut.

4. Iruzuñtara maizetan giza ziñalbe-
nak yotzen du; nere ebazkuna zin-ziña
da, sendo dagoke, ta ez da irauliko.
Ostena oi da geyenetan, eta gutxiei
zeatzez nabaria; beñere ez du, ordea,
ok egin, ezta ezin ere, zuntzunen begi-
tan okeña iritzi-añen. Nigana, beraz,
iritzi orotan itzuli beañ da, ez norbera-
ren ustean yezañi. Zintzoki dabilana ez
da asalduko Yainkoaren eskutik gerta
litzayoken ezerez gatik. Bidekabez zer-
bait bere lepotik esan ba-litz ere, ayo-
la ez da izango. Ez da arotuko ere, bi-
dez iñork zurituko ba-lu. Uste dualako
biotz-giltzuñunen ikeñlea Ni naizala,
giza-aurrepegi ta azalaren arauz ez eba-
tekoa. Giza iritzian oneskaña dana,
nere begitan okeñtzat maiz agertzen
dalako.

5. Giza-ergalkeri ta zatañkeria da-
zauzkizun Yainko Yauna, ebazle zuzen,
azkañ ta yasanbera Ori, izan zatzakit
ene indañ eta itxarobide bakaña; ez det
aski-ta ene bañneko aitoñ ona. Nik ez
dakidana, Zeoñek bai-dakizu; ta aunez-

kero, akañaldi guzietan burua apaldu ta egonañiz yasan beañ ditut. Adeiberraz azketsi nazazu oñela ez egindakotan, eta yasan-olde biziago indazu, añen. Nere zindotzakotasunak barne ostena aldezteko urgazi nazaken baño geyago, zure eñuki zabalak azkespena rixteko urgazten nau. Obenik ene baitan oañtu ez-añen, zindotzat burua ezin deritzaket; zure eñukia kenduta, ez dagolako zure begitan buru-zindotzerik.

XLVII ATALA

Betiko bizitzagatik

neke oro yasan beañ dira.

1. Ene semea, nere edeñagatik leporatu dituzun nekeak ez bezaitzate aunanatu, atsekabeak ez kankindu; agi orotan, ordea, nere abintzak sendo ta poztu bezaitza. Era ta neñi oro en gañez ordaintzeko lain Ni naiz. Ez zera uzaro atsekabe izango, ezta beti ere miñez itoko. Pixkat itxoizu; ta nekal-diaren amaya berealaxe dakuskezu. Bai datoñke neke ta kezka oro gelditzeko garaya. Txiki ta labuñ da aldiarekin igarotzen dana.

2. Dagizuna egizu; nere mastian lan egizu; saria Nerau izango zaizu. Idatzi, irakurri, eresi ezazu; adiaka, ixilik, otoiketari zaude; naigabe dana gizonki eramazu; buruka oretarako ta latzagoetarako ere aintatekoa da betiko bizitza. Yaunak dakian egunean gentza datorke; ez dagoke orduntxe, orain bezela, gau-egunik; betiko ozkarbi, amaigabeko argi, gentza sendo ta atsedean eskiera baizik. Ara-ezkero, ez dasakezu; ¿soin ilkor au norik erantziko ote dit? Ezta ere ez dezu ots egingo; « jene negarria! Atzeri-aldi luzegia bai det ». Suntsituko du-ta eriotza, ta osasunak ez du akatsik izango; kexkarik antxe ez; beti, ostera, atse eztsu ta lagun-arte gozo edera.

3. ¡Deunak atzerian daramazkiten betiko burestunak ikusiko ba-zenitu! ¡Beñola emen matxar ta bizitzeko ere ez laingotzat ziruditen ayek zein aintza argitan orain pozik dabilzan ba-zenekus! Luñeraño, noski, apalduko zinake, ta inor baten ere gañean baño, guzien azpian egon nayago zenuke. Ez zenuke biztaldi ainetako poz-egunik tiriatuko, Yainkoagatik loñak obe-

tsirik; ta gizaŕtean ezer ez aintzakotzat izatea ere irabazirik aundiena zeneritzaŕke.

4. Guziok gozagintzat ba-zeneuzka ta biotz-baŕnera saŕ ba'litzazkizute ¿beñere oñon egiteko azaŕkuntza nola zenuke? ¿Betiko bizitzagatik ez al dira iñongo nekeak egari beaŕ? Ez da zizkiren bat yaureña galdu ala irabaztea. Ortzira, ba, begiok yaso itzazu. Auna emen Ni, ta luŕean guda gogoŕetan ari izan ziran ene deun guziak; orain pozik ta atse dira, orain eskieŕ daude, orain atsedeten dira, ta amairik gabe nere Aitaren yaureŕian diraukete.

XLVIII ATALA

**Betiko eguna, ta biztaldi
aunefako kezŕak.**

1. ¡Irigoyeneko biztoki zori ontsua!
¡Betiko egun guziz argia! ¡Aŕats-iñunik gabe Egiak Berak beti argitzen duan egun zoaŕ-zoaŕa! ¡Iñongo aldaketaz ere girbintzen ez dan egun beti atsegin ta narea! ¡Arako eguna ai-litz argitu! ¡ta aldiko guziok ai-lira aitu! Betiko argiz aratza deunei zabaltzen bai-

zaye; baña urun eta islaz-ezik atzeñian gabiltzanoi ez zaigu agertzen.

2. Egun ura zein dan atsegin ortzi-eñitañak bai-dakite; atzeñiko Ebakumeak, gauñkoa gañatz ta gogaikañia dala-ta, negañez gaude. Biztaldi aune-tako egunak gutxi ta gaitzak dira, neke ta loñez beteak. Ayetan gizakumea oben askoz loitzen da; girin askoz biluñka-tzen; belduñ askoz erisatzen, ayola askoz arazotzen, ikusmus askoz bañeya-tzen, zirtzilkeri askoz nasten, iruzuñ askoz moltzokatzen, neke askoz auna-tzen, ziltzaz aspertzen, atseginkeriz armintzen eta pegoñeriz amikatzen.

3. ¿Noiz izango al da oñelako gaitzen amaya? ¿girin txañen mendetik noiz azkatuko ote naiz? ¿Zutzaz bakañik, ene Yauna, noiz oroituko naiz? ¿Noiz Zugan ziero poztuko ote naiz? ¿Noiz al nagoke eragozkiñik gabe, benaz yarei, gogo ta soña toilduta beñere somatzeke? ¿Noiz al datoñke gentza sendo, asaldu ezin, ta eskieña, bañne ta atetiko gentza, gentza edonondik azkaña? Yosu on ori, ¿noiz yeikiko ote naiz Zeori ikustera? ¿Zure yaureñiaren aintza noiz begira al nagoke? ¿Noiz

izango al zaidazu guzietan guzia? ¿Noiz al nagoke Zurekin, zure kufune betidanik atondu diezun yaureñian? Lander ta arotz etsai-eñian bazterturik nago, egunoroko burukan eta elkaitz goñitan.

4. Atzeri aunetan poztu nazazu; nere miña ibitu ezadazu; Zugana iritsan dago-ta nere iski osoa. Nekagañia zaidalako ludiak atsegintzat eskeintzen didan dana, Zeori gozagin euki nai zaitut; baña ezin eldu. Goikoei itsatsi gura naiz; baña beko deusok eta girin gordiñok toiltzen naute. Gogoak oroen gañera narama; baña, engaraz ere, aragiaren azpian egon bear det. Oñela nerauni buruz burukan ari naiz, neraunentzat nekagañia naizalarik, gogoa goruntz, ta aragia beruntz leyatzen zaskidalako.

5. ¡Zeñen gañatz zaidan barne-oñazea, goikoak otoyaldian gogaltzen naizalarik, bereala aragikeriak pañastan narauntsanean! Ez nigandik urutiratu, ene Yainkoa, ez sayestu aseñez. Zure tximista izio, ta zantakeriok sakabanatu itzazu; zure geziak yaurti, ta etsayaren asmakeri oro poñokatu bi-

tez. Zugana nere asmenak bildu itzazu; aztu-erazi zaizkidazu luŕeko guziok; irudikeri zantaŕak oildu ta nardatzeko indaŕa indazu. Nere lagun zatozkit, betiko Egia zeran Ori, iñongo ere izunkerik ez nazan kordokatu. Zatozkit, ortzi-eztia, ta zantaŕkeri oro zure aitziñetik igesi biyoaz. Aztu ta eŕukiz azketsi, Zeori ez dan beste zerbaiz otoyaldian darabildan bakoitzean. Gogobaŕeyegiz oi diardudala aitoŕtzen deteta. Askotan, ba, ez nago ni, soñez zutik ala exerita nagon bertan; bai baño, oldozkunak naramaten artan. Nere oldozkuna non, ni ere an nago. Maite dedana non, nere oldozkuna ere an maiz dago. Nerez ala oikundez dedan atsegiña berealaxe otutzen zaiteta.

6. Argatik, Egia zeran Oŕek argiro esan dezu; zure altxoŕa non, zure biotza ere antxe. Ortzia maite-ezkero, ortzikoak pozik gogoan darabilzkit. Gizaŕtea maite-ezkero, gizaŕteko siratsez pozten, elkaitzez goibeltzen naiz. Aragia maite-ezkero, aragikeriak irudikatzen ditut. Gogo maite-ezkero, gogokoak asmatzen eztitan nago. Ezer ere

maite-ezkero, artzaz poziz daraust eta dantzut, eta aren irudipenak etxera nerekin dakañkit. Zori ontsua, ordea, da, Zugatik, Yauna, izaki guziei alde egiteko bayetza damayena; norberari gogor dagiona, ta aragi-iritsak gogotazaz gurutzaltzen dituana; biotz narez otoi garbia Zuri eskeintzeko, ta luñeko guziok barne-atetik oilduta, gotzonen saldotarñtean sarbidea irixteko.

XLIX ATALA

**Betiko bizitzarako iskia;
ta buñukalariei zeinbesteko
onaurki eskeñi zayen.**

1. Beti dirauken zori onerako iskia goitik ixurtzen zaizula oarñzen dezu-nean, eta alda-itzalik gabe nere argia ikusteko, soin-barutik irtengale zera-nean; zure biotza zabal ezazu, ta gogogotik orrelako iradoki deuna arñtu. Eskarñ-ordain ugari Goiko Onberari itzuli ezayozu, ain adeiz zurekin diardulako, ain erukiz ikerñten, ain garñtsuki zirikatzen, eta ain indarñtsuki

eraikitzen zaitualako, lu'ekoetara ez zaitzan zure aztak le'arazi. Ori ez dezuta zero'en asmabidez ala alegi'nez irixten; bai ordea, baka'rik, goitikako eska'aren eta Yainko-adeyaren bidez; onbidean eta apaldasunean au'era degizun; datozken bu'ukatara gerturik egon zaitezten; eta biotz-biotzez Niri itsasten ta mo'foiketari yarduten ekin dezazuntzat.

2. Ene semea, askotan sua dizeka; ba'ña kerik gabe ez da ga'ña yeikitzen. O'rela ortzikoetara ga'nez dago batzuen iskia; ba'ña aragi-i'ritsetiko ziltzarik gabe ez dira. Argatik Yainkoari ain isituki eskatzen diotena ere, ez dute Yainkoaganako maitasun uts-utsagatik egiten. O'relakoa maiz da, ain mutiriki ageri oi dezun zure izkia. Uts ta bika'ña ez dalako norberaren onaurkiz kufsatzen dana.

3. Nere gogarako ta dedurako dana, ez ordea, zure erarako ta onerakorikan eskatu ezazu; senaz ba-zabiltza, nere asmoa obetsi ta zeretza-kotu bea' dezulako, zure gura ta gurakizun oro ba'ño. Bai-dauzut zure

gura; ta zure adia sañitakoak entzun ditut. Yainkoaren umeakin aintzatsu ta yarei ointxetik egon nai zenuke; zora-gañiak ointxetik zaizkizu betiko etxea ta pozez betetako ortzi-erria; baña artarako garaya ez da oraindik eldu; bestelako aldia dezu, beñiz, oraingoa, alegia, gudaldia, neke ta añagotaldia. Goiko Onez ase izan nai dezu; baña orain ori ezin iritxi dezakezu. Ni naiz, dasa Yaunak; ene iguri zaude, yaureñia datoñeño.

4. Luñean oraindik aztakatu, ta aribide askotan biribildu beañ zera. Noizik bein atsea emango zaizu; baña ase-beterik ez. Pizkoñtu, beraz, ta azkañtu zaite, gogoñak egiteko ta yasateko. Gizabeñia yantzi beañ dezu, ta beste giza batera aldatu. Nai ez dezuna ere egin beañ dezu, ta nai dezuna utzi. Besteak atsegin dutena garakoa egingo da; zuk atsegin dezuna ez da kantituko. Besteena esana entzungo da; zure esana ezerez aintzakotzat etsiko da. Besteak eskatu ta añtuko dute; zuk eskatu ta ez dezu iritxiko.

5. Besteak giza-aiputan aundiak izango dira; zutzaz, ostera, aipurik ez

da egingo. Besteei eginkizun bat edo beste egotziko zaye; zeori, ostera, ezertarako ere ez laintzakotzat etsiko zaituzte. Ori dala bide, biotza iñoiz goibelduko zaizu, ta ixilik yasaten badezu, ez da gutxi. Orelako ta oren edukoetan Yainkoaren otsein zindoa, burua ukatu ta uratzeko, zeinbeste danik azterkatu oi da. Edozertarakoan baño, iguingaŕiak ikusi ta yasaterakoan beaŕago dezu il izatea; batez ere zirdoi ta ez egokitsu deritzazun zerbait agintzen zaizunean. Ta iñoren mendean zaude-larik, nausiaren eskubideari yaŕkitzeko eŕurik ez dezulakoxe, gogoŕa deritzazu besteren naitara ibili ta zure iritzi oro utzibeŕa.

6. Baña gogaldu itzazu, ene semea, neke oyen ekoizpena, berealaxeko amaya ta sari aundiegia; ta ez zazkizu aztunak izango; ostera yasanbeaŕetan pozkin azkaŕtzat izango dituzu. Ointxe uzten dezun nai apur oren ordañez, goyan beti zure oldez zaudeke-ta. Nai ta gura aña antxe didorokezu. Antxe zure eskubidean on oro dauzkakezu, gal-belduŕik gabe. Antxe zure naime-nak, nerekin betidaño bat eginda, ezer

ere bestekorik naiz berezikorik ez du izango nai. Antxe iñor ere ez zaizu yafkiko, iñork ere ez dizu oñorik egingo; iñork ere ez zaizu arazotuko; osterera ere, nai aña aurki bilduta izango dezu, zure iski dana bete ta gonburuz kozkitzen dizularik. Yasandako iraña antxe ospez ordainduko dizut, atseka-bea goreskunde-yanzkiz; txokorik apalena, betiko yauraulkiz. Antxe ageriko da menaren zitua, garbai-nekea pozik dagoke, ta otseinbide apala deduz sarituko da.

7. Beraz, oroen mendean apalik orain makur zaite, ta ezer esan edo agindu dizuna nor danik ez begira. Alegiñez, osterera, ekin ontzat aitzen eta gogo zindoz betetzen edonork eskatu ala adiraziko lizukena, nausi, naiz mendeko, naiz zure kidea alakoa dalarik ere. Berendia ezer baten, ulandia beste edozeren bila bebiltzate; alakoa zerbaitetzaz, sandia beste ezertsutzaz arotu ta goretsi bitez; zu, beñiz, ez artzaz ez ofetzaz, bai baño zeofen nardatzaz, ta nere olde ta dedutzaz bakarik poztu zaite. Bizi, naiz iltzen, zугan

beti Yainkoa goretsi dedila, ara zeorék irikatu bea' dezuna.

L ATALA

Lañi-aldian nork bera Yainkoaren eskuetan nola eskeñi bea' dion.

1. Yainko Yauna, Aita deuna, oraingoan eta menderen mendetan beyun deizula, nai dezunez egin dalako, ta dagizuna, beñiz, ona dalako. Zugan, ez beregan, ezta beste iñorgan ere zure otseña poztu bedi; Zu bakañik, Yauna, zaidazulako benetako pozbidea, Zu nere itxarobide ta saria, Zu nere atsegin ta dedua. ¿Zer al du zure otseña, Zugandik aitu du ana izan-ezik, eta orixe iñoiz ere ez irabazitakoa? Dana zurea da, Zuk emanda, Zuk eginda. Landeña naiz, ta neketan gaztetanik azia; gogoa iñoiz nega' egiteko giñoan goibeltzen zait; iñoiz ta ere, giriñak erauntsita, bere baitan urduri dago.

2. Gentza-poza gura det; atse-argitan iñutzen dituzun zure semeen gentza eskatzen dizut. Gentza ba-damaidazu,

poz deuna ixurtzen ba-didazu; zure otsein aunen gogoa zure oneskunetan txio-txioka ta azkuz ari izango da. Baña, sañitan oi dezunez, aldentzen ba'zaitzat, zure aginbidean antxintxi ezin egin lezake, ta bulaña astintzeko belaunikotuko da; ez diardu-ta, atzo ta erenegun ziardunez, bere burugañean zure argia dirdiratzen zanean, ta zure egalen itzalpean ziltzayasarekiko atef-bea zeukanean.

3. Aita zuzen eta beti goralgaña, zure otseña aztakatzeko garaya eldu da. Aita beti itzalgaña, betiko aspalditik zetoñkela zenekian aldia eldu bai-da; bertan apur baten zure otseña azaletik autsita egon bea da; baña bañnetik zurekin biziko da. Giza-aitziñan nardatu, apaldu ta ezabatu bedi; ta elbañiak ultzitu bezate; Zurekin egunsenti beñi baten piztu, ta ortzian argitu dedin. Aita deuna, oñela ebakita nai izan dezu; ta agindu dezuna egin da.

4. Auxe dezu-ta zure aizkideentzako oparia; yasan ta nekebeaña; edonoiz ta edonorgandik ori gerta datzayela nai zenukenean. Ezertxo ere ez da luñean egiten zure asmo ta sorozpidearen le-

korean eta ariarik gabe. Nere onerako, Yauna, apaldu nazu, zure zuzenbideak ikasi ta biotz-añokeri ta entzikeri oro erautzi ditzadan. Adiñonez, Yauna, aurpegia alkeak estali dit; gizakumeen baño, Zeoren biñā leyazago ibili nadin poz-eske. Ortan ere ikasi det zure ezin igeri alako ebatzaren beldur izaten; zindoaren gaiztoa yotzen dituzula-ta, baña beti bide ta zuzen diarduzularik,

5. Eskarik asko, Yauna, ez dizkidazulako nere okeñak gupidetsi; osterā ere, zigoñka gañazki ebaindu nazulako, azalera ta bañnera miñak eta kezkek igoñi dizkidazularik. Ortzipean dauden oroetako bat ere ez dago atsea lemaidakenik, zaurtu ta osatzen, lurperatu ta eraikitzen dezun, Zeori, Yainko Yauna ta gogoen sendatzañea izan-ezik. Neregain zure ikasbidea-ezkero, zure zigoñak berak zuruko nau.

6. Ara, ene Aita maitea, zure eskuetan nagokizu, zure akañ-zigoñpean markurtuta. Sorbalda ta lepoa aztindu zazkidazu, nere okeñtasuna zure naitara biguñi dezadan. Ikasle zintzo ta apala nagizu, edeñki egin oi dezunez, zure olde-santzu edozertara leyatu nadin.

Naizan ta dedan oro egotzi dizkizut, gardostu ditzazun; gero baño ohea oin-txe zaidalako zure akaña. Zuk dana ta bana bai-dakizkizu; ta giza-baitan ez zaizu ezertxorik ere ostentzen. Gero-koa, soñtu baño len, bai-dakizu; ta iño-ren beañik ez dezun, luñean gertatzen dana irakasi ala oañerazi dizazun. Zuk bai-dakizu auñeratzeko zer dago-kidan, eta ekandu gaiztoen erdoia kentzeko zein adiñon zaidan atsekabea. At-segin dezuna, nigan, añen, egizu; ta iñork baño obeki ta argiago dazazun nere yardunbide obentsua, ez ezazu zapuztu.

7. Yakinbeaña yakin-erazi ezadazu; maitebeaña maiterazi; danik atsegiñe-na dezuna, goretsi; bikaintzat agertzen zaizuna, aintzat etsi; ta zure begitan nardagaña dana iguin-erazi ezadazu. Ez nazazu utzi aragi-begiok dakusteenaren arauz irizten, ezta ere zuntzun iñori entzundakoaren arauz ebazten; bai ordea, ikuskañi ta gogoarena elkañ-gandik bereizteko sena, ta oroen gañez zure oldea bilatzeko usmoa inzkidazu.

8. Askotan giza-asmenak ebazketan uts egiten dute; gizakerien maitatzaleak

ere, ikuskañiak bakañik maitazean, uts egiten dute. Inor inork aundietsi-añen, ¿zertan aundiagoa izan al diteke? Gezuñtia gezuñtiak, aña añaak, itsua itsuak, makala makalak atzipetzen du, goratzen duanean; ta egiaz lotsagotzen du, gezuñez goratzen duanean. Norbera da-ta, zure begitan dana, ta geyagorik ez; dio Pantzezka deun apalak.

LI ATALA

**Eginbide apaletan ekin bea da,
aundietarako
azkurik ez dagonean.**

1. Ene semea, ezin zaudeke beti onbiderako iski irakiñez; ezta ezin diraukezu sokun-mail gorenean; baña yatoriandegaga dala bide, apalagoetara noizik bein yetxi, ta bizitza ustelgañi aunen zama, engaraz ta iguñez ere, eroan bea dezuz. Soñ ilkoña daramazuneño, iguñez ta biotz-kezkaz zaudeke. Aragiz eginda, aragiaren zamaz nega egin bea dezuz, gogo-inarkunetan eta Yainko-sokunean tairik gabe ezin yardun dezulako.

2. Alakoenean adiñona zaizu apa-

letara ta atetikoaetara yotzea, inarkun onetan gogoa zuzpefturik; nere etoř-kunde ta ikeřaren zai entzite sendoz egotea; zure atzeřikaldi ta gogo-idorřtea egonařiz yasatea; Neraunek beřiz ikeř-tuko zaitudan ařteraņo, ta kezka oro diyoakizuken ařteraņo. Nekea aztu-eraziko dizut, ba, ta barne-eztitan yařiko zaitut. Idazteunen zelayak zure auřean zabalduko ditut, nere aginbidean biotz yareiz antxintxika asi zaitezten. Eta dasakezu; gugan gero nabariko dan aintzarako lain ez dira oraingo nekaldiak.

LII ATALA

Atsea baņo oņazea irabaziago degulakoan egon beř gera.

1. Yauna, ez naiz Zugandiko atse ta gogo-ikeřerako lain: zuzen ta bidez nerekin diarduzu, landeř ta atsekaberik uzten nazunean. Itxasoaren gezala aņa nere malkoak izan-ařen, ez nintzake izango Zugandiko atsea ařtzeko lain. Argatik, astiņaldi ta zigořada baizik, ezer ere ez zait zoř, izuki ta maiz irain-

du zaitudalako, ta oben askotara yo dedalako. Beraz, senak dionez, atserik apuřena ere ez det irabazi. Baña, Zuk, egindakoen galtzerik nai ez dezun Yainko Onbera ta eřukitsu Ořek, zure eřukiontzietan zein aberats dan zure biotzberatasuna erakusteko; neuri oroengañez zure otseña poztu nai dezu, iñola ere berak irabazi ez-ařen. Zugandiko atseak ez dira-ta gizařteko erausien antzekoak.

2. Yauna ħzer egin ote det, iñolako goi-atsea eman dizadazun? Ezer onik ez det oroitzen nik egiña; gaitzbera ta obendia ta obekuntzarako nagia naizala, orixe bai-dakust. Egia da, ta ezin uka nezake. Besterik esango ba-nu, yařkiko zintzaket, ta iñor ere ez litzaket alde izango. Gaitz-leze ta betiko sua izan-ezik, ħneraunek zer irabazi al det? Ziñez aitořtzen det iñongo geren ta narda zoř zaizkidala; ta zurekoyen ařtean yařbiderik ez dagokidala. Etzungogořa ba-zait ere, nere aitzi ta egiaren aldez nere obenak aitořtuko ditut, zure eřukia eřazago neretzat irabazteko.

3. Obendun ta lotsez betea naizan aunek ħzer al dasaket? Itz bakař bat au

baizik esateko, aorik ez det; oben egin det, Yauna, oben egin det; eruki zaidazu; azketsi nazazu. Apur baten utzi nazazu nere miña deitoratzen, lur ilun ta eriotzaren lañoz estalira yoan baño len. ¿Gaizkin ta obendun gaxoari, garbai ta apalik ibiltzeko baño, berezikia-go ¿zer daskayozu? Benetako garbai ta biotz apalkuntzan soñtzen dira azketsa irixteko entzipena, nasitako barnearen yabalkuntza, galdutako eskañaren beñizkundera, iñori letorkio-ken aseñearekiko babeseta, ta elkañgana-ko muin deunez Yauna ta garbaidun gogoa bat etoñtzen dira.

4. Garbai apala opa abetalgafia zaizu, Yauna; kedatz luñña baño zure aitziñean luñintsuago. Bera da zure oin deunei ixuri zitzayela nai zenuan arako gantzuñin atsegiña; beñere ez dezu-ta biotz garbai ta apalbera asagotu. Bertan dago etsayaren goñotik gorkua. Bertan sendatu ta garbitzen da beste edonon kutsatu ta zikindu dana.

LIII ATALA

**Lurko atseginkeriz ez da
Yainkoaren eskaña nasten.**

1. Ene semea, bikaña da nere eskaña; ta lurko atseginkerien, naiz beste ezereen nasterik ez du yasaten. Beraz, eragozpide oro eskafari kendu bea ditziozu, bere ixura artu nai badezu. Zokora zaite; zurekin bakañik bizi nai ezazu; inoren erausi-gale ez zaite; Yainkoari, ordea, gogotik otoi egiozu, biotz-gañbai ta barne garbia eukitzeko. Ludi osoa ere ezerez aintzakotzat iritzi; Yainkoarekin yardutea oro baño obetsi. Ezin bildu ditezke-ta nerekin yardutea ta iraizekotaz poz artzea. Adinona da elaide ta aizkiden-gandik urutiratzea, ta gogoa atsebide guzitik aldentzea. Ala Kepa bidali deunak kistañei daskaye arutz ta bidariei dagokienez lur aurretan yarduteko.

2. Zein entzite aundiz ilagian dagoke, ezertxoren gurak lurrean ez dautsakena! Baña biotza ofela guzitik aldera egiterik ez du ulertzen gogo argalak, ezta abere-eduko gizakiak ere

norberaren baitako yareikuntza zer danik ez dazau. Gogotiar ziñez izan iñork nai baldin ba-du, arotzaren aideai uko egin bea die, ta iñoren baño, norberaren belduñago izan bea da. Burua ziero ezi-ezkero, enparau dana eñazago eziko dezu. Norberaren garaikundea, garaikunde betea. Burua iñork bere mendean ba-dauka, iñitsak adimenaren azpian, ta adimena orotakoan nere azpian ditularik; orixe noski da buruaren garaitzale ta ludiaren yabea.

3. Erpin ortara igo nai ba dezu, gizonki asi, ta aizkora eñoari ezañi bea diozu, zeñenganako ta zure onauñki berezirako iski estali ta okeñ oro atera ta zatitzeko. Ziero zapaldu bea dan geyen-geyentsuaren eño ustela da norberaganako iñits okeña; ta ori ezi ta zapaldu-ezkeroxe, gentza ez-titsu ta narea beti izango da. Baña norberaganako iltzen ekiten dutenik eta berengandik irteten diranik gutxi diralako; geyentsuak beren baitan sasiturik gelditzen dira, ta beren gañera gogo-egaka ezin igo ditezke. Ostera, nerekin ibili nai duanak, bere girin okeñ ta gaizto guziak ezi bea ditu, ta

izakietako bati ere ez dio biotza maitasafe bereziz itsatsi bear.

LIV ATALA

Etoñkiaren ta eskañaren eragikun banakoak.

1. Ene semea, etoñkiaren eragikunak eta eskañarenak ayolaz oañtu itzazu; aitzia-aitzika dabiltzalako, ta gogokoi ta bañez argitua baizik, iñork ezin banatu ditzakelako. Ongale, noski, oro dira, ta on bat edo bat orok beren esan-egiñetan galdetzen dute; baña onantzez lagunik asko atzipetzen dira.

Etoñkia zamoá da; lagunik asko atotsi, segaraldu ta atzipetzen ditu; ta beti berberaxe teñeiltzat dauka. Eskañak, ordea, xaloki diardu, gaitz-usaitik ere aldera dagi, iruzuñik ez du asmatzen, ta dana Yainkoaren edeña utsagatik egiten du, ta Beragan, guenez, atsedeten da.

2. Etoñkiak engaraz il nai du; ertsi-penik beretzat ez du nai, ez ezibearñik, ez azpirik, ez iñoren mendera oldez etoñtzerik. Eskañak, osterá, norberaren

ezibidean ekiten du, iritsei gogor egiten die, inoren mendean egon gura du ta norberaren ezigale da; bere eskubidea ez du erabili nai; araubidean bizi-beña maite du, ta inorik bere mendean ez du euki nai; Yainkoaren mendean, ostera, beti bizi, iraun ta egongale da, ta Yainkoaren edeñagatik edonoren mendean burua apalik makuñtzeko gerturik dago.

Etoñkia bere adiñonketan ari da, ta besteengandik zein etekin ote letoñkio-kenik zai dago. Eskañak, ostera, ez du begiratzen berarentzat onaurki ta adiñona zer danik; bai, ordea, lagun askoren onerakoa dana.

Etoñkiak dedu ta begirunea pozik aitzen ditu; eskañak inongo dedu ta ospea Yainkoari zintzoki egozten dizkio.

3. Etoñkia alke ta nardaren beldur da; eskaña, beñiz, Yosur'en izenagatik irañak yasan beañez pozten da.

Opor eta soin-atsedena etoñkiak maite ditu; eskaña, beñiz, oporik ezin dagoke ta lanari lotzen zayo.

Etoñkiak ornikin edeñ ta pirpilak euki nai ditu, zirtzil eta zatafak iguin

dituala. Eskaña, beñiz, iñongo edozer-taz pozten da; latza danik ez du azper-tzen; ezta oyal zafik ere ez du zapuz-ten.

Etoñkia aldikoei dañaye, luñeko ekoizpenez pozten da, kaltez goibel-tzen, irañez aseñetzen. Eskaña betikoen usmoan dabil, ez zaye luñekoei itsas-ten, zerbait galduañen ez da asalda-tzen, itz gogoñez ez sumintzen; bere altxoñ ta poza donokian ipintzen ditua-lako, ta antxe ezer ere ez dalako aitzen.

4. Etoñkia mikuin da, ta ematea baño añtzea du atsegiñago, beretzako bereziak maite dituala. Eskaña, beñiz, biotz-bera da ta erkidezalea; bereziak asagotzen ditu; gutxitaz ase da, ta añ-tzeko baño, emateko zoria obesten du.

Etoñkiak izakietara, norberaren ara-giara, utsalkerietara ta ibilketara dara-gi. Eskañak, beñiz, Yainkoagana ta onbidetara darama; izakiei uko, ta gi-zaftekeriei iges egin die, aragt-ifitsak goñoto, ta oñaraldiak uñitzen ditu, ta ageri-lotsa da.

Etoñkiak oldez atetiko atsegin bat edo bat añtzen du asmen gozagañitzat. Baña eskañak Yainkoagan bakañik eta

Ongoikoagan poza bilakatzen du ikuskafi oroen gañez.

5. Etoñkiak bere irabazi ta onerako egiten du dana; ezer ere ezin egin dezake ururik; inñori on egiten ba-dio, ordañez ainbat edo geyago ala goreskunde naiz onaurkiren bat artzeko ustez dagio; ta bere esan-egiñak aundietsi ditezela irikatzen dago. Eskañak, beñiz, aldikorik ezer ere ez du bilatzen; ez du oparien ordañez, Yainkoa baik, beste saririk eskatzen, ezta ere biztaldirako beañetakorik bat ere gura izaten, betikoak irixteko urgatzi litzayokena baño.

6. Etoñkia aizkide ta aiderik askotaz pozten da; soñteñi ta yatoñi guren-etaz urgoizten da; aundikiak leuntzen, aberatsak koipatzen, eta kidekoak txakok atzen ari da. Eskañak, beñiz, etsayak ere maite ditu; aizkide-kopurua-gatik ez da arotzen; ez ditu soñteñirik ez yatoñirik ezertzat etsi, zindotasun aundiagorik ayetan ezpa-dago. Aberatsen baño geyago landeñen aldez yartzen da; aundikiari baño obengeari erukiago zayo; gezuñtiarekin baño geyago egitiarekin pozten da; eskañbide

obetara leyatzeko, ta Yainko-Semearen antza onbidean aitzeko, onak beti aizkatzen ditu.

Etořkia peitu ta neketan laster da zinkurin. Eskarřak peitua gotořki darama.

7. Etořkiak dana bereganatzen du, ta norberaren aldez buruka ta leyaka diardu. Eskarřak, ostera, danaren iturburua dan Yainkoagana dana darakarř; onik bat ere ez dio buruari egozten, ez arřobidetzat arřtzen; liskarřik ez darabil; bere iritzia ez du besterena bařno obesten; bai bařno, iritzi ta aburu oro betiko yakintzari ta Yainkoaren ikeřari atontzen dizkie.

Etořkia zadořak igeři ta beřiak entzun nai ditu, nabarian ageri ta asmenez asko somatzeko gura ere bai-da; ezaguna izateko, ta aipu ta ospea lekarrřkioken zerbait burutzeko tiriz dabil. Eskarřa ostera, ez dabil beři ta alpeřkerien yakinmiřez; aspaldiko andegatik ofelako miřa sořtzen dalako, ta ez dagolako luř gařnean beři ta iraunkořa danik. Beraz, asmenak ezten, ilarřain ta arřokeriari igesten, aipagarři ta gelgarřiak apalik ostentzen,

edozertan eta yakite orotan ekoizpen adiñona, ta Yainkoaren goreskunde ta aintza bilatzen irakasten dizkigu eskañak. Ez du berarentzat, ez berekoentzat ere aipurik nai; Yainkoa bere oparietan onetsi dedila nayagorik; Beraxek guzia maitasun utsez zabaltzen dualako.

8. Oñelako eskaña, goitiko argi ta Yainkoaren emai berezi bat da, autuen ezaubide berebizikoa, ta betiko osasunaren bagia; berak lufekoetatik ortzikoetara gizakumea yaso, ta aragikoya zana, gogokoya bigurtzen du. Beraz, etorkia ertsi ta eziago eukitzen danez, eskaña ere eruzago ixurtzen da; ta egun oro iker beñiak añturik, giza-barnea Yainkoaren eduz atontzen da.

LV ATALA

Gizakiaren andega

ta Yainko-eskañaren eragimena.

1. Zure iduri ta antzekoa egin izan nazun, Yainko Yaun Oñek, erakutsi didazun eskañ ain aundi ta osabiderako beaña ori indazu; obenera ta mekora

naraman nere etoŕki gaiztoa ezi dezadantzat. Oben-agimena nere aragian oaitzen dedalako, gogo-agimenari buruz ari dana, ta askotan iritsei men egitera loturik naramana; ta aren giriñei ezin gogor egin dizayeket, zure eskaŕ deuna lagun ezpa-datoŕkit, nere biotzean eruz ixurita.

2. Zure eskaŕa beaŕa det, baita eskaŕ yoritsu ere, gaztetanik gaizpera dan etoŕkia ezteko. Alabañan, lenbiziko gizon Adan'ek gizakia uzkañi ta obenak nañiatu zuan-ezkero, kutsu auren ñokua gizakume guziengana yetxi da, ta aŕezkero, Zeoŕek on eta zuzena egin dezun etoŕkia berberaxe, orain etoŕkiaren iro ta andegá deritza, bere yasak gaitzera ta bekoetara berez daragi-ta. Gelditu zayon indaŕ apuŕa, auspean estalitako txingara bezela dalako. Alakoxea da berez adimena, laño lodiz lausotuta, bana gaitzetik ona bereizteko, ta egiatik izuna bakan tzeko sena oraindik daukana; onesten duan guzia bete ezin-aŕen, ezta egiaren argi osorik, ez lera zindorik euki ez-aŕen ere.

3. Argatikantxe, baŕneko gizonari

nagokiola, zure aginbidea atsegin baitet; zure agintza on, zuzen eta deuna dala, baita inñolako gaitzi ere aitzikoa zayola yakiñik, eta obenari iges egin beař zayola ezagunik. Baña aragiak naramala, obenbideko mořoitzan nago, adimenari baño geyago, iřitsei men egiñik. Argatik ona nai izatea nere mendean dago; baña burutu-biderik ez det aurkitzen. Argatik ere, maizetan asmo onik asko darabilzkit; baña nere ergaltasuna laguntzeko eskařa peitu zaidalarik, eragozkin lipitsagatik ere atzera noa ta ok egiten det. Argatik ere, zindobidea dazaut, eta nola yardun beař dedan argi xamař dakust; baña nere aztak berak lardakatzen naula, obetara ez naiz igotzen.

4. ¡Zein beař dedan, Yauna, zure eskařa, onbidean asi, yafařitu ta bukatzeko! Bera gabe ezer ezin; berak, osterera, azkařtuta, dana egin dezaket. ¡Goitiařa ziñez zerañ eskař ori! Ez dago zu gabe inñoren irabazpiderik, ezta etořki-emař goralgařirik ere. Eskariř gabe ezer ez da, Yauna, zure aitzlñean antzea, ezer ez aberastasuna, ezer ez edeřtasuna naiz indařa, ezer

ere ez asmargia ta mintzo azkaña. Etoñki-emayak on-gaiztoentzat erkide diralako; baña autetsiak eskaña edo maitasuna dute emai berebizikoa; ta santzu au daukatzenak betiko bizitza ardiesteko lain dira. Eskañ au gabe ezerez aintzakotzat iritzi beañ dira igeritzeko emaya, alatzak egitekoa ta sokunik gorena ere. Oñenbesteraño garai da eskaña. Ziñesmena bera, itxaromena ta beste ekandun on guziak ere ez zaizkizu gogokoak maitasun eta eskañik gabe.

5. ¡Eskar zori onerakoa! ¡gogolandeña aberastu, ta aberats-okituaren biotza apalberatzen dezun eskaña! Atoz; nigana yetxi; zure pozez lenbait len bete nazazu, ez dedin gogo-aunoz ta legoñez nere biotza akitu. Zure begitan, Yauna, abegi ona izan bekit, añen; zure eskaña aski dedalako, nere etoñki-yasak irikatzen duten beste edozer iritxi ez-añen. Atsekabe pañastan zirikatu ta ertsatuko ba-nindute ere, ez naiz kalteren beldur izango, zure eskaña nerekin egon-ezkero. Beraxe da nere indaña, berak onu ta laguntza damaizkit. Etsai guziak baño bera da

indañtsuago, ta yakitun oro baño yakitunago.

6. Bera da egiaren irakaslea, araubidearen erakuslea, biotzerako argia, kezkaldirako pozkiña, atsekabearen oiltzalea, belduñ-kentzalea, azkuaren azlea, ta negañ-soñtzalea. Bera gabe, eguñ igañ ta bota beañ dan enboñen bat ezik ¿zer ote naiz? Beraz, nere aũe-atzetik zure eskaña beti bebil, ta eginbide onetara ernai benauka, Yosu Kisto zure semearen edeñagatik. Ala bedi.

LVI ATALA

Burua ukatu, ta guruzpidean

Kisto'ren antza aũtu beañ degu.

1. Ene semea, zugandik irten aña, Nigana igaro zaiteke. Lekorean ezer ere ez irikatzeak bañnea naretzen duan bezelaxe, norbera bañnez uzteak Yainkoari itsasten dio. Zeran ori, iñon ta erasirik gabe nere naitara osoki ukatzen dakizula nai det. Zañaikit; Ni naiz bidea, egia ta bizitza. Biderik gabe ez dago yoaterik; egirik gabe ez dago ezautzerik; bizitzarik gabe ez dago bi-

zirik. Ni naiz egin beaŕ dezun bidea, ziñetsi beaŕ dezun egia, itxaron beaŕ dezun bizitza. Ni naiz biderik zuzena, egirik gorena, bizitza yatoña, bizitza zori ontsua, irazan ez dan bizitza. Nere bidean ba zaudeke, egia dazaukezu, ta egiak yareingo zaitu, ta betiko bizitza iritxiko dezu.

2. Bizitzan saŕtu nai ba-dezu, agintzak bete itzazu. Egia ezautu nai ba-dezu, ziñetsi egidazu. Bikaña izan nai ba-dezu, dauzkazun guziak saldu itzazu. Nere ikaslea izan nai ba-dezu, buruari uko egiozu. Zori oneko bizitza nai ba-dezu, oraingo bizitza arbuya ezazu. Donokian gora izan nai ba-dezu, ludian apal zaite. Nerekin buruzaitza erkidetu nai ba-dezu, nerekin ere gurutza eramazu. Gurutz-yopuak bakaŕik zori onerako ta argi utserako bidea didorotelako.

3. Yosu Yauna, zure bidea meaña ta giza-begitan nardagaña dala-ta, indazu gizakeriak nardatzen Zuri yafaitzeko eskaña. Ez dalako otseña bere nausia baño aundiago, ezta ere irakaslea baño gurenago. Beraz zure bizitzaren ereduz yardun beza zure otse-

ñak; artan daudelako ene osasuna ta zindotasun yatoña. Andik alde irakuñi ala entzuten dedan ezerk ere ez zait atsegin, ez pozkin beterik.

4. Ene semea, guziok yakin eta irakuñi dituzun-ezkero, zori ontsua izango zera, burutuko ba-dituzu. Nere aginduak iñork eutsi ta betetzen ba-ditu, beraxek maite nau, ta Nik ere maite izango det, eta aurrkeztuko nantzayo, ta nerekin exeri-eraziko det nere Aitaren yaureñian.

5. Yosu Yauna, esan eta abindu dezunez, egin bedi ta artarako gai, añen, nagizu. Gurutza zure eskutik aurtu det; eramango det, eta ilarteraño eramango, egotzi didazunez. Lekaide zindoaren bizitza gurutza bai-da, baña atsedenerakoa. Arloa asi da; atzerabiderik ez dago; uzterik ezta ere.

6. ¡Eup anayok! goazen elkarëkin; Yosu gurekin dagoke. Gurutz au Yosu' rengatik aurtu degu, gurutzean Yosu'rengatik iraun dezagun. Gure lagun izango zaigu, gure aurrelari ta buruzagia dana. Ara, gure aurrean gure Yauna irten da, gure aldez burukatzeko. Gizonki deñayogun; iñor ez bedi ikara,

ez betdur izan; gudan azkañki iltzeko gerturik gauden; ez dizayogun gure aintzari gerenik egotzi, gurutzari iges egiñik.

LVJI ATALA

Iñor ere ez da kokildu bea, uts bat edo bat eginda ere.

1. Ene semea, eraraldiko atse ta azkua baño, atsegiñago ditut loñaldiko yasapen ta apaldasuna. ¿Zertara goibeltzen al zaitu zure lepotik iñork darasaken izki-mizkiak? Geyago Izango ba-litz ere, ez ziñake kezkatuko bea. Anañtean apur ori laga, ez da lenbizikoa, ez beña, ez azkena ere izango, luzaro bizi ba-zera. Kementsu naiko oi zera, naigaberik ez zaizunean gertatzen. Itun onak ere besteentzat oi dituzu, ta erausketan indartzen ba-dakizkizu; baña zure atera bapetan loñak yo duanekoxe, aolku ta kentena aitzen zaizkizu. Gertakari txikietan ere somatzen dezun zure ergaltasun aundia begirazu; guziok, baña, ta alakotsuek yazotzen diranean, zure onerako gertatzen dira.

3. Gibel aundiago zaite, ta areago yasateko gertu. Loñez maizetan naiz ziltza lañiz zaudelarik ere, ez du zureak egin. Gizakumea zera, ez Yainkoa; aragia zera, ez gotutsa. ¿Onbidean beti bat zeori nola zaudeke, artarako lain ezpa-zan izan gotutsa donokian, ezta lenbiziko gizona atsedegian ere? Ni naiz lañitsuak yarei eraikitzen dituana, eta beren ergaltasuna dazautenak nere Yainkotasunera yasotzen dituana.

4. Yauna, onetsi bedi zure itza, aberaska ta ezta baño nere aboarentzako gozoago dan itza. ¿Zer egingo al nuke ainbeste loñ ta kezka artean, zure erausi deunetaz ezpa-ninduzu sendatuko? Sirats-ditxora azkenean baldin ba-naramakezu, zer ta zeinbeste yasan izan beañ nituanik, ayola gutxi. Azaga ona indazu; luñ aunetik irten zori ontsua indazu. Nitzaz oroï zaite, ene Yainkoa, ta bide zuzenetik zure yaureñira arteztu nazazu.



LVIII ATALA

**Goikoak eta Yainkoaren
ebazpide ostenak
ez ditugu ikeri bear.**

1. Ene semea, ayola zaite goiko gairik eta Yainkoaren erabazpide ostetik eztabaidan ez erabiltzeko; zer dalata ori ofela utzi, ta ura arenbesteko eskafera artu ote danik; zergatik urlia ofen neketan, ta berendia ain gora yasorik ote dagonik. Guziok giza-adimena gainditzen dute, ta Yaunaren ebatzak ikeritzeko adibiderik edo azterketarik ez dago. Beraz, ofelako oltozkunak etsayak naiz lagun beritsu batzuek idarokitzen dizkizutenean, Igarlearen erantzun au emayezu; Zuzena zera, Yauna, ta zure ebatza arteza da. Baita arako ura ere; Yaunaren ebatzak egitsuak dira, ta berenez zuzenak. Belduez artu bear dira nere ebatzak, ez noski eztabaidaz; ezin uleitu ditzakelako giza-adimenak.

2. Ayola zaite, deunen irabazpide-tzaz ez ikerketan ez eztabaidan ari izateko; nor ote beste inor baño deunago

zanik, ala yaureñian aundiago. Oñelako erausiak auzi ta liskarñak soñtu, ta añokeri ta urgoitasuna azi oi dituzte; ta andik iñartsi ta aseñea ernetzen dira, batek arako deuna, ta bestek beste bat goraltzeko mutiriki buñukatzen diralarik. Baña yakingale ta ikermiñok etekiñik ez dakañte; ostera ere, deunei gogaikañiak zazkie; ez naiz, ba, Yainko liskañti, bai noski, gentzatia; ta norberaren anpuruskerian baño, benetako apaldasunean noskiago gentza dago.

3. Batzuek maitasafe-atazaz deun batzuengana naiz bestetzuengana bereziki leñatzen dira; baña Yainkoagandik baño geyago, gizagandik soñtutako leraz. Ni naiz deun oroen egiñea; Nik eskaña, Nik aintza eman dizkiet. Nik bakoitzaren irababazkunak dazauzkit. Nik adei ekañi diet nere opari eztitsuz. Nik nere kutunak aldi oro baño len auñezagun ditut. Nik eskañez deitu, eñukiz atotsi, ta askotariko ziltzatarñtean erabili ditut. Nik atse zorañañiak ixuri, Nik iraun-indaña ta yasan-saria eman dizkiet.

4. Nik lenbizikoa ta azkenekoa dazauzkit; Nik oro idegabeko leraz laz-

tantzen ditut. Ni deun oroengan goretsi beař naiz, ta atik geyen bakoitze-gan, onetsi ta goraldtu; aurfetiko irabazkunik berenez ez zutela, ořenbesteko aintzara yaso ta lendik autu nitualako. Beraz, nere umerik txikienetako bat ere ezesten duanak, aundia ere ez du goratzen; txikia ta aundia Nik egin ditudalako. Ta deunetako norbait gutxi esten duanak, Nerau ta nere yaurefiko beste deunak gutxi esten gaitu. Guziak bat dira maitasare-lokařiz; guziak iritz batekoak eta nai batekoak dira; ta guziak bat eginda, elkař maite dute.

5. Ta geyago dana, Ni, beren buruak eta beren irabazkunak bařno maitteago dute. Alabařa, beren gañez eginik, eta beren baitarako ayeřatik irten-da, Niganako maitakuntzara igarotzen dira, ta artan goxoki atsedeten. Artandik atzera ta erauzi ditzakenik ez dago-betiko Egiak bete, ta ezin itzali diteken maitasun-gařak eřetzen ditualako. Ixi-lik beude, ba, abere-ideko gizakume aragikoyak; norberaren atseginkeria besterik maite ez dutenak : ez bitez yardu-kotan ari deunen inkatzaz. Kentze-kotan eta geitzekotan, beren ayeřari,

ez betiko Egiaren atsegiñari dañayote-la diardute.

6. Lagunik asko yakiñezak artaritzen ditu; batez ere, argi uñi dutela-ta, iñorik gogo-lera bikañez maitatzen ozta ez dakitenak. Oñelakoek biotzak berez batzuengana ala bestetzuengana daramazki; ta luñekoetan oi diardute-nez, ortzikoak ere alakoxeak dirala uste dute. Baña gogo marketsoak asmatzen dutenatik goiko agerpidearen argitan dabiltzanak dakusteneraño dagon bitañtea luzea ta alaena da.

7. Ayola, ba, zaite, ene semea, zure adingañean dauden oñelakoetaz yakinmiñez yarduten ari ez izateko; ekin, ordea, ta egiñala egizu yaureñian egoteko, txikiena zeralarik ere. Nor beste iñor baño deunago, ta yaureñian yasoago danik iñork ba-leki ere; ¿yakitite ori zertarako al litzayoke, andik nere auñean burua apaltzeko, ta nere izena goratzeko, yeikiko ezpa-litz? Aundiago ala txikiago nor ote dan leyatzen ari diranik baño obeki Yaunaren begitan diardu, bere obenak zein lañi, ta bere zindotasuna zein uñi dan, baita deunen bikaindasunetik zein uñun

dagon gogaltzen duanak. Obe da deunen-gana añez ta negañez urbiltzea, ta ayen bitartekuntza gogo apalez eskatzea, beren zadoñak alpeñikako azterketan ikeritzea baño.

8. Berak ondo ta guziz isituta daude, gizakumeak asetzen eta berikeriak ināustea ba-dakizkitez. Beren irabazkuntzetan ez dira ināaintzen, on bat ere ez dietelako beren buruei egozten: on guzia, osterā, niri egozten didate, neñigabeko maitasañez guzia eman diet-eta. Yainkoaganako maitasunez ta gañez egiten dien pozez okituak diralarik. aintza-pitsik ere ez zaye peitu, ezta zori onerakorik ezertxo ere ezin peitu zaye. Deun oro, aintzan goitiago diran bezain apalago ere beren baitan, eta niretzako urāgo ta maiteago dira. Argatik Idazteunean didorokezu, beren burestunak Yainkoaren aitziñean yaurtitzen zituala, ta Bildotsaren aũean auzpez erortzen zirala, ta mendearen mendetan bizi dirana yauresten zutela.

9. Asko dabilta yakin nairik yaurerian aundiena nor ote danik; txikiekin ere bizi izateko laintzat etsiko ote diranetz ez dakitela. Zori aundi

da yaureñian txikiena beintzat izatea; guziak antxe aundiak diralako, guziak Yainkoaren semeak deitu ta izango diran-ezkero. Txikiena, anei aña izango da, ta eun urtedun obendia ilko da. Yaureñian aundiena nor ote zanik ikas-lariak galde egin zutenean, crantzun au entzun zuten; ezpaziñate aurtxo laboak biguri ta egingo, donoki-yaureñian ez zerate sartuko. Beraz, aurtxo aunen eñera bere burua apalduko lukena, orixe yaureñian aundiena da.

10. Gaxoak, noski, aurtxoekin apal izan nai ez dutenak; yaureñiaren ate apalak ez ditualako sartzen utziko. Gaxoak baita ere, beren atsea emen duten aberatsak; landeñak yaureñian sartu, ta berak atauréan adiaka geratuko diralakoan. Poz zaitezte, apalak; yauzi, landeñak; zurea da-ta yaureña, zintzoki ba-diarduzute.

LIX ATALA

Yainkoagan bakarik entzite ta itxaropen guzia ipiñi bea da.

1. Yauna, ¿zein da biztaldi aurretan nere entzinbidea? ¿ta ortzipean na-

bari danik atsegiñena zer al det? Ez ote zu, ezin neuñi alako erukitsua zeran, nere Yainko Yauna? ¿Non egoal izan ote det, Zu gabe? Ta beñiz, Zu nere aurkian-ezkero ¿noiz gaizki ibili ote naiz? Nayago det Zugandik lande-ña izan. Zu gabe aberatsa baño. Lur-ean Zurekin atzeñita ibili obetsi det, Zu gabe donokia euki baño. Zu iñon-ezkero, antxe donokia; Zu iñondik urun, antxe eriotza ta gaiztokia. Zure ifitsan nago; ta argatik zure ondoren adia, ots ta otoi egin bear ditut. Ene Yainkoa, nere bearkunetan urgazi ego-kiago lemaidaken iñorgandik ere ziero ezin entzindu naiteke, Zugandik baka-rik baizikan. Zu zera nere itxaropena; Zu nere entzinbidea; Zu edozertan nere pozki-erik zindoena.

2. Nor berea danaren bila guziak dabilta; Zeorrek nere osabide ta eteki-ña bakañik nai dituzu, ta nere onera dana bigurtzen didazu. Askotariko ziltza ta neketar-tean yartzen nazunean bertan, guzi ori nere mozkiñera artez-ten dezu; zure autetsiak askotara azta-katzen dituzula. Ez zaitut, gero, or-ela azterkatzen nazunean, gutxiago maite

ta goretsi beaŕ, goi-atsez okituko ba-
ninduzun baño.

3. Zugan, beraz, nere uste osoa ta
nere gorkua ezaŕi ditut, ene Yauna;
Zeoŕi nere loŕ ta kezka guziak egozten
dizkizut; erkin eta koloka ez danik
zure lekorean ez dakustalako. Iñori,
ba, onik ez dakaŕkioke aizkide-kopu-
ruk; laguntzaġe azkaŕak urgazirik ezin
eman ditzayokete, ezta aolkari zuŕak
onu adiñoŕik ere; yakitunen idaztiak
atserik ezta; aberastasunak iñorik ezin
yarein dezake; bazteŕ erosorik ez da-
goke iñor babesteko, Zeoŕek ezpa-
dezu sorozten, laguntzen, azkaŕtzen,
pozten, irakasten ta babesten.

4. Gentza ta zori onerakoak diru-
diten guziak, ezer ez dira-ta, Zeoŕi
aurkian egon-ezik; ta zori onaren ku-
tsurik ere ez dakaŕte. Zu zera, ba, on
guzien itufia, bizitzaren erpiña, ta era-
sien zingoa; ta oroen gañean uste ona
Zugan ipintzea, zure otseñei atserik
azkaŕena zaye. Zuganontz ene begiok
ari dira; Zugandik entziten naiz, ene
Yainko ta Aita erukitsua. Goi-ones-
kunder gogo au onetsi ezadazu, zure
egoitza ta zure aintza betikoaren aul-

kia izan dedin, ta zure begiei gogait litzayekenik ez dedin aufkitu Goikoa zeran Oren yauretxean. Oren on ta erukibera zerala-ta, sorotzi nazazu, aren, ta eriotzalde itzaltsuan atzerituta dabilan zure otsein gaxo aunen ofoya adizu. Biztaldi ustelgari aunen ainbeste gaizpide tar-tean babesi ta zai ezazu zure yoputxoaren gogoa: ta, zure eskaña lagun, gentza-bidetik beti ozkarbi dan erira eramazu. Ala bedi.

LAUGARĒN IDAZTIA

Yaupa-maiko ikuřtona.

Yaunařtzeko dei azkutsua.

KISTO'REN OTSA

Nigana atozte nekez ta zamaz zabil-
tzaten guziok; ta ilik zuzpeřtuko zai-
tuztet--dasa Yaunak.--Nik emango de-
dan ogia nere aragia da, giza-bizkoř-
tzeko. Ařtu ta yan ezazute; au da-ta
zuen aldez ilko dan nere sořa; ori
zuek ere egizute, Nitzaz oroitzeko Nere
aragia yan eta nere odola edaten dua-
nak, Nigan dirau, ta Nik ere argan di-
raut. Esan dizkizutedan itzok gogo ta
bizitza dira.

I ATALA

Zeinbesteko begirunez

Kisto ařtu beař dan.

IKASLEAREN OTSA

1. Zureak itzok dira, Kisto, betiko
Egia; beingoan esanda, ta yařain ida-

tzita ez-añen. Beraz, zureak eta egitsuak diralako, pozik ta zintzoki aitu beari ditut. Zureak dira, Zuk esan dituzulako; baña nereak ere dira, nere osabiderako esan dituzulako. Zure aotik oldez aitzen ditut, nere biotzari ondo itsatsi datzaizkion. Ezti ta leraz betetako itz ain samur oyek pizkoitzen naute; baña nere obenak izutzen naute, ta nere barne zantarak ofenbesteko zardokizunak aitzetik estiratzen nau. Atosten bai-naute zure itz samurak; baña nere girin txar ugariok toiltzen naute.

2. Zugana entziñik urbiltzeko agintzen didazu, zure erkidea izan nai badet; ta ilezkoitasun-azkuria aitzeko, betiko bizitza ta aintza iritxi nai baditut. Atozte-diozu-nekez ta zamaz zabilzaten guziok, ta Nik zuzpeertuko zaituet. ¡Ori dute dei gozo ta kuruna obendien belarriak! Zeorrek, ene Yainko Yaun Orek, obendi gaxo ta landerari dagiozun zure soin deun deuna yaterako deya! Baña ¿nor ote naiz, Yauna, zugana urbiltzen azartzeko? Ara, ortzi zabalak ezin eden zaitzake, ta ¡Zuk dasaiguzun; atozte Nigana guziok!

3. ¿Zertarako al dira adei samur ta dei laztan orek? ¿Zugana yoaten nola azartuko naiz, nere baitan entzinbiderik oartzen ez dedala? ¿Nere etxera nola sartuko zaitut, zure begiok maiz minkaiztu dizkizudan neraunek? Gotzon ta gotzonburuak zure begirunez daude; deun eta doneak zure beldur dira; ta ¿Zuk dasaiguzu; atozte Nigana guziok? Yauna, Zeorék ori esan-ezik ¿nork ziñetsiko al luke?; ta Zeorék agindu-ezik, ¿nor urbiltzen azartuko al litzake?

4. Arako gizon zindo Noe'k eun urtez kutxa antolatzen ari izan zan, eli batekin gaizkerik gelditzeko; ¿nola, ba, ni, oroen Egilea, dagokian begirunez artzeko gertu al naiteke gabeuki baten? Zure otsein aundi ta aizkide mamitsu Mois'ek ezin ustel alako zurez kutxa egin, eta ure garbiz estali zuan, Agintza-olak bertan ipintzeko; ta ni, ustelkin au azartuko al naiz Agintzaren Egilea ta bizitzaren emalea ain erazki artzen? Salomon'ek, Israel'go bakaldunik zurenak, zazpi urteko lanez yauretxe eder edera eraiki zuan zure izena goresteko, ta aren adelu-yaya

zortzi egunetan egin zuan, anei gentzaro-ropa il zituan, eta Itun-kutxa adarotsez ta kirolez berarentzat aton dutako tokian ospetsuki yañi zuan. ¿Nik, ba, gizagaxo zirtzil aunek nere etxera nola sartuko al zaitut, ordu-erdi bat azkuz eramaten ozta dakidalarik? ¡Ta ordu-erditxo òri bederen beañ danez beñere ai-nu eramango!

5. ¡Ene Yaungoikoa! ¡Ayen ziran zure edeñagatik alegiñak! ¡Aunen gutxi, beñiz, dan neraunek dagidana! ¡Zein aldi labur beletzen dedan, gogoa yaunañtzeko gertutzen! Gutxitan ene baitan osorik bilduta nago; gutxiagotan are gogo-bañeyakeririk gabe. Ta benaz, Yainkoa zeran Oñen begitañtz osa'koñen aũean ez litzaidake oldozkun zantañik otu, ezta ezerk besterikan ere ez ninduke arazotu beañ; ez det, ba, gotzonik etxean sartuko, gotzonen Yauna baño.

6. Baña Itun-kutxatik bere bañekoekin, zure Soin guziz garbi ta indañ bikañez apaindueraño; ta berebat, gero-ko yauretsopak ikuñtzeko beñola agindutako opaetatik, antziñeko opa guzien betekoa dan zure Soñaren be-

netako oparaño, bitarte luzea baño luzeago dago.

7. ¿Zergatik, ba, Zugana alderatze-koan ez al naiz geyago izekitzen? Antziñeko arbaso, igarle, bakaldun ta nausi ayek lagunabar guziekin yau-reskunderako lera ain garitsu ageri zutela, ¿zergatik nerau ez al naiz zure ikuñtona yoranezago gertutzen?

8. Dabid, bakaldun yainkozale ura, Yainkoaren kutxa-auñean yauzika yoan zan, beñola arbasoei egindako onaurkiak oroiturik: askotariko erestaluak egin zituan; eresiak atera ta pozez abesteko erabaki zituan; Israel'eriari irakasi zion Yainkoa biotz-biotzez goresten, ta abotsak batuta egun oro onetsi ta iragaritzen. Ofenbeste azku aldi artan ba-zebilen itunkutxa-auñean, ta Yainkoa goresteko ofenbeste yoran ba-zan, ¿zeinbeste begirune ta garrez nerau ta Kisto'eri dana ari bear al gera Ikuñtonaren auñean, ta Kisto'ren Soin bikainbikaña artzekoan?

9. Of-ara berein dabilta deunen uzkiñak ikusteko; ayen egiñak entzunda, aritzen dira; ayen eliz zabalak arakutzen dituzte, ta zirikeunez ta urez

estalitako ayen ezurēi muin egiten die-
te. Oŕa, ba, emen bertan, yaupamayan
nere aurēan zaude osoa, ene Yainkoa,
deunik deunena, gizakumeen Irazlea ta
gotzonen Yauna. Alako ikusketan ya-
kingale ta berimiña ari dira askotan;
ta obekuntza gutxi atera oi da, batez-
ere ain eŕazki ibiltzen danean benetako
garbairik gabe. Emen, ordea, yaupa-
mayan zeran oso Ori zaude, ene Yosū
Kisto, Yainko ta gizona batean; ta be-
tiko osasunerako zitu ugariago biltzen
da, egokiz ta azkuz aŕtzen zeran ba-
koitzean. Oŕtara ez garama iñongo
arinkerik, ez yakinmiñek ala iŕiskerik;
ba-garamate, ordea, ziñesmen sen-
doak, itxaromen zindoak eta maitakun-
tza utsak.

10. ¡Ene Yainkoa, ludiaren Egile
ikusit ezin zaitekena! ¡zein aŕigaŕiro
gurekin diarduzun! ¡Zein zamurki ta
adeyez zuretzat bereiztu dituzunak da-
rabilzkizun, zeran Orixe berei azkur-
tatzat eskeñirik! Adimen oro gainditzen
ditu oŕelako yardunbideak; ta azkutien
biotzak batez ere zugaratzen eta iraze-
kitzen ditu. Bizi osoa obetzen ari diran
zure yaraitzale zintzoak, Ikuŕton guren

aunetatik maiz aítzen dituzte azku-eskañ aundi ta onbiderako leya.

11. ¡Zein dan añigañi ta osten Ikuñ-tonaren eskaña! Kisto'ren yañaltzaleak bakañik dakite; zingeak eta obenaren otseñak ezin somatu dezakete. Ikuñton aunetan gogo-eskaña ematen da, ta galdutako indañ ona biotzean lengoratzten da, ta obenak ezaindutako edeñtasuna pizten da. Gogoak ez-ezen, soin makalak ere azkuaren azkuz indañ sendoagoak geitu zazkiela somatzeko aña, eskañ ori noizpait ugaria da.

12. ¡Abek dira, baña, negañgañi ta eñukañiak gure epeldasun ta zabañkeria! Gaizkatu beañ diranen itxaromen ta irabazpide osoa Kisto'gan daudela ere, Kisto'gana ez gera-ta gañtsukiago leyatzen. Bera da gure zindokuntza ta gaizkabidea; Bera bidaztien poza, ta deunen betiko atsegiña. Beraz, ortzia poztu, ta ludia iraun-erazten duan ikuñton osakoñ au askok ain gutxi oañtzen dutela-ta, samiñez negañ egin beañ degu. ¡Giza-biotz itxu ta gogoña! ¡ezin esan alako emai ori oñen gutxi begiratzten, eta egun oro darabiltzulako, oañtzen ere ez dezula-ta!

13. Ikuñton guren au toki bakaf baten ospatuko ba'litz, ta luñeko yaupari bakaf batek eskeñiko ba'lu; itoki artara ta yaupari arengana gizakumeak zein iritsan yoango liraken, Yainkoaren zadoñkiak ospatzen ikusteko! Engoitik, ordea, yaupariak eruz ditugu, ta toki askotan Kisto eskeintzen da; luñean yaunañtzea bañeyago dan aña, eskaña ere ta Yainkoaren gizaganako maitasaña nabariago izan dedintzat.

Eskañik asko, Yosu ona, ta betiko artzaya, atzeñiko landeñok zure Soin ta Odol bikañez zuzpeñtu nai gaituzulako, darauskigula; atozte Nigana nekez ta zamaz zabilzaten guziok; eta Nik zuzpeñtuko zaituet.

II ATALA

**Onbera ta maitatzañlea Ikuñtonean
Yainkoa agertzen zaigu.**

IKASLEAREN OTSA

1. Yauna, zure biotz bera ta eruki-tsuagandik entzinda, eri naizan au sendaktñari; gose ta egafi, bizitzaren ituñari, landeña, ortzi-bakaldunari;

otseña, yaunari; irazakia, irazleari; atsekabea, nere pozkile urikaltsuari natořkizu. Baña ¿zer dala-ta, Zeori al zatozkidazu? ¿Nor al naiz ni, zeran Orixe eman dizadantzat? ¿Zure aurėean obendia aurkezten nola asartzen al da? ¿Ta Zu, beriz, obendiagana etortzeko adeirik nola al dagizu? Zure otseña bai-dazauzu; ta adei ořetarako laingo onik berak ez daukala bai-dakizu. Nere txatxařkeria, beraz, aitorřten det; zure biotzbera dazaut; zure eřukia goratzen det, eta geyegi maite nazulako, eskař-ordaña itzultzen dizut. Zerez, ba, ez nik irabazita, ořela dagizu; zure biotzbera ageriago, maitasařea itsatsiago, ta apaldasuna gorantziago izan datzaizkidan. Beraz, ori atsegin dezulako, ta egiteko agindu dezulago, neraunek ere zure adeya atsegin det. ¡Nere gaiztakeriak ez ai-lu eragotziko!

2. ¡Ene Yosu, guziz ezti ta biotzbera! ¡Zein begirune, ta eskař-ordain, ta betiko goreskunde zoř zaizkizun, zure Soin deuna ařtutakoan; aren gurentasuna azaldu dezakenik gizakume bat ere ez dagolarik! Baña ¿zer oldoztuko ote det oraingo yaunařkuntzan,

beaŕ danez ezin guŕtu dezakedana, azkuz aŕtu nai dedan Yaunagana alderatzean? ¿Zer burubide obe ta egiagorik, nere burua zure aitziñan apaldu, ta egin didazun adei neurígabekoa goraldubano?

3. Onetsi ta beti ere goresten zaitut, ene Yainkoa; nere burua ezetsi ta zure azpian ezaŕtzen det nere ixatxaŕkeŕian sakonduta. Oŕa, Zu deunik deunena zera; ni, beŕiz, obendirik doloŕena. Oŕa, Zugana begiok yasotzeko ere lain ez naizan aunengana, Zeori ma-kuŕtzen bai-zera. Nigana zatoz, nerekin egon nai dezu, zure maitara deitzen nazu. Yateko eman nai didazu ortziko azkuŕia, gotzonen ogia, Zeorixe zeran ogi bizia, ortzitik yetxia, ta gizakia bizkoŕtzen dezuna; ez, beintzat, oŕko ogi edozelakorik.

4. ¿Oŕa, maitakuntzaren soŕkUNETIK zein adeik argi dagian! ¿Zeinbeste gorakunde ta eskaŕ zoŕ zaskizun augatik-an! Ihuŕton au irasi dezunean ¿zein osakoŕ ta adiñon zan zure asmoa! ¿Zein gozo ta atsegin utzi diguzun oturuntza, zeran Orixe yanaritzat eman diguzunean! ¿Zein dan aŕitzeko zure eginbi-

dea! ¡Zein altsu zure indaía! ¡Zein aparabear zure egia! Itz egin dezu, ta zertu zan dana; ta agindu dezun uraxe egin da.

5. Añitzeko aña, ta ziñesbeara, ta giza-adimena gainditzen duana au da; Zu, ene Yainko Yauna, benetako Yainkoa ta gizona zeralarik, ogi ta ardo pixka baten irudipean zaude osoa; ta aítzaleak, Zu aitzeke, yaten zaitu. Ezeren bear ez zeran, guzien Yaun Oñek, lkurtonaren bidez gugan bizi nai izan dezu. Nere biotza ta soña garbirik yagon itzazu, biotz txairoz ta garbiz zure ostentak ospatu, ta nere osakunde betikorako aitu ditzakedan, zure, aintzabidetzat ta betiko oroikintzat batez ere, aíteztu ta yañi dituzunak.

6. Poztu zaitte, ene gogoa, ta eskañak Yainkoari egizkiozu, ibañ aunetan utzi dizun emai bikain ta atsegin berezi aunen ordañez. Ezkutuki au gomutaratzen, ta Kisto'ren Soña aítzen dezun bakoitzean, zure eroskundera ere beñitzen dezulako, ta Kisto'ren irabazkidea egiten zeralako. Ez da, ba, Kisto'ren maitasaña beñere uñitzen, ezta Aren adei yoritsua beñere aítzen. Ar-

gatik, gogoa beti beñizturik, artarako gertutzen ari izan, ta osnkuntzaren zardoki aundia oar-oarez gogoan erabili bea dezu. Egun bertantxe Neskutsaren sabelera yetxita, Kisto lendabizi gizatu, ala gurutzetik exegita, giza-osabiderako nekatu ta il ba'litz bezain aundi, beñi ta atsegintzat iritzi bea dituzun yazokunok, yaupa ematen, naiz entzuten dezu-nean.

III ATALA

Adiñona da maiz yaunañtzea.

1. Oña natoñkizu, Yauna, zure emaiz gordintzeko, ta landeñei atondu diezun oturuntzaz pozteko. Oña, Zngan dago gura ta bea dedan aña; Zu zera nere osakuntza, yareikuntza, itxarobide ta indaña, nere dedu ta aintza. Poztu ezazu, beraz, engoitik zure otseñaren gogoa; nere gogoa Zugana, Yosu Yauna, yaso-det-eta. Azkuz ta begirunez ointxe abetaldu nai zaitut; nere etxera Zu ekañtzeko iritsan nago; zure onespena, Zakai'k bezela, ta Abraham'en semetañterako sañpidea irabazteko. Nere gogoa zure Soñaren gose da; da; nere

biotza Zurekin bat egiteko ifikitzen dago.

2. Zeran ori indazu, ta aski det; Zu gabe, poztu nazakenik ez dago-ta. Zu gabe ezin nagoke; ta zure ikerik gabe ezin bizi naiteke. Argatik, Zugana maiz urbildu bear det ta nere osabidet-zat artu bear zaitut; ez dedin bidean akitu, ortzi-azkuñia pettu zaidalarik. Ze-orek, ba, lagunabarak irakasten eta askotariko eriak sendatzen ari ziñanean, beñola esan zenuan; ez ditut etxera barurik igori nai, ez ditezen bidean amikatu. Orelaxe, beraz, nerekin orain egizu, zindunen atsegitzat lkur-tonean gelditu zeran-ezkero. Zu zera, ba, gogoaren azkuñi gozoa; ta bear danez yango zaituana; betiko aintzaren erkide ta onordekoak izango da. Ainstetan obenera lefutzen, eta oren berealaxe toildu ta amikatzen naizan aunek, saritako otoiz, aitoréz, ta zure Soin-arpenez biotza beñitu, garbitu ta ixio bear det; eliku luzez ez dedin asmo zindotikan yausi.

3. Gaizpera diralako gaztetanik giza-giriñak, eta Yainkoaren osakaya ezpadatorkio lagun, gizakumea sordei

sordeyago laster diyoa. Beraz, yaunañ-penak gaitzetik atzeratzen eta onbidean sendotzen gaitu. Alabañan, yaunañtu, ala yaupa ematen dedala ere, zabañ ta epelik askotan orain ba-nago, ¿zer gertatuko al lirake, osakai au ezpa'nu añtuko ta oñenbesteko urgaziren bila ezpa'nenbil? Ta egun oro yaupa emateko gai, ta beañ danez gerturik egon ezañen, ekingo det aldi egokitan goizadoñkiok añtzen, eta oñenbesteko eskañaren erkidea izaten. Auxe da-ta gogo zindoaren atse nausia, soin ilgañiz atzeñian dabiñañ; bere Yauna maiz gomutan erabilirik, bere kuñuna azkuz añtzea.

4. ¡Orixe dan zure eñukiaren guganako adei añitzekoa! Ze ori; Yainko Yauna, gogo guzien irazle ta azkoñtzañlea, gogo gaxoarengana etori, ta aren gosea zure yainkotasun ta gizatasun osoz ase nai dezu-ta. ¡Zein dan zori ontsu ta egoaleko, Yainko Yauna añtzeko, ta añtutakoan pozez okiñzeko lain dan gogoa! ¡Zein yaun aundi añtzen; zein añotz laztan etxeratzen; zein lagun begiko añtzen; zein aizkide zintzo abetaltzen; zein ezkonide eder ta

guren laztantzen duan, maitagañirik eta guragañirik, bai uoski, maitagañiena! Zure aurrean, ene kuñun samuñá, ixilik beude ortzi ta luñá, ta ango apain guziak; zure adeitik ta esku zabaletik añtu dutelako daukaten aratz eta edeñ edozer, eta zure izenaren aintzarik ez dute iritxiko; zure yakinizak mugarik ez du-ta.

IV ATALA

**Onaurkirik asko yaunañtzale
zintzoei eman zaizkie.**

IKASLEAREN OTSA

1. Zure oneskunde eztitsuz aurrendu zatzakio, ene Yainkoa, zure otseñari; zure lkuñton bikañerako urbilbide egoki ta azkutsua irabazi dezadan. Zugana biotza eragidazu, ta lozoño gogoftikan iratzañi nazazu. Zure osabidez ikeñi nazazu, lkuñton aunetan, urkuntzan bezelaxe, ziero ostenik dagon zure eztia gogoz dastatu dezadan. Begiok ere argi zazkidazu, ainbesteko zadoñkia begiratzeko; ta kolokatzeke ziñesteko, sendotu nazazu. Zuk egiña dalako, ez giza-almenak; zure irasku-

na da, giza-asmakunik ez. Gotzonen ere adimen zolia gaintitzen duan oñelakoren bat berez iritxi ta uleñtu lezakunik ez dago-ta. Neraunek, beraz, obendi zirtzil, luñ ta autsa naizan aunek ¿zer igeri ta uleñtu al dezaket zadoñki ain goiti ta deun oñetzaz?

2. Yauna, biotz xaloz, ziñeste on eta sendoz, eta zure aginduz, Zugana urbiltzen naiz lotsez ta uste onez; ta zin-ziñesten det Zu emen, lkuñtonean aurkitzen zerala gizaketz ta Yainkoketz. Baña arñtu zaitzadala ta Zurekin bat egin nadiñai dezun-ekero, zure biotzberagana itzultzen naiz, ta eskaña demaidazula eskatzen dizut, osorik Zugan maitasañez urtu ta gañez eragitekko, ta geroenean bestelako atse baten ere ayola ez izateko, Soin ta gogoaren osakuntza, ta gogo-eri guzien osakaya da-ta lkuñton goiti ta guren au. Bertan nere andegak sendatzen, giriñak ezten, ziltzak azpiratzen ala moteltzen dira; eskañ ugariago ixurtzen zaigu; ekandu on asibeñia azkoñtzen da, ziñesmena sendotzen, itxaromena azkañtzen, ta maitakuntza ixio ta zabaltzen da.

3. Azkuz yaunañtzen duten zure

kuñunei onaurkirik asno lkuñtonean eman eta oraindik ere ematen dizkiezu, ene Yainko Oñek, nere gogoaren atosle, gizakerien osatzaile ta barneñaroko atse oroen emale Oñek. Askotariko loñen aitzika atse ugari ixurtzen diezu, ba; ta norberaren narda-bañenetik zure sorozpidea itxarotzera yaso dituzu, ta eskañ beñi batez zuzpeñtu ta argitzen dituzu. Argatik, yaunañtu-auñean kezka ta biotz idoñez zeudenak, gero ortziko yan-edariz zuzpeñtuta, obera egin dutela oañtzen dute. Oñelako yaufñbidea oi dezu zure autetsiekin; ziñez ezagun dezaten, eta nabari izan datzayen zeinbeste ergal berenez diran, eta Zugandik zeinbeste on ta eskañ iritxi dituzten. Alabañan, berenez otz, gogoñ ta agofak diralarik, Zuketz gañ, leya ta azkua irabazten dituzte ¿Gogo apalez ezti-itufñira ezkerro, ezti-kutsurik gabe nor itzuliko al da? Berebat, su biziren ondoanegonda, zerbeltzeke nor irtengo al da? Zeori zera, ba, itufñi beti bete ta yoritsu; su beti ixio ta iñoiz ere itzaltzen ez dana.

4. Argatik, itufñi betean urketarik ezpa-det zilegi, ezta asebeteraño eda-

terik ere; goiko tutxuluari aboa ezañiko diot, ango ñañña bat edo baten eske, nere egaña asetzeko, ta ziero igañirik ez gelditzeko. Ta osorik goitiñ, ta kerubin eta serapiñak bezain gañtsu ezin ba-naite ere, alegingo bai-det azkutan ekiten, eta biotza atortzen, Yainko-labetik gañtxoren bat bederen ateratzeko, lkuñton bizkoñ au apal-apalki añturik. Ta peitu zaidan edozer, Zuk, Yosu on eta gaizkatzale deun Oñek, biotzberaz ta uñurik nere ordeztz ornitu ezazu; guziok deitu gaituzu-ta, zene-sakigula; atozte Nigana nekez ta zamaz zabilzaten guziok; eta Nik zuzpeñtuko zaituet.

5. Nik, beintzat, aurpegi-izerditan lan egiten det; biotz-miñez oñazetuta nabil, obenez zamatuta, ziltzaz urdurita, girin askotaz ertsi ta naspilduta; ta urgazlerik ez det, yareitzañlerik ez, ezta gaizkatzaleñlerik ere, Zu, ene Yainko ta gaizkatzale Ori izan - ezik. Zuri, ba, naizan au ta nereana dana egotzi dizkizut; zaitu ta betiko bizitzara eramane naza-zuntzat. Zure izenaren goreskunde ta aintzarako atotsi nazazu, añen, zure Soña ta Odola yan-edaritzat ezañi diz-

kidazun Oreek. Ene Yainko Yauna ta gaizkatzaile Oreek, zure zadořkira maiz urbiltzen, nere azkuaren gařa geitzeko eskařa indazu.

V ATALA

**Ikuřtonaren gurentasuna,
ta apaizen bikaindasuna.**

MAITEAREN OTSA

1. Gotzonak bezain garbi, ta Yon Ugutzalea bezain zindo izanda ere, Ikuřton au ařtzeko ala erabiltzeko lain ez ziņake. Kisto-ren Ikuřtona gizonak eskeņi ta erabiltzen, eta gotzonen ogia yaten ba-du, ařtarako eskubidea zoř litzayon giza-irabazpiderik ez dago. Zadořki aundia da ori, baita yauparien gurentasuna aundia ere da; gotzonei eman ez zayena, ayei eman zaye-ta. Doibatzan adiņonez yaupaldutako apaizak bakařtk yaupa emateko ta Kisto'ren Soņa eskeintzeko eskubidea dute. Yauparia, noski, Yainkoaren laguna da, Yainkoaren erabakiz ta aginduz Yainkoaren itza darabilarik; baņa ango egile nausi ta estalitako burutzalea da,

nai aña dezaken, ta zerbait agindu-
kero, orixe mendean daukan Yaun-
goikoa,

2. Beraz, Ikuñton aunetzaz, zure
asmenei, ta ageriko I!teken edolako
santzuari baño geyago, guzia dezaken
Yainkoari ziñentsi beař diozu. Argatik,
belduřez ta begirunez eginbide ořtara
alderatu beař. Zure baitara adi zaude,
ta eskuak gotzañak ezaři dizkizunean.
zein eginbide egotzi zizunik oař ezazu.
Ara, apaiztu zera ta mezarako yaupa-
du; ayola, ba, zaite ařezkero adiñonez,
ta azkuz, ta garai egokitan Yainkoari
opa eskeintzeko, ta akařgaitzat iñoiz
ere ez agertzeko. Ez dezu zure zama
arindu; ostera ere, arau-biluf ertsia-
giotz lotu zera; ta zindotasun bikañagora
igo beařez zaude. Iñongo indař onez apain-
durik egon, ta bizkera zindoaren ere-
dutzat nabarian ageri beař da yauparia.
Ez beza yardun, ořko lagunabařek oi
dutenez; bai, ordea, donokian gotzo-
nak, eta luřean zindoak oi dutenez.

3. Yaupa-soñekoz yantzitako apaiza,
Kisto'ren ordelaria da, bere buruaren
eta eři guziaren aldez Yainkoari eske
ta otoi apalak egiteko. Auře-atzean

Yaunaren gurutz-irudia darama, Kisto'ren nekaldia beti ere oroitzeko. Aurrean darama soñekoan, Kisto'ren aztarnak ayolaz begiratzeko, ta Aren ondoren azkuz yoaten ekiteko. Atzean beñiz darama, lagun urkoen obenak erukiz deitoratzeko; Yainkoaren eta obendiaren bitartekotzat bera yañi dala yakiteko; ta adei ta erukia iritxi-arteraño, opakuntzan ta otoiketari zabañtzeke yarduteko. Yaupariak meza ematen duanean, Yainkoari goreskundera, gotzonei poza, Doibatari azkarbidea biziei urgazia, ta ildakoei atsedena dakarzikie, ta onaurki oroen erkidea bera ere egiten da.

VI ATALA

Yaunañtu-aurrean zertan ari beañ ote danik galdetzen da.

IKASLEAREN OTSA

1. Yauna, zein guren zeran, ta zein zirtzil naizan gogaldurik, ikar-ikara ta lotsak itobeañez nago. Zugaratzen ezpa-naiz, bizitzatik iges noa; ta itsuski aurrkezten ba-natzaizu, oben egiten det.

¿Zer egin beař al det, beraz, ene kez-
kaldian laguntzale ta aolkaria zaidan,
Yainko Ori?

2. Bide zuzena erakuskidazu; yau-
nařpenari legokion iřarkun labuřen
bat irakaskidazu. Adiřona da-ta, nere
biotza beař diran azkuz ta begirunez
nola gertuko al nuken yakitea, zure
lkuřtona etekiņez ařtzeko, ta yauropa
aundi au eskeintzeko.

VII ATALA

Baitaren azteřpena
ta obetzeko asmoa.

MAITEAREN OTSA

1. lkuřton au eskeņi, erabili ta ař-
tzerakoan, biotz apal, begirune eskabe-
ra, ziņesmen bete, ta Yauna goresteko
asmo zintzoa beařik beařenak ditu Yain-
koaren yaupariak. Zure bařnea ayo-
laz azteřtu ezazu; benetako gařbaiz ta
aitoř apalez al aņa garbi ta argi ezazu;
imuřtzi egin, ala uřbilbide zabala era-
gotziko litzaizuken oben lařirikan zure
baitan ez euki ala ez oařtzeraņo. Zure
oben guzien mordoarekiko atsekabe

zaite; ta egun oroko okeñengatik bere-
zikiago negaŕ ta samin zaite. Ta beta-
rik ba-dezu, zure giriñen andega gu-
ziak biotz-mamitik Yainkoari aitoŕtu
zazkiozu.

2. Negaŕ ta samin zaite, oñen ara-
gikoi ta gizakerizale oraindik zeralako;
giriñetan ain goŕdin, iŕitsez ain okitu;
asmenak zaitzen ain zabaŕ; irudikeriz
ainbestetan nasi;

atetikoetara oñen atzaŕi, ta bañnekoe-
tara oñen sorayo;

ain baŕeti ta nabarkoi; ain negaŕ-go-
goŕ ta gaŕbai-gaitz;

nasaikerietara ta aragikerietara ain
zoli; ta oñen nagi neketara ta azkura;

elabeñiak entzuteko ta edeñak ikus-
teko ain mikuin; apal ta zataŕekiko ain
uzkuŕ;

garatzazala biltzeko, ain perkatx;
emateko, ain zeken; eusteko, ain itxi-
kin;

erausketan oñen ostoil, ta ixilbeañean
oñen ezin ixili;

ekanduetan ain eragake, ta egiteko-
tan ain mutiri;

yatean ain saro; ta Yainkoaren itze-
kiko ain goŕ;

atsedenerako oñen zañu, ta lanerako
oñen zañil;

ipuyetara oñen ernai, ta añen-gautan
ain logale;

bukatzeko oñen erpai, ta adi egoteko
oñen txolin;

otoikalditan ain baldan, meza ema-
ten ain epel, yaunañtzean ain legoñ;

ain berealaxe gogo-bañeyaturik; ta ain
gutxitan zure baitara osoro bildurik;

ain bapetan aseñeak añturik, ta lagu-
nekiko ain mukeñbera;

oñen ebazpera, ta akañetan oñen zo-
ñotz;

ain pozik egoalean; ain gelbera atse-
kabe-aldian;

oñen maiz onik asko asmatzen; ta
oñen gutxi burutzen.

3. Utsok eta enparau biotz-sami-
ñez, ta oñen makal zeralako iguin-igu-
ñez aitoñtu ta deitoratu-ezkero, zure
bizkera beti ontzeko ta onbidean aũe-
ratzeko asmo sendo bat erabaki ezazu.
Gero osorik alki izanda, ta olde betez,
nere izenaren aintzarako zeran orixe
eskeñi ezadazu zure biotzaren opama-
yan betiko eñekintzat; zure soin ta go-
goa zintzoki niri egotzirik. Oñela yaur-

opa beaf danez Yainkoari eskeintze-ko, ta nere Soñaren ikuñtona etekiñez aitzeko elbidea irabaziko dezu.

4. Ez dago, ba, eskein gurenagorik, ezta obenak iraungitzeko ordain beteagorik ere; norbera soilki ta osoki mezan eta yaunañtzean, Kisto'ren Soñarekin Yainkoari eskeintzea baño. Garbai-izanda, ta berea egtn-ezkero, adei ta eskañeske iñor letoñkidaken bakoitzean, ara Yaunaren itza; ben benaz diozuet, ez naizala engoitik aren obenetaz oroituko; guziok, ordea, azkesiko dizkiot; ez naiz-eta obendiaren eriotzagale; bai baño aren zindokuntza ta bizitzagura.

VIII ATALA

Kisto'k gurutzean egin zuan buru-eskeña; ta norberaren ukoa.

MAITEAREN OTSA

1. Besoak zabalik ta soña bilutsik, zure oben-ordaintzat, Aita Yainkoari gurutzean burua eskeñi nion bezelaxe, ezertxo ere Nigan gelditurik, Bera ibitzeko, eskeintzeke; zeofek ere egunoroko mezan zeran orixe, zure indař ta

gura guziekin opa garbi ta zindotzat eskeñi beař didazu gogotik ta albait mamitsuki. ¿Zer eskatzen ote dizut le-yazago, zeran guzi ori nere eskuetan uzten ekiteko baño? Zu besterik zene-maidakezun edozeren ere ez naiz ayo-la; zure bila nabil-eta, ez zure emaya-rena.

2. Ni gabe dana euki-ařen, aserik ez zeundeke bezelaxe, Neraunek ere ez nuke atsegin zenemaidakezun edoze-rik, zeori aldera geldirik. Zeran ori eskeñi ezadazu, ta Yainkoaren ordañez osorik indazu; ta eskein begikoa izan-go da ori. Ara, naizan guzi au Aitari zure aldez eskeñi nion, baita nere Soin ta Odol osoa yan-edaritzat eman diz-kizut ere; ni zurea ta zu nerea osorik izan gindezen. Baña zure eskuko geldi nai ba-dezu, ta nere naitara ezpa-dezu zure burua gogotik eskeintzen, eskein ertua da ori, ta guretařteko batze oso-rik ezia dagoke. Beraz, yareitasun ta eskařa iritxi nai ba-dituzu, zure egin-kizun oroen aurretik Yainkoaren eskue-tan zure burua oldez eskeñi beař dezu. Argatik, ba, beren baitan argitu ta ya-rei egiñak ain uři dira; uři dirala-ta

beren burua ziero ukatzen dakitenak. Auxe da nere ebazkun erabakia; inork ezpa-lie guziei uko egingo, nere ikaslea ezin izango litzake. Beraz, nere ikaslea izan nai ba-dezu, zeran ori ta gura dituzun oro eskeñi ezazkidazu.

IX ATALA

**Gure buruak ta gure guziak
Yainkoari eskeñi beař dizkiogu
ta oroen aldez otoi egin.**

IKASLEAREN OTSA

1. Yauna, ortzian eta luñean dauden guziak, zureak dira. Nere burua Zuri opatzat eskeintzeko, ta zurekotzat irauteko gura naiz. Ene Yauna, betiko otseintzat, adiguritzat eta betiereko gorralben-opatzat, naizan auxe gauř biotz-xaloz eskeintzen dizut. Agerian ez-añen, gotzonak aurkian daudela, nere ta eñi osoaren osabiderako opa deuntzat, gauř eskeintzen dizudan zure Soin bikañarekin nere burua ere ař nazazu.

2. Zure adei-opamayan eskeintzen dizkizut, Yauna, obenetan asi nintzan-etik ointxeraño zure ta gotzonen aur-

ean egin ditudan oben ta gaiztakeri guziak; zure maitakuntzaren sutan sendoñtuta, eñe ta geldotu ditzadazun; nere oben-kutsu guziak ezabatu dizazkidadun, nere biotzetik gaiztakeri dana ekoñtu dezazun; eta oben egitez galdu dedan eskaña, beñiz eman dizadazun: dana azkesten didazularik, eta gentzamuñera eñukiz atosten nazularik.

3. ¿Zer nik nere obenakatik egin al nezake, ayek apalki ta negañez aitoñtu, ta etengabe zure adei-eske egon-ezik? Añenetan nagokizu; adeyez entzun nazazu, zure aurkez nagonean. Nere oben guziok iguin-iguin ditut; ez ditut beñiz egin nai; ayen samiñez nago, ta bizi izango naizaño bai-nagoke, gañbai-neketara ta ordainketara gerturik. Nere obenak azketsi, Yaun Oñek, azketsi zazkidazu, zure izen deunaren edeñagatik: zure odol gurenez erosi dezun nere gogo au gaizkatu ezazu, añen. Oña, nere burua zure eñukiari egozten diot; zure eskuetan uzten baidet. Zure eñukiari dagokionez, ez nere gaiztakeri ta zitalkeriak daskatenez, nerekin yardun ezazu.

4. Nere on guziak, uñi ta akastuak

dirala ere, berebat eskeintzen dizkizut; obetu ta zindotu, adiguri ta atsegintzat aritu, ta obero ekañi ditzazun; baita gizagaxo nagi ta alpeñ au ere azaga zori ontsu ta gurenera eramán dezazuntzat.

5. Eskeintzen ere dizkizut yainkozaleen gura zintzo guziak, nere guraso, anai-areba ta aizkide oroen bearkunak, eta zure maitasunagatik niri ala beste inortzuei on zerbait egin digutenenak; baita berentzako ala berendañentzako otoi ta mezak eskatu dizkidaten, ala iritxi nai dituztenenak ere, naiz oraindik aragian bizi, naiz il bai-dirala. Guziok zure eskañaren laguntza, atsearen urgazia, galtzoriekiko babesá, ta nekearen amoya eldu zaizkiela oñtu dezaten, eta gaitz oroetatik aterata, eskañ ugari pozik egin dizazkizuten.

6. Otoi ta ibitopak ere bereziki eskeintzen dizkizut, kalte, atsekabe, irain, bidegabe ala nekabideren bat egin ditatenen alde; baita ere neraunek noizpait atsekabetu, nasi, nekatu, ta itzez ala egitez, oañez ala oñtzeke, gaizpideratu ditudan guztien alde; guzioi gure obena eta elkañganako bidegabekeriak azketsi dizazkigun. Ken itza-

zu, Yaun O'rek, gure biotzetik edozelako peko, asefe, tika ta lazka, ta maitakuntza eten eta senideta'rteko lera moteldu lezaken edozer. E'ruki, Yauna, e'ruki zatzaigu e'ruki-eske datozkigunoi; lande'foi eska'ra iguzu; ta zure eska'ra a'rtzeko, ta betiko bizitzara eltzeko gai egin gaitzazu. Alaxe.

X ATALA

Yauna'rtpena ez da eiki utzi bea'.

MAITEAREN OTSA

1. Eska' ta e'ruki-itu'fira, on eta garbi danaren itu'fira maizetan yoan bea' dezu; zure girin ta ekandu txa'ak serdatu al ditzakezun, eta txe'fen'en ziltza ta maltzu'keri guzien ya'rkiz azka'fago ta atza'fiago izaten irabazi dezazu. Etsayak, yauna'rtzean zaizkigun etekin eta osabide bika'nak yaki'nik, zindo ta azkutiak i'ñolako bide ta estakuruz estikatu ta eragozten ekiten du.

2. Alaba'nan, batzuek, yauna'rtza deunerako gertutzen ari diranekoxe, Satan'en eragikun eta li'urakeri gaiztoagoak yasaten dituzte. Gotuts gaiz-

toa bera, Yob'en idaztiak dionez, Yainkoaren semetaftera dator, oi duan gaiztakeriz ayek nasteko, ala beldufegi ta kezkatiake ipintzeko; ayen azkua moteldu, ala ziñesmena oldarez kendu nairik, yaunaftza, beaf bada, ziero uzten, ala epelki egiten ote dutenetz. Baña aren maltzufkeri ta irudikerien ayola ez da izan beaf, albait zanaft eta izugafiak izan-afen; aitzitik, irudikeri guziok burura yaufi beaf zazkio. Nardatu ta inakaz zirikatu beaf da alako txirdila; ta inolaz ere ez da yaunaftenik utzi beaf, bere yazafkunak, eta irabiatu lizkiguten kezkek gora-bera.

3. Askotan ere arazotzen gaituzte azkua irixteko yoran lafegiak, ta egin beaf dan aitoftekiko ayolak. Yakitunen onuz yardun ezazu; ta kezka ta engara guziak oil itzazu; Yainkoaren eskafta eragotzi, ta gogoaren azkua iraugiten dutelako. Naigabe edo loft uxi-afen, yaunaftzerik ez utzi; baña aitoft egitera lenbaitlen zoaz, ta bidegabe guziak inori ere azketsi zazkiozu. Zeoftek, beftiz, inor mindu ba-dezu, azkespena apalki eskatu ezayozu, ta Yainkoak azketsiko zaitu.

4. ¿Zertarako ote da aitoña gibel-tzen, edota yaunañtza deuna gerora-tzen ibiltzea? Biotza lenbaitlen garbi ezazu, ira agudo eñuxatu, osakaya laster añtu; ta obeki zaudeke, gero-gero-ka ibilki baño. Zerbaitxo dala-ta, gauñ geroratzen ba-dezu, bigañ ausaz lodia-go zerbait datoñke; ta oñela, yaunañ-tzarako eragotzirik ta zañagorik luzaro zeundeke. Toil ta sorayo zakañan en-gara lenbaitlen erauzi ezazu; ezer ere ez dezulako irabaziko kezka ta loñez luzaro ibiltzen, ta egun oroko engaraz Yainkoarenetatik alde egiten. ¡Au miña! epel ta zirilda batzuek aitoñ-atzerabi-deak gogotik añtzen dituzte, ta yaunañ-tza geroratu nairik dabilta, burua er-nayago zaitzen ekinbeañez ez bizitzeko.

5. ¡Ayen maitasun uñia! ¡Ayen azku motela, yaunañtza oñen eiki uzteko! ¡Zein dan, beñiz, zori ontsu ta Yainko-aren begiko, egun oro ere, zilegi dua-la, ta nabartzeke dezakelarik, yaunañ-tzeko gertu ta tiñel dagona. ondo bizi-rik eta biotza oñenbesterañoko garbia zaiturikan! Apaldasuna ala zoztoñ ya-ramongañi bat dala bide, yaunañtza noizpait iñork utziko ba'lu, alakoaren

begirunea goretsi beař litzake. Baña norberaren ixilean sorayotzen ba-di-
yoa, biotza zirikatu, ta berez dezakena
egin beař du; ta iñoren asmoa berezi-
ki begiratzen duan Yaungoikoa, aren
asmo onari lagun datořkioke.

6. Iñor bidez eragotzirik legoke-
nean ere, yaunařtzeko gogo ona ta
asmo zintzoa beti beuzka; ta ořela
Ikuřtonaren ziturik gabe ez da gelditu-
ko. Egun oro ta aldi-une oro yainko-
zale edonor Kisto gogoz ařtzera eldu
diteke-ta, onaurkiz ta gebenik gabe.
Alabañan, Kisto'ren gizakunde ta ne-
kaldia zintzoki gogaltzen, eta Beraga-
nako maitasařez izekitzen iñor ari dan
bakoitzean, gogoz yaunařtzen du, ta
agertzeke iñutzen da (1). Ala ere, egun
berezi batzuetan ta erabakitako gara-
yan bere Eroslearen Soña begirune
samuřez ikuřtonean ařtu beař du, nor-
beraren atsea baño, Yainkoaren go-
reskunde ta aintza nayago ditualarik.

7. Baña yayeguna datořela-ta, ala
oi dala-ta izan-ezik, artarako atontzen

(1) Ataltxo au uřengoxearen ondoan ipiñi
oi da. Nik auřean yařizen det, ala eskatu bide
dualako oldozkun-yařaikerak.

ez dana, askotan gerturik ez da izango. Meza ematen, ala yaunañtzen duan bakoitzean norbera Yainkoari opa efergañtizat eskeintzen diona, ¡auxe zori ontsua! Meza ematen ez eñesaka ez astizegi ibili; baña zure bizkideak oi duten neñi ona eutsi. Inñori ere ez zatza-yo gogaikañi, ez nekagañi; bai baño nausiak oroentzat erabakitako bidetik zabilta; ta zure azku ta lerari baño geyago besteen onerako litzakena begiratu beañ dezu.

XI ATALA

Kisto'ren Soña ta Idazteuna gogo zindoak beañ beañenak ditu.

IKASLEAREN OTSA

1. Ene Yaun xamuñ Yosu ori, ¡zeinbesteko dan gogo azkutiaren eztitasuna, zure oturuntzan Zurekin bazkaltzen duanean! Antxe beste yatekorik ez zayo eskeintzen, Zeorixe baizik, bere kuñun bakaña, bere biotzak gura lezakenik guragañiena zatza-yon Zeorixe. Nik ere gozagañtizat nuke zure auean biotz-biotzetik negañez egotea, ta

Matale zintzoarekin zure oñak malkoz bustea. Baña ¿alako azkurik non ote dago? ¿non ote, befiz, malko-angela deuna? Zure aurrean, ta zure gotzonen aitzinean nere biotza zinez irakin ta pozaren pozez negar egin bear luke. Ikuftonean egiaz aurkian zaitudalako, ezer beste baten irudipean estalirik aŕen.

2. Nere begiok ezin yasango luke-te-ta dagokizun Yainko argitan Zeori ikustea, ta izaki guziak ere ezin liraukete ofen Goiko zeranaren argi-izpitan. Nere ergaltasuna aditurik, beraz, Ikuftonean estaltzen zera. Zinez ba daukat eta yauresten bai-det, gotzonak ortzian yauresten dutena Berbera; nik, baña, zinestez oraindik; ayek, ostera, ikustez ta estalgirik gabe. Benetako zinesmenaren argitan isita egon eta ibili bear det betiko argiaren eguna ageri, ta irudien itzala suntsi-arteraño. Baña argitaro betea datoŕkenean, Ikuftonen erabiltzerik ez dagoke; ortziantan zori onekoak beara ez dutelako ikuftonen osakaya; Yainkoaren aitzinean amaitzeke pozten diralako, Aren aintza begiz-begi ikusten; ta

Yainko-lezean argitatik argitara ibilki, gizatutako liza gozagañitzat dute, betiko aspalditik izan danez, eta betidaño-koan diraukenez.

3. Añitzeko guziok oroiturik, edo-
zelako gogo-atse ere gogaikañi ta na-
kaitz det; ludian ikusi ta entzuten de-
dan guzia ezerez aintzakó deritzadala-
ko, nere Yauna bere aintzan argiro iku-
si-añteraño. Zuk, ene Yainkoa, ziñal-
du didazu ezerk ere ezin poztu, ta
iñongo izakik ere ezin naretu naula,
betidaño begira nai zaitudan ene Yain-
ko Oñek izan-ezik. Baña ilbeañez bizi
naizan añtean ezin diteke ori. Argatik,
gogotik yasatera yo beañ det, eta gura
orotan nere burua zure mendean yañi.
Donokian Zurekin, Yauna, orain ezti-
tan dauden zure deunak, luñean bizi
ziranean, ziñesmen ta egonañi aundiz
zure aintza noiz ote letoñkenik zai zeu-
den. Ayek ziñesten zutena, nik ere zi-
ñesten det; ayek itxaron zutena, nik ere
itxaroten det; ayek eldu diran bertara-
xe, ni ere zure eskañez elduko naizala-
koan nago. Anañtean, ziñespidean ibi-
liko naiz, deunen ereduak azkoñtuta.
Idazteunak ere atsegintzat eta yardun-

eredutzat eukiko ditut; eta guzion gañean zure Soin deun deuna osakai beretzat eta gorkutzat.

4. Biok, ba, emen bizi naizaño beař beařenak uleřtzen ditut; eta ayek gabe biztaldi gaxo au ezin yasango nuke. Soin aunetan ertsirik nagola, biok beařak dituala aitořtzen det; azkuři ta argia. Zeořek, ba, gogo ta soñaren azkuřitzat zure Soña makal auni eman ziñidan, eta nere oñentzako zuzitzat zure itza ipiñi zenuan. Biok gabe ezin ondo bizi; Yainkoaren itza nere gogoarentzako argia dalako, ta zure lkuřtona, bizitzarako ogia. Biok ere izendatu ditezke Eleiz deunaren altxořan oř ta an ipiñitako bi mayak. Bata yaupamaya da, ogi deuna, edo Kisto'ren Soin gurena daukana; bestea, Yainkoaginbidearen maya da, irakaskizun deuna daramana, ziñesmen zuzena argitzen duana, ta deunik Deunena dagon estalki-bañneraño ařtez garamana. Eskañik asko, Yauna, betiko argiaren argia, zure otsein igañle, bidali ta beste ikasleen bidez atondu diguzun ikaste deunaren mayagatik.

5. Eskañik asko, giza-irazole ta ya-

reitzale Ori; izaki guziei zure maitakuntza adirazteko, apari aundi bat atondu dezulako; ta bertan zure Soin ta Odol deunak, ez noski iruditzako bildotsik, yateko ipiñi dezulako; atsedenegiko gozagin oro biltzen dituan montxoñ deun aunetan zindun guziok pozturik, eta osabiderako ardoz orditurik, gotzon deunak, eztizago ta zori obekiago ere, gure maikideak diralarik.

6. ¡Zein goiti ta guren dan yauparien iñarkuna! Berena dute-ta Goiko Yauna itz deunez ikuñtontzeko, espaneñ onesteko, eskuetan eukitzeko, beren aotara sañtzeko ta besteei banatzeko eskubiñdea. ¡Eskuak zein garbi, aboa zein txau, soñña zein deun, ta biotza zein aratz izan beañ dituan, garbitasunaren soññizalea ainbestetan sañtzen zayon yaupariak! Kisto'ren ikuñtona ain maizetan añtzen duan yaupariaren aotik ezer ere ez da irten beañ, itz deun, egoki ta onerakoa baizik.

7. Aren begiak, Kisto'ren Soñña oi dakusten begiak, zintzo ta lotsatiak izan bitez; aren eskuak, ortzi-luñaren Egileña oi darabilten eskuak, garbi ta ortzironantz yasoak. Yaupariei bereziki

Agintzak dasaye; deunak zaitezte, zure Yainko Yaun au deuna naiz-eta.

8. Lagun betořkigu zure eskařa, Yainko guzi aldun Ori; yaupaltza lepaldu degunok, egokiz ta azkuz, biotz garbi ta zindoa eutsirik, zure otseinbidean yařaitu gaitezken. Ta beař genuken bezain garbiki ezin yardun ba-dezakegu, egindako obenen laingo gařbaya, ta gogo apalez ta asmo onez zure otseinbidean areago ekiteko urgazia bederen inzkiguzu, ařen.

XII ATALA

**Ayola aundiz txukundu beař da
Kisto ařtuko duana.**

MAITEAREN OTSA

1. Garbizale ta zindotzale azkařa naiz Ni. Biotz garbiren bila nabil, ta artan bai-det nere atsedentokia. Apaldegi aundi ta apain atondu ezadazu; ta zure baitan Pasea egingo det nere ikaslekin. Natořkizudala ta zure baitan diraudala nai ba-dezu, txantxaki zařmiņa urtikan bota, ta zure biotzaren egoitza garbi ezazu. Gizakeri ta abañ-

ots okef oro urutira itzazu; egaztegiko txori bakuna bezela, koka zaite, ta zure bidegabakeriak gogoan sapitez erabili itzazu. Maitatzaile edonork bere maitale kufunarentzat egoitzarik onen ta edereña txukundu oi du-ta; ortan ageri dalako kufuna eixeratzen duanaren maitasareña.

2. Yakizu, baña, orelako gerkunik ezin irabazi dezakezula zure ekite utsez, urtebete gertutzen ari izango ba-ziña ere, besterik asmatzeke. Nere eruki ta eskaña bakañik dirala-ta, nere mairako urbilbidea zabaltzen zaizu. Orelaxe aberatsak eskalea bazkaltzera deitzen du, ta eskaleak, aren adeya ordaintzeko, eskañ ona baizik ez dauka. Zerez dezakezuna egizu, ez oi dezula-ta, ez beañ dala-ta; baña zugana datoñen zure Yaun maitearen Soña lotsez, begirunez ta biotzez añ ezazu. Ni artarako deitzaile, Ni agintzailea izan natzaizu; peitu zaizuna Nik agolatuko det; zatozkit, ta añ nazazu.

3. Azkurako eskaña damaizunean, zure Yainkoari eskañ-ordaña biguñi ezayozu; ez artarako gai zeralakoan, bai ordea, eruki natzaizulakoan. Azku-

rik gabe ta agoñik ba-zaude, otoiketan ekin, negar egizu, atea yo; ta ez zaite geldi osabiderako eskar edo ñaña bat zuretzat atera-arte. Zuk beña nazu, ez Nik zeori. Ez zatozkit Ni deuntzeko; Ni, oster, zu obetu ta deuntzeko natoñki-zu. Nik deundu ta Nerekin batu zaitzadan, zatozkit; eskar beña ar dezazun, eta obe izateko gaña piztu dizazudan. Ez ezazu, añen, eskar ori laga; biotza, ordea, ayola biziz gertu ezazu, ta zure maitea zure barnean sar ezazu.

4. Yaunañtu-auñean azkua ornitu ez-ezen, yaunañtu-ostean ere azku ori ayolaz yoritu beñ dezu. Yaunañtzera-ko gertubidea azkutsua izan beñ bañzan, geroko zaibidea ez da gutxiago izan beñ. Osteko zaibide ona, eskar ugariago irixteko, gertubiderik onena da-ta. Alabañan, berealaxe iñork atetik atsegiñetara geyegi yotzen ba-du, ituin guziz txañean gelditzen da. Tartail ez zaite; ostenik bizi, ta zure Yainkoa gozagañitzat eutsi; Bera daukazu, ba, ta izaki orok ere ezin kendu dizaizukete. Niri zeran ori osoa eman beñ didazu; geroenean zukan ez, Nigan baizik, lebarik gabe bizitzeko giñoan.

XIII ATALA

**Biotz-biotzez gogo azkufía
Kísto'ri lkuftonean itsasteko ífíkítu
bea' da.**

IKASLEAREN OTSA

1. Ene Yauna, ¡idoroko al ba'zindut bakañikan, nere biotz osoa Zuri zabaltzeko, ta gogo dedanez, Zutzaz pozteko; ta iñork ere afezkero ez nanzan nardatu, ezta iñongo izakik erason, ez begira ere; Zuk bakañik, osterá, nerekin, ta nik Zurekin diardugularik, maitaleak maitearekin, ta aizkideak maikide kuñunarekin oi dutenez! Ofen eske, ofen gale naiz, Zuri osorik itsasteko, nere biotza izaki guzietatik ateratzeko, ta maizeko mezaz ta yaunañkuntzaz goikoak ela betikoak gozagañitzat izaten ikasteko. Ene Yainko Yauna, ¿noiz al dagoke Zurekin baturik eta Zugan murgildurik; nitzaz, osterá, zierro aztuta? Zu nigan eta ni Zugan, eta ofela biok bat eginda irauteko indazu.

2. Nere kuñuna ziñez zaitut, askotafletik berezia. Zugan, bizi naizaño,

egun oro poz-pozikan egoteko. Ziñez nere gentzagiña ere zaitut, Zugan gentza bete ta benetako atsedena dauzkazun Ori; Zure lekorean, ostera, neke ta lan ta amaigabeko zori ertuna. Estalitako Yainkoa ziñez zaitut; gaiztoekin itunik ez, xaloekin, ostera, bai-dezuna. ¡Zein dan ezti zure ayuñea, ene Yauna! zure umentzat dezun ezti adirazteko, ortzitik yetxitako ogi goxóz iñutu naituzu-ta. Ez dago ziñez gure eña bezain aundi beste eñirik, bere yainkoizunak dituanik, zure zindun guziok gure Yainkoa zaitugun bezain auki; zeran Orixe, ba, yaki ta gozagañitzat damaiguzu, egun oro atse gaitezen, eta biotzak ortzira yaso ditzaguntzat.

3. Alabañan. ¿beste eñietako zein alda, Kisto'ren eña bezain bikaña? ¿Gogo azkutia bezain maitea, eguzki-pekotetan zer ote da; bere aragi aintzatsuz ura azteko, Yainkoa sañzen zayon-eta? ¡Ezin esan alako eskaña! ¡añitzeko adeya! ¡Ertzik gabeko maitasareña, gizakumeei bereziki emana! ¿Zer, ba, Yaunari itzuliko al diot, oñelako eskañaren eta ainbesteko maitasunaren ordain? Atsegiñago litzayokenik

ezin eman dizayoket, nere biotza baño, osorik beretzat, eta mamiki itsatsia euki dezan. Ene erai guziak pozez yauziko dira, nere gogoa Yainkoari ziero itsatsirik dagokiokenean. Orduntxe esango dit; zuk Nerekin egon nai ba-dezu, Nik ere zurekin egon nai det. Eta nik erantzungo diot; Yauna, afen, nerekin egon nai ezazu; nik oldez Zurekin egon nai det. Auxe da nere gale bakara; nere biotza Zuri itsatsi-galea.

XIV ATALA

Yainkozale batzuen Kisto'ren Soinganako iskia.

1. Yauna, jauxe da zure beldur diranentzat ostendu dezun ezti yoritsua! Azku ta iskirik bizenaz zure lkurtone-ra ziyoazten yainkozaleak oroiturik, lotsa ta alke oi naiz, ain epel ta otzik zure yaupañira ta yaunañtzeko maira noalako; ain agor ta sorayo diraudalako; ez naizalako osorik eretzen, Yauna, zure afean; eta azkuti askorenak bezain oldañtsuak nere ayeñ ta lera ez diralako. Ayek, ba, yaunañtzeko iski miñez, ta biotza erasoten zien maitasañ-

ez, negarik ezin gebendu zezaketen. Baita are, Zugana, iturri bizia zeran Ořengana, biotzaren eta aurpegiaren aboa zabalik zeuden zure egarri; zure Soña, ezti-eztitan eta gogo saroz ařtu-takoan-ezik, beren gosea ezin ito, ezin asez.

2. ¡Ayen noski zan ziñesmen sukara, zure aurkiaren ezaubide argia! Ayek. ba, ogi-puskatzean Yauna ziñez dazaute; Yosu berekin dabilalako, biotza ain gori eginda daukanekoxe. Askotan nigandik urun daude alako lera ta azkua, alako sukara ta maitasara goria. Adei egidazu, Yosu on, ezti ta biotzbera Ořek; ta noizik-bein bederen, zure maitasara mamitsuaren ino-lako txastua yaunarařtzean indazu, nere ziñesmena sendotu, ta zure onberatasunean daukadan uste ona azkaritu ditezen, eta ez datzaidan aitu beingoan irazekitako, ta ortzi-manaz azitako maitakuntza.

3. Azkara da-ta zure efukia, gogo dedan eskara niri emateko, ta, zure gogarako eguna letořkenean, azkuatsa nere gain adeyez ixurtzeko. Alabañan, azkuti bikain ayena bezain gori nere is-

kia izan ez-añen; zure eskañak nara-
giala, ofelako iski aundi ta goriaren
iskia det, eta alako maitatzañe azkutsu
guzien erkide izateko, ta ayen balder-
na deunean sañtzeko eske ta gura na-
gokizu.

XV ATALA

**Apaldasunez ta norberaren ukoz
azku-eskaña ardiesten da.**

MAITEAREN OTSA

1. Azku-eskaña isituki bilakatu, ifi-
kaz eskatu, egonañiz ta entzitez itxaro,
eskañ onez añtu, apalki eutsi, ta bera-
rekin ayolaz lan egin beañ dezu, Yain-
koa datoñkeño, goiko ikeñerako garai
ta bidea Berari egotzirik. Burua apal-
etsi batez ere beañ dezu, bañnean azku
gutxi baizik ala deus ere ez dezunean
oañtzen. Askotan Yainkoak epe luzean
ukatu zuana, sista labuñ baten eman
oi du.

2. Beti eskaña berealaxe emango
ba-litz, ta iñoren baitara ba-letuñ, gi-
zakume ergalak ondo ezin leramake.
Argatik, uste onez ta egonañi apalez
azku-eskañaren zai egon beañ da. Ala

ere, ezpa-zaizu ematen, ala ixilikan kentzen ba-zaizu, zure buruari ta zure obenei okeña egotzi ezayezu. Apur bat noizpait da, eskaña eragozten ala ostentzen duana. Baña txiki ala aundi ori kendu ta azpiratu ba-zeneza, eskatutakoa eukiko dezu.

3. Zeran ori biotz-biotzetik Yainkoari ba-damayozu, ta ezertxoren ere bila ezpa-zabiltza; baita, ostera, zure burua osorik Aren eskueñan uzten badezu; berealaxe Nerekin batu ta nareturik zaudeke; ezer ere ez zaizulako izango, Yainkoaren oldea bezain gozagañi ta atsegiña. Beraz, bere txedea zintzoki Yainkoagana yaso, ta bere biotzetik edozertarako lera ta iguin okeñ guzia oilduko litukena, eskaña artzeko gertu gerturik legoke, ta azkuemayerako gai izango lirake. Ontzi utsik dagon artara, oneskundera Yau-nak igoñi dualako. Ta zirtzilkeriok beregandik iñork añasago erauzi, ta norbera nardaren nardaz ilagotzat uzten duan aña; lasterago ere eskaña datofkio, ta eruzago sartzen zayo, ta biotz yareya gorago yasotzen du.

4. Orduntxe dakuske, ta okitu ta

txunditurik dagoke, ta biotza zabalduko zayo; bere aldez dagokelako Yainkoaren eskua, ta esku artan norbera osoa yañi dualako. Oñela onetsiko da Yainkoaren biñā biotz biotzez dabiñāna, ta bere gogoa alpeñik añtu ez duana. Alakoa danak, yaunañtzean Yainkoarekiko batze-eskañ aundia irabazten du; azku ta atsearen ayola ez dalako, bai baño, azku ta atse oroen gañetik, Yainkoaren aintza ta ospe-ondoren dabiñalako.

XVI ATALA

**Gure beañkunak Kisto'ri zabaldu,
ta Aren eskafa eskatu beañ
diogu.**

IKASLEAREN OTSA

1. Ene Yaun eztitsu ta maitatzañe okitua, azkuz añtu orain nai zaituana; bai-dakizu zein ergal naizanik, eta zein beañaldian nagonik; zeinbeste gaitz ta obenetan natzanik, eta zeinbestetan nekez, ziltzaz, kezkaz ta orbanez nabiñanik. Osakairen eske natoñkizu; atse ta urgaziren otoi nagokizu. Dana da-

kizunari, nere bañne osoa nabarizazunari, urgazi ta ziero poztu nazakezunari itz egiten diozu. Zeorék bai-dakizkizu onik beañenak neretzat zein diranik, eta nere ekandu onak zein diran uñi.

2. Aots, zure auñean nago landeñ ta bilusik, eskañaren eske, ta eñukiararen otoi. Zure eskale gose au ase; nere otza zure maitasunaren sutan berotu, ta zure auñpegi-argiz nere itxutasuna argitu ezazu. Luñeko guziak samindu zazkidazu; neke ta naigabe oro yasangañiak egizkidazu; ta beko izaki oro nardatu ta aztu-erazi zazkidazu. Zu bakañik gozagañia det betidaño-koan; Zu zera-ta nere yan-edari bakaña, nere kufuna, nere poza, nere ezta ta nere on guzia.

3. ¡Zure begitañtez ixio; eñe, ta zurlakotu ai ninduzu, batze mamitsurako eskañez, ta urtu ninduken maitasun gañez gogo bat bera biok izateko! Ez nazazu utzi Zuregandik kamus ta agoñik aldegiten; eñukiz, ordea, nerekin yardun ezazu, askotan zure deunekin oparo egin dezunez. ¿Nor añituko al liteke, ni zure maitasañez osorik eñe ta kankinduko ba-nintz, su beti bizi ta

beñere ez itzaltzen dana, ta biotza garbitzen eta adimena argitzen duan maitakuntza, Zeori zeralarik?

XVII ATALA

**Kisto aitzeko lera bizi
ta iski kementsua.**

IKASLEAREN OTSA

1. Azkurik bizienaz ta maitasafegoriz, biotz-lera ta adore osoz Zu, Yaun Ori, aitzeko irikan nago; yaunaitzean Zuganako irikan zeuden bezelaxe yardunbide zindoz zure gogarako berezi ta azkuti goriak izan ziran deun eta yainkozale asko. Ene Yainkoa, ene betiereko kutuna, ta aitzerik ez dezun zori ona; deun edonork egundo euki edo somatu izan zezaken iskirik gorienaz ta begirunerik lotsofenaz artu nai zaitut.

2. Ta ayen azku zañadarik ezpadet irabazi ere, nere biotzaren lera osoa eskeintzen dizut, iski goxo ta gori guziok nigan bilduta ba'neuzkan bezelaxe. Baita ere, gogo zintzoak asmatu ta irikatu dezaken dan-dana, begirunerik itzal-

enaz ta azku mamitsuz ekañi ta eskeintzen dizut. Ezertxo ere ez det nai neretzat berezi; naizan eta daukadan guzia opatzen dizut. Zure Ama, Miren neskuts deun eta aintzatsuak añtu ta ifikatu zinduanenez, gizakunde itzalaren gezna zekañkion gotzonari azkuz ta apalik erantzun zionean; « ara Yau-naren mirabea; diozunez egin bekit »; nik ere gauñ añtu nai zaitut, ene Yainko Yauna, ene Irazle ta Eroslea; arenbateko lera, begirunez, goreskunde ta deduz; arenbateko eskañ onez, adiguriz ta maitasafez; arenbateko ziñespen, itxaropen ta garbitasunez.

3. Baita, deunik bikañena ta zure auñelaria zan Yon Ugutzalea, zure aitziñean Goteungandikako pozez, amaren sabelean zegola, yauzi zan bezela, ta gero, Yosu gizañtean ibiltzen ikusirik, apal-apalik eta lera ixioz itzok esan zituan bezela; « ezkonañaren aizkidea, bera aldean euki ta entzun-ezkero, ezkonañaren abotsez ezti-eztitan dago »; ofela ni ere eñetzeko iski deun eta goriz, ta naizen au Zuri auñkezteko gogoz nago.

Argatik, nere onerako ta nere otoya-

ri egotzitako guzien aldez, oña eskeintzen dizkizut yainkozale oroen biotzetiko poz-ikara, lera gañtsu, gogotxundio, goiko argikuntza ta ortzi-ikuspenak; baita ortzi-luñeko izaki guziak beren indar onez ta goreskunder ez eman eta emango dituzten ospea ere; guziok dagokizunez, beti goralduta ta aintzetsi dezaguntzat.

4. Nere iskiok eta Zeori amai ta neñirik gabe goralduta ta onesteko gogoak, Yainko Yaun Oñek ar itzazu; ezin esan alako gurena zeran Oñi bidez zor zaskizuta. Izkiok itzultzen ta itzuli nai dizkizut egun oro ta aldi-une banan; ta nerekin eskar ta goreskunak Zuri ordaintzeko, ortziko gotzon oroei ta zure yañaitzale guziei otoiz ta gurariz dei ta añen egin dizkiet.

5. Gora bezaitzate eri, enda ta izkera guziak; ta zure izen deun ta ezti-tsua poz-ikaraz ta azku goriz aundietsi bezate. Ta zure lkuñton gurena begirunez ta azkuz ospatu, ta ziñesmen osoz añzen dutenak, eskar ta erukia irixteko gai zure begitan bitez, ta oben-di aunen aldez isituki otoi egin bezate. Ta irikatu zuten azkua ta batze pozkoña

iritxi-orduko, zure mai deunetik alde-
gitean, gaxo aunetzaz, aŕen, oroi bitez.

XVIII ATALA

Ez degu lkuŕtona yakinmiñez ikeŕi;
bai, ordea, Kisto'ren yaŕaitzale
apalak geralakoan,
gure sena ziñesmen deunaren
azpian eutsi beaŕ degu.

IKASLEAREN OTSA

1. Utzi ezazu ayolaz lkuŕton osten
au yakinmiñez ta alpeŕik ikeŕtzeko ata-
za, zalantza sakonetan ezpa-dezu mur-
gildu nai. Goikoen ikeŕtzalea aintzak
zapalduko du. Gizakumeak uleŕtu
baño, Yainkoak geyago egin dezake.
Yasangaria bai-da egiaren azteŕketa
apal eta zintzoa, irakaskizuna aŕtzeko
gertua, ta irakasleen aztaŕnatik ibiltzen
ekiten duana.

2. Eztabaidako bide makaraŕak utzi-
rik, Yainkoaren aginbide zelai ta zin-
dotik diyoan gogo xaloa, jauxe da
zori ontsua! Azkua askok galdu zuten,
goikoak ikeŕi nairikan. Ziñesmena es-
katzen zaizu, ta bizkera zindoa; ez

noski adimen gurena, ez Yainko-zadoñ-en ezaguntza. Zure bañnekoak ezpa-dituzu igeri, ez uleñtzen; ¿nola adituko al zenituke zure-gañean daudenak? Yainkoaren azpian buru ori, ta ziñesmenaren azpian zure sena yañi itzazu; ta yakiterako argia emango zaizu, adiñona ala beaña zaizun neuñi artan.

3. Batzuek mutiriki zirikatzen dira lkuñton aunetzaz; baña oñen obena etsayari egotzi beañ zayo, ayei ez. Ol-dozkeriok ba-datozkizu, ayola ez izan; eztabaidaka ayekin ez asi; txeren'ek iradokitzen dizkizun ziltzaei ez eran-tzun; Yainkoaren itza ziñetsi ezazu; Bere igañle ta deunei ziñetsi ezayezu; ta igesi diyoakizuke etsaya. Askotan Yainkoaren moñoyarentzat adiñona da oñelakorik yasatea. Ez ditu, ba, etsayak bere mendean eskieñki dauzkan zinge ta obendiak ziltzatzen; zindun azkutiak, osterá, askotariko bidez zirikatatu ta aizkatzen bai-ditu.

4. Auñera, ba; lkuñtonera zoaz zifi-esmen xalo ta biribilez, ta begirune esketsuz. Eta uleñtu ezin dezakezuna, alorodun Yainkoari etsita, utzi ezayozu. Ez dizu Yainkoak iruzufik egiten :

norberari ziñesten dionak, ofexek iruzufetara yotzen bai-du. Xaloekin Yainkoak oi diardu; apalei agertzen zaye, umetxoei adiña damaye; gogo-garbiei ulefbidea zabaltzen die; eskaña afoei ta yakinmiñez dabiltzanei ostentzen dielarik. Giza-adimena makalada, ta atzipetu bai-diteke; benetako ziñesmena, ostera, ezin atzipetu da.

5. Adimena, ta iñork berez lerabilken ikeña, ziñesmenaren ondoan, ez aúfean, ez atzika, ibili bear dira. Ikuñton deun eta bikaña bikañago aune-tan, ziñesmena ta maitasuna aúrelariak dira, ta ixil-ixilikan diardute. Beti ta edonon ere dagon Yainko guzi aldunak, ezin ikefi diran sail aundiak ortzi-lufetan egiten ditu; ta Aren eginbide gelgañietarako ikefbiderik ez dago. Yainko-eginbideak giza-adimenarentzat ulefe-erazak ba'lira, ez lirake afigañiak izango ezta ezin esan alakoak ere.

AMAYA

Bilabidea

LENBIZIKO IDAZTIA

Gogo-bizitzarako oaf adiñonak.

Atalak.

I.	Kisto'ren antz-bidea, ta lu'eko zirtzilkeri oroen narga.....	5
II.	Norberaren apalespena.....	7
III.	Egiaren irakaskizuna.	9
IV.	Eginbea'etarako gurbildasuna.....	13
V.	Idazteunaren iraku'pena.....	14
VI.	Girin oke'ak.....	15
VII.	Alpe'rikako uste ta a'okeritik igesi bea' da..	16
VIII.	Nabasta'e geyegitik igesi bea' da.....	17
IX.	Men eta aginpetza	18
X.	Itz alpe'ak u'rtikan bea' dira	19

Atalak

XI.	Gentzarako bidea ta aureratzeke leya.....	21
XII.	Loña zein dan adiñon.	23
XIII.	Ziltzaei yañki beañ....	24
XIV.	Iritzi okeñak oildu beañ dira	28
XV.	Maitasunetik ernetako egikunak	29
XVI.	Besteen utsak yasan beañ.....	31
XVII.	Lekaideen bizitza.....	33
XVIII.	Asaba deunen ereduak	34
XIX.	Lekaide zintzoaren iñarkunak.....	34
XX.	Bakañ ta ixilik bizigura	40
XXI.	Biotz-gañbaya.....	45
XXII.	Gizakia zeñen dan gaxo	48
XXIII.	Eriotzazkuna.....	51
XXIV.	Obendien auzi ta oña- zeak.	56
XXV.	Gure bizkera osoaren obekuntza	61

BIGAÑEN IDAZTIA

Bañebidera etofitzeko gaztiguak.

Atalak

I.	Bañeko erausia.....	67
II.	Alki izate apala.....	71
III.	Gizon zindo ta mana .	73
IV.	Sen garbi ta asmo xa- loa.....	75
V.	Norberaren sokuna...	76
VI.	Bañe zindoaren poza.	78
VII.	Danik maiteena Yosu beañ dala.....	80
VIII.	Yosu'ren aizkidetasun nabasia.....	82
XI.	Atserik-eza.....	85
X.	Yainkoaren urgaiziari zoñ zayon eskañ ona..	90
XI.	Kisto'ren gurutz-zale gutxi dira.....	93
XII.	Gurutz deunaren bide zabala.....	95

IRUGAÑEN IDAZTIA

Bañeko atsea.

I.	Gogo zintzoari Kisto'k darauskiõna.....	104
----	--	-----

Atalak

- II. Itz-zaratarik gabe egia
barnean mintzatzen da 105
- III. Yainkoaren mintzoa
apalik entzun beař da;
ta askok ez du iratio-
tzen..... 107
- IV. Egiaz ta apalik Yain-
koaren aũean yardun
beař da..... 111
- V. Yainko maitasunaren
atze ařigariak..... 114
- VI. Benetako maitalearen
agerbidea..... 118
- VII. Apaldasun aterpean
eskařa ostendu beař da 121
- VIII. Yainkoaren aũean
norberaren apales-
pena..... 124
- IX. Elburua dan Yainko-
agana guziak zuzendu
beař dira..... 126
- X. Gizakeria nardatu ez-
kero, Yainkoaganako
mořoitza gozoa da ... 128
- XI. Biotz-iritsak aztertu ta
ezi beař dira..... 131
- XII. Yasamenaren azkun-

Atalak

- | | | |
|--------|---|-----|
| | tza ta ifitsekiko bu-
fuka,..... | 133 |
| XIII. | Yosu-Kisto'ren eduko
men apala..... | 135 |
| XIV. | Yainkoaren epai oste-
nak gogaldu beaf dira,
ondo dagigunetan ez
afotzeko..... | 137 |
| XV. | Nola yardun eta min-
tzo beaf dan gure lite-
ken edozertan..... | 139 |
| XVI. | Benetako pozaren bila,
Yainkoagana bakafik
yoan beaf da..... | 141 |
| XVII. | Ayola dana Yainko-
agan ezafi beaf da ... | 143 |
| XVIII. | Biztaldiko nekeak,
Kisto'ren eduz, gogo
onez yasan beaf dira. | 145 |
| XIX. | Irañen yasapena; ta
yasanbera ziña nor
nabari dan..... | 147 |
| XX. | Norberaren andega —
aitofa, ta biztaldi aune-
tako nekeak..... | 149 |
| XXI. | Onaufki ta emai gu-
zien gañetik, Yainko- | |

Atatak

	agan atseden beaf da.	152
XXII.	Yainkoagandik artuta- ko onaufkien oroipena	156
XXIII.	Gentza aundia dara- kaften lau bide.....	159
XXIV.	Ufkoaren yardunbi- dean garazan ibiltzetik igesi beaf.....	162
XXV.	Biotz-gentza sendoa ta benetako auferakun- tza zertan datzaten....	163
XXVI.	Irakurpenez baño ge- yago, eske-otoiz bere yareitasuna gogoak irabazten du; ta zein guren dan yareitasun ori.....	165
XXVII.	Norberaren maitasu- nak onik onena añas ateratzen du.....	167
XXVIII.	Maxiolarien aitzika...	170
XXIX.	Loñaldian Yainkoa nola deitu ta onetsi beaf dan.....	171
XXX.	Yainkoaren laguntza eskatu, ta eskaña be- fiz daukakegula uste	

Atalak

	, beaf degu.....	172
XXXI.	Irazalea aufkitu al izateko, izakiak atzendu beaf dira.....	175
XXXII.	Norberaganako ta irits oroekiko ukoa.....	178
XXXIII.	Biotza aldakoña da; ta Yainkoagana biguñi beaf da gure azkenasmoa.....	180
XXXIV.	Maitatzaleari Yainkoa danik gozagafiena orotan zayo.....	181
XXXV.	Biztaldi aunetan ziltzatekiko eskieñtasunik ez dago.....	184
XXXVI.	Giza-irizkerien aitzii...	000
XXXVII.	Biotz yarei iristeko, norberaren uko soil eta osoa.....	187
XXXVIII.	Atetikoetan norbera ondo yauñi, ta galtzorian Yainkoagana yo beaf da.....	189
XXXIX.	Ez da garatzetan muturiki yardun beaf...	191
XL.	On pitsik ere gizakiak	

Atalak

- berez ez du, ta ezertzaz ezin iñaraindu ditteke
- XL I. Aldiko dedu guzien narda 195
- XL II. Gentza ez da gizagan ipiñi beař 196
- XL III. Gizařteko yakintza utsalaren aitzia 197
- XL IV. Atetikorik ez du iñork bereganatu beař 199
- XL V. Ez zaye oroei ziñetsi beař; ta zein eřaz erausketan leřatzen dan 200
- XL VI. Itz mingařiak zartatzen zazkigunean, Yainkoagandik entzindu beař. 204
- XL VII. Betiko bizitzagatik neke oro yasan beař dira 207
- XL VIII. Betiko eguna, ta bizitaldi aunetako kezka. 209
- XL IX. Betiko bizitzarako iskia; ta buřukalariei zeinbesteko onauřki eskeñi zayen 215

Afalak

- L. Lañi-aldian nork bera
Yainkoaren eskuetan
nola eskeñi beař dion.. 218
- LI. Eginbide apaletan ekin
beař da, aundietarako
azkurik ez dagonean... 223
- LII. Atsea baño oñazea ira-
baziago degulakoan
egon beař gera..... 223
- LIII. Luřeko atseginkeriz ez
da Yainkoaren eskařa
nasten..... 226
- LIV. Etořkiaren ta eskařaren
eragikun banakoak.... 228
- LV. Gizakiaren andega, ta
Yainko-eskařaren era-
gimena..... 233
- LVI. Buri a ukatu, ta guruz-
pidean Kisto'ren antza
ařtu beař degu..... 237
- LVII. Iñoz ere ez da kokildu
beař, uts bat edo bat
eginda ere..... 240
- LVIII. Goikoak eřa Yainkoa-
ren ebazpide ostenak ez
ditugu ikeři beař..... 242
- LIX. Yainkoagan bakařik

entzite ta itxaropen gu-
zia ipiñi beař da..... 247

LAUGAÑEN IDAZTIA

Yaupamaiko Ikuřtona.

- I. Zeinbesteko begirunez
Kisto arřtu beař dan.... 251
- II. Onbera ta maitatzaġea
Ikuřtonean Yainkoa
agertzen zaigu..... 258
- III. Adiņona da maiz yau-
nařtzea 262
- IV. Onauřkirik asko yau-
nartzale zintzoei eman
zaizkie..... 265
- V. Ikuřtonaren gurentasu-
na ta apaizen bikainda-
suna..... 269
- VI. Yaunařtu-auřean zertan
ari beař ote danik gal-
detzen da..... 271
- VII. Baitaren azteřpena ta
obetzeko asmoa..... 272
- VIII. Kisto'k gurutzean egin
zuan buru-eskeņa, ta
norberarenukoa.....a.. 275

Atalak

- | | | |
|--------|---|-----|
| XI. | Gure buruak ta gure guziak Yainkoari eskeñi beař dizkiogu ta oroen aldez otoi egin..... | 277 |
| X. | Yaunařpena ez da eiki utzi beař..... | 280 |
| XI. | Kisto'ren Soña ta Idazteuna gogo zindoak beař beařenak ditu..... | 284 |
| XII. | Ayola aundiz txukundu beař da Kisto ařtuko duana..... | 289 |
| XIII. | Biotz-biotzez gogo azkutia Kisto'ri ikuřtonean itsasteko ifikitu beař da | 292 |
| XIV | Yainkozale batzuen Kisto'ren Soinganako iskia | 594 |
| XV. | Apaldasunez ta norberaren ukoz azku-eskařa ardiesten da..... | 296 |
| XVI. | Gure beařkunak Kisto'ri zabaldu, ta Aren eskařa eskatu beař diogu | 298 |
| XVII. | Kisto ařtzeko lera bizi ta iski kementsua..... | 300 |
| XVIII. | Ez degu lkuřtona yakinmiñez ikeři; bai, or- | |

dea, Kisto'ren yafaitza-
 ãe apalak geralakoan,
 gure sena ziñesmen de-
 unaren azpian eutsi
 bea' degu..... 303









